


BILBOKO HILERRIAK: SORRERA ETA BILAKAERA



1.irudia. Vista Alegreko Hilerriaren ikuspegi orokorra. 1984-11-17. AMB-BUA. Bilboko Udalaren Funtsa. 0301_004965_F-000572-007-004

1	Sarrera: begirada bat atzera.....	4
2	Testuinguru historikoa: arrazoiaren inposizioa tradizioaren aurrean	7
2.1	XIX. mendeko Bilboko gertakari politiko eta ekonomikoak	10
2.2	Guda Karlistak	10
2.3	Ekonomiaren hazkunde hasiera. Industrializazio Prozesuaren aurrekariak 13	
2.4	Industrializazio prozesua	14
2.5	Industrializazioaren kapitalak	14
2.6	1898 eta 1931 urteen bitartean	17
2.7	Bilboko demografian prozesu industrializatzailearen eragina	17
2.8	1876tik aurrera	19
2.9	Hazkunde demografikoa	19
2.10	Saldo migratzaileak.....	20
2.11	Hilkortasuna.....	21
2.12	Erakundeen lanak	23
2.13	Hazkunde demografikoa, hirugarren egoera	24
3	Europako aurrekariak	24
3.1	Hilerrien bilakaera.....	25
3.2	Aldaketa handien eredua: <i>Santos Inocentes</i> eta <i>Père Lachaise</i> (París)..	33
3.3	Pariseko ereduen jarraibideak jarraituz.	41
4	Bilboko hilerri modernoaren aurrekariak	42
4.1	San Frantziskoko ortuaren hilerriak.....	45
4.2	Begoñako elizingururen hilerria.....	47
4.3	Mallonako hilerria	56
4.4	Deustuko hilerria.....	61
4.5	Hilerri britaniarra	64
5	Vista Alegreko Hilerriaren aurrekariak	73
5.1	Behin-betiko irtenbidea zabaltzea zen?	75
5.2	Azken fasearen hasiera: eraikuntza	88
6	Eraikuntza	89
7	Pertsona ospetsuak	95
7.1	YBARRA FAMILIA (XIX-XX)	95
7.2	TOMÁS ALLENDE (1848-1935)	98

7.3	CASILDA ITURRIZAR ANDREA / TOMÁS JOSÉ DE EPALZA (1826-1900) (1798-1873)	99
7.4	JUANA MIR (VISTA ALEGREKO HILERRIAN FUSILATUA) (?-1937)	102
7.5	INDALECIO PRIETO (1883-1962)	103
7.6	GABRIEL ARESTI (1933-1975)	111
7.7	FACUNDO PEREZAGUA (1860-1935)	113
7.8	JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ DE LAS RIVAS (1850-1913)	115
7.9	TOMÁS MEABE BILBAO (1879-1915)	116
7.10	MARCELINO IBÁÑEZ DE BETOLAZA (1863-1945)	118
7.11	JOSÉ M. OLABARRI MASSINO (1849-1924)	119
7.12	EULALIA ABAITUA (1853-1943)	120
7.13	JULITA BERROJALBIZ (1923-1998)	123
7.14	RAFAEL MORENO ARANZADI (Pichichi) (1892-1922)	125
7.15	CARLOS CASERO RUIZ (?-1918 hemeroteca eta hilobia / 1919 hilerriaren erregistru-liburuan)	126
7.16	SIMÓN CABILDO GIL (Doña Croqueta)	127
8	Ehorzketa esanguratsuak	129
8.1	1912KO ZABALGUNEKO ZIRKU ANTZOKIAREN HONDAMENDIA.	129
8.2	OIZ MENDIKO ISTRIPUAREN MEMORIAN	137
8.3	2007/52EKO LEGEA BETE BEHAR DUTEN MONUMENTUAK (MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEA)	146
8.3.1	KRIPTA MAUSOLEOA	146
8.3.2	SOLDADUEN PANTEOIA	154
8.3.3	ALDERDI ERREPUBLIKANOKO SOLDADUEN LURPERATZE TOKIA (1937 baino lehen, gaur egun ez da existitzen)	157
8.3.4	1936AN ETA 1937AN EUZKADIKO HERRI AUZITEGIAK KONDENATUTAKO PRESOK FUSILATU ZITUZTEN HORMA	158
8.3.5	AUZITEGI FRANKISTAK KONDENATUTAKO PRESOK FUSILATU ZITUZTEN HORMA (1937ko ekainaren 19tik aurrera)	161
9	Ondorioak: Vista Alegreren handitasuna	196

1 Sarrera: begirada bat atzera

Lan honen helburu nagusia gure kulturaren alde batera utzi den zati bat aurkeztea da, zehazki hilerri modernoaren jatorria eta bere irudikapena Bilboko adierazle nagusienean: Vista Alegre Bilboko udal hilerria. Zamudio-Derion kokatuta dago eta lan honetan zehar leku hau hautatzearen arrazoi historiko ezberdinak aurkeztu eta azalduko dira.

Hilerri modernoaren sorrera XVII. mendeko Arrazoiaren Aroan hasi arren, atzerago eman behar da hauen jatorri historikoaren ikuspegi orokor bat izateko, Antzina Erromako garaira zehatz mehatz, non biztanleriaren erlijio nagusia paganoa zen eta kristautasuna jazartuta eta debekatuta zegoen. Baina egoera hau 313.urtean aldatu zen Milaneko Ediktuarekin eta Konstantinoren Bakearekin, kristautasuna Erromako erlijio ofiziala bilakatuz. Erlijio berria klandestinitatetik irten zen eta Europan zehar zabaltzen zen heriotzarekiko kultura eta jarrera zehatza sortuz komunitatean. Baina pentsaeraren oinarria ez zen berria, baizik eta sinesmen, pentsaera eta tradizio ezberdinetan oinarritu ziren eta mitoz, tradizioz, erritoz eta irudiz betetako mundu erlijioso bat garatu ahal izan zuten, lurralde erraldoi horretan zehar zabaltzeko gai izan zena.

Denbora aurrera egin ahala mundu hori eraldatzen joan zen eta errito guztiak aldatzen joan ziren. Azpi zoruan klandestinitatean lurperatzen ziren kristautasunera bihurtutako patrizioen ondoan lurperatua nahi izatera pasatu ziren, hauek kasu batzuetan martirtzat hartzen zituzten eta. Beraiekin eta beraien erlikiekin hurbiltasuna babesa ematen zien heriotzaren ondorengo bizitzarako bidaian eta arimak beste aldera heltzera laguntzen zituen. Puntu hauen inguruan kokagune asko eraiki ziren eta martirrarekiko hurbiltasuna ondasun preziatua bihurtu zen erlijioaren barnean XVIII eta XIX. mendeak arte.

Erdi Aroan zehar martirraren babesgarritasunaren ideia mantendu zen eta garai horretan eliza eta tenpluak ezarri ziren. Behe-kleroak fededunen elizen barruan lurperatze nahia onartu zuen arren, onarpen hau lurperatzea zekarren etekin ekonomikoek eragin zuten batez ere. Hala ere, elizako goi-mailako botereak behin eta berriz debekuak bidaltzen zituzten pertsonak lur sakratua profanatu ez zezaten. Baina tenplu barruan lurperatuen eskubide eta kategoria sozialak ezartzen joan ziren, barruan lurperatu ahal ziren klaseak zabaltzen. Are gehiago, garai batean tenpluen barruan lurperatzea debekatzen zuen arauaren indargabetzea erosi ahal izan zen.

Hildakoarekin hurbiltasunaren joera hau XVIII. mendera arte mantendu zen. Arrazoiaren Aroan hirigune eta elizetan lurperatzearen arriskuak nabarmentzen zituzten kritikak agertzen hasi ziren. Ilustrazioa, jakintza berriak eta aurrerapen zientifikoek mendeetan zehar ezarritako tradizioak eta pentsaerak zalantzan jarri zituzten. Horrela, paradigma berri bat agertu zen eta hilerriak hiriguneetatik ateratzeko prozesu berri bat zabaldu zen.

Hala ere, aldaketa hauek Espainian mende bat beranduago garatu ziren. Atzerapen ekonomikoa eta Europako korrante aurreratuekin erakundeen lotura eza elizak zuen garrantziarekin eta Antzinako Erregimenetik etorritako pentsaerarekin bat egin zuten. Ondorioz, burgesiaren pentsamoldea beste herrialdeetan baino apurketa txikiagoa izan zuen. Lotura ez egon arren, baziren pentsaera berriarekin bat egiten zuten burgesiaren talde batzuk, eta hauek elkartasun berriak sortu zituzten sartu berriak ziren ideia horiek sustatzeko. Elkartasun hauetatik zaharrena Errege Euskalerraren Adiskideen Elkartea (*Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*) izan zen. Solasaldien eta hezkuntzaren bidez hedatzen zituzten beraien ideiak, hau da, zientzia ohizko bihurtu nahi zuten. Horrela, beraien ideologia zabaldu zuten eta garrantzitsuak ziren jakintasunaren guneak alde batera utzi zituzten: eliza eta unibertsitatea.



2. irudia: Errege Euskalerraren Adiskideen Elkartearen logoa eta bere egoitza Insausti Jauregia. <https://bit.ly/2JSm3af> eta <https://bit.ly/2McraDy>

Pentsaera aldaketa hau eta arrazoi historiko zein instituzional ezberdinek hilerriak hirietatik ateratzeko prozesu baten sorrera erraztu zuten. Pentsaera berriaren sustapenak ez zituen hilerrietan bakarrik aldaketak ekarri, baizik eta hiriek burgesiaren kezken ispilu bihurtu ziren, zabalguneak proiektatu eta eraiki zituzten, langileak hiri-ingurutik kanporatu zituzten eta hiriek berregituratze prozesu bat hasi zuten, gaur egungo hirientzako oinarriak ezarriz.

Prozesu guzti hau Vista Alegre-ko hilerriaren diseinua eta eraikuntza sustatu zuen XIX eta XX. mendeetan. Bilbo berri baten jaiotzaren islapena da hiribilduaren auzo guztiak, bai aberatsak bai txiroak, eta bere pertsona ospetsu guztien oroimena hileta-leku honetan baitaude. Horregatik hilerria Bilboren bikoitza dela esan daiteke.

Agintariak eta burgesiak hiribilduaren osasungarritasunean lan egiten hasi zirenean, hiria bere egitura aldatzen ari zuen industrializazio prozesu baten barruan zegoen. Gainera, aldi honetan zehar, industrializazio prozesuak, guduak eta izurrite ezberdinek eragin negatiboa izan zuten heriotza-tasan, honen handitzea nabarigarria izanez. XIX. mendean hiribilduan eragin handien izan zuten gatazkak hiru Gerra Karlistak izan ziren. Hauek Bilbo setiatu zutenean bukatu ziren eta gizartearen aldaketan islapena izan ziren. Herrialde liberaletatik etorritako pentsaera berriek Antzinako Erregimeneko ikuspegia garaituko zuten. Pentsaera hau tradizionalagoa eta finkoagoa zen landa-eremuetan behe-kleroa zuen indarra zela eta.

Testuinguru honetan hiribilduaren barruan zeuden hilerri guztiak eta beraien inguruak betetzen hasi ziren, metaketak eraginez eta osasungarritasuna arriskuan jarritz. Egoera konplexu hau talde ilustratuen kritikak erakarri zituen eta agintariak osasungarritasunaren egoera ahalik eta lehen konpondu nahi zuten arren, XX. mendera arte itxaron behar izan zuten arazo guztiak behin-betiko konpontzeko.

Arazo hauek zirela medio Vista Alegreko hilerria jaio zen, hilerri berri bat hiriaren barruan zeuden hilerriak eragindako osasun-egoera hobetzeko eta hiribilduaren etorkizuna aurkezteko, gaur egun oraindik gertatzen ari den hiri-eraldaketa aurreikusiz. Heriotza-lekuaren diseinuaz arduratu zen arkitekto nagusia Edesio de Garamendi izan zen eta bere aroko legeria eta korrante aurreratuenak jarraitu zituen proiektua aurrera eramateko. Gainera, momentu horretan hirian ezarrita zegoen eklektizismoan oinarritutako korrontea erabili zuen. Nahiz eta diseinu originala berea izan, ezin izan zuen bukatuta ikusi, lehenago hil baitzen. Horregatik, proiektuaren autoretza tradizioz bere laguntzaileari eman zaio, Enrique Epalza.

Baina hilerriaren bilakaera eta bertan etengabe egindako lurperatzeak XIX. mendetik aurrera hiribilduaren historia, artea, kultura eta gizartearen garapena miresteko leku pribilegiatu bat sortzen du. Hilerriak gure gizartean maiz ahaztutako ondareak izan arren, berreskuratu beharko lirateke. Askotan hiriaren

toki garrantzitsuak dira ez bakarrik hildakoen bizilekua izateagatik, baizik eta, poliki-poliki, bizidunek ere gozamenerako lekutzat har dezaketelako.

Hemen eskaintzen den lan honetan hilerrien sorreratik Bilboko Udal Hilerriaren eraikuntzara arte egondako prozesu guztia azaltzen eta atal garrantzitsuenak xehetasunez aurkezten saiatu da. Irakurlearen eta gizartearen pentsaera zabaltzea du helburu, askotan hilerriak heriotzarako lekuak bezala bakarrik ikusi baitira, baina bizidunek beraien edertasuna miretsi ahal ditugun lekuak ere izan daitezke.

2 Testuinguru historikoa: arrazoiaren inposizioa tradizioaren aurrean

XVIII. mendeak europar jazoeren etorkizuna bideratuko duten hiru gertaera historiko uzten dizkigu: Ilustrazioa, Iraultza Frantzesak eta Industria Iraultza. Gertakari hauen eraginaren hedapena Europan zehar erabakigarria izango da, baina ez homogeneoa, herri guztiak moldatzen joango dira, neurri handiago edo txikiagoan, hiru prozedura hauek eragindako aldaketek.

Ilustrazioa XVII. mendeko Ingalaterran jatorria izan zuen mugimendu intelektual bat izan zen, nahiz eta benetan garatu eta forma hartzen duenean XVIII. mendean Frantzian izan, XIX. mendeko lehenengo urteetara arte luzatuz. Ilustrazioak arrazoiaren erabilpena aldarrikatzen zuen egiaren ulermenerako, beste ezagutza mota batzuk baztertuz, hala nola, sinesmen superstiziosoak, tradizioa, eta abar.

Gainera, kritikaren erabilpena hedatzen zuen arrazoiari aurre egiten zion guztia salatzeke eta zientzia arrunt bilakatzeko sustatzen zuen, hau da, beraientzat ezinbesteko zen zientzia modu argi eta errazean aurkeztea, gizarte maila guztiek ulertu zezaten, ongizatea hobetzeko helburuarekin.

Doktrina honek ezarrita zituen oinarriak ziren botereen banaketa, subiranotasun nazionala eta berdintasun juridikoa. Ilustrazioak hezkuntza erabiltzen du hedabide bezala zorientasuna lortzeko eta arrazoiaren erabilpena zabaltzeko, Estatua izanik hezkuntza prozedura honen zuzendaria.

Doktrina hau legezko abantaila eta ezberdintasunei aurre egiten zien, nahiz eta ezberdintasun ekonomikoak eta aristokrazia baten existentzia onartu. Bere idealak Europan zehar hedatu ziren saloien, solasaldien eta akademien bidez, guztiz baztertuta geldituz unibertsitateak, iraganean ainguratuak.

Ilustrazioak planteatzen zituen teoriak eragin handia izan zuten Frantzian. Pentsamolde ilustratuak herritartasunaren kontentagaitzarekin batera, XVIII. mendeko aldaketa soziopolitikorik handiena eragin zuten, Antzinako Erregimenaren jauskera eta haustura, Iraultza Frantzesaren bidez.

Iraultzaren goiburua, “Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna”, azkar bilakatu zen zapaldutakoen kontsignan: burgesena, artisauena eta nekazariena, Estatuaren diru-kutxetan zergarik gehien ordaintzen zituen gizarte sailaren parte zirenak, horregatik, guztiz hierarkizaturiko gizartean aldaketak eskatzen hasi ziren. Alde batetik, artisauak eta nekazariak aldaketa sozialak eskatzen zituzten, eta beste alde batetik, burgesiak, lortzen ari zen botere ekonomikoaren ondorioz, ordezkagarritasun politiko handiagoa eskatzen zuen. Ordezkagarritasun hau behar zuten boterera heltzeko eta Estatuaren laguntza lortzeko, honen babesa eskuratzeko eta bere jarduera ekonomikoak bultzatzeko, Ingalaterran gertatzen ari zen bezala.

Ilustrazioak salatu eta kritikatu egin zituen kontraesan horiek, Frantzian monarkia absolutuaren jauskera lagunduz. Beraien idealak eredu bezala hartu ziren monarkia absolutisten mende biziz ziren Europako hainbat herritan, Espainiaren kasuan bezala.

Bestalde, Ingalaterra, bazeramatzan zenbait urte eremu politikoan guztiz nahasturiko burgesia batekin, non legegintza boterea, Parlamentuaren eskuetan, guztiek aurrera egitea ahalbidetzen zituzten legeak onartzen zituzten lurren jabeengatik eta merkatarik garrantzitsuengatik zegoen osatua. Hesitzeko Legeen (Enclosures Acts) bidez lurak pribatizatzeko interesaren kasua izan zen bezala.

Ingalaterrak geografia, instituzio eta ekonomia baldintzak biltzen zituen 1760. urte inguruan Industria-Iraultza eman zedin. Industria-Iraultza denboran prozesu nahiko luzea izan zen, non eraldaketa sakon eta garrantzitsuak eman ziren, historian lehenago ez bezala. Haziera demografiko, nekazari eta batez ere industrialaren egon zen, non aldaketa teknologikoak, lanaren antolaketa modu berriak eta, azken finean, aurretiaz ezagutu ez zen industria garapenaren aldaketa garrantzitsuak agertzen dira, haziera ekonomiko izugarria bultzatuz.

Industria-Iraultza Europan zehar hedatu zen baina ez zuen eragin berdina izan herri guztietan. Monarkia absolutuak oraindik zeuden oso errotuak kontinentean eta nahiz eta europar herrietako burgesiek Ingalaterrako pausuak jarraitzen saiatu, herri bakoitzak bere berezitasun politikoak zituen, hedapen honentzako konpontzea sailak ziren oztopo garrantzitsuak ipintzen zituztenak.

Lehenengo Belgika, Alemania eta Holanda izango ziren, gero Europa zentrala eta geroago europar kanpoaldea: Italia, Espainia eta Portugal.

Hiru gertakizun historiko hauek Espainiara heldu ziren, non Frantziako kasuan bezala, Monarkia absolutua ezarrita zegoen. Espainian pentsamendu liberalak baldintza berezi batzuk hartu zituen eta garrantzi bereziko gatazka zibilak sortu zituzten. Gatazka hauetan Antzinako Erregimenarengandik eratorritako ideologia tradizionala eta burgesia hasiberriaren liberalismoa aurrez aurre ipintzen ziren.

Ilustrazioa Espainian agertzen da XVIII. mendean eta bere idealak hasiera batean bakarrik zabaldu ziren sail minoritarioei eta neurridun moduan. Ilustratu talde hauek beraien ardura agertzen zuten atzerapen zientifiko eta beraien unibertsitateen eskolastikotasunagatik, hala ere, beraien idealak motelki hedatzen doaz Carlos III.-aren erregealdian gailurrera iritsiz.

Ilustrazioaren ideologiak Espainian nobleziaren pribilegioak, unibertsitateen irakaskuntza eta hezkuntzaren kontrola elizagatik kritikatu zituen. Bere idealak, hizketaldietan eta Akademietan igortzeaz gain, Arte eta Ofizio Eskola edo Herriko Lagunen Sozietate erakundeen bidez igorri ziren, hauen lehenengoa kasu izango den bezala, 1765eko Herriko lagunen Euskara Sozietatea. Hau ondoren Espainian sortuko ziren beste batzuen eredu izan zen. Zentro hauetan goi-mailako irakaskuntza zientifikoa, teknikoa, militarra, eta abar irakasten zen, baina unibertsitateengandik bananduta.

Ilustratuek monarkiaren laguntza behar zuten beraien helburuak lortzeko, izan ere bakarrik monarkiak zuen botere absolututik baino ezin ziren lortu. Koroak Ilustrazioaren ideia batzuk bakarrik sustatu zituen, beti ere beraien boterearekiko mugaketa bat suposatzen ez bazuten eta bere gobernuari modernotasun ukitu bat ematen baziotenen. Espainian bere goiena jo zuten Carlos III.-aren eta Carlos IV.-aren erregealdietan zehar, “Despotismo Ilustratua” izena harturik.

Ilustratuak, egia esan, beti izan ziren minoria boteretsu eta eragin handikoa, hala ere, gizarte masa handiena tradizionalistek osatzen zuten, mugimendu honen aurkariak. XVIII. mende amaieran, Ilustratuek liberalismorantz aldatuko dira, eta XIX. mendean dagoeneko mundua ikusteko eta politika egiteko bi modu antagoniko aurkitzen ditugu: liberala, burgesia hasiberri eta kontentagaitzak azalduta, hirietan finkatua, bere iraultza sozial eta ekonomikoaren alde borrokatzen dena; eta absolutista, tradizioa eta Erregea

defendatzen duena. Espainian mundua ikusteko bi modu hauek ere sortuko dituzte jazoera odoltsuak, hala nola Guda Karlistak.

2.1 XIX. mendeko Bilboko gertakari politiko eta ekonomikoak

XIX eta XX. mendeen bitartean Bilbo etengabe eraldatzen ari den hiria da. Denboraldi honetan zehar jasotako gertakari ekonomiko, politiko eta sozialak Bilbo hiri txiki tradizional eta nekazari bat izatetik, alde zaharrean murriztua, hamar mila biztanle inguru zituen, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran Espainiako hiririk jendetsuenetarikoa izatera igarotzera egin zuten, hiriburu aberats fiantzario eta industrial bilakatzeaz gain.

Nahiz eta Bilbo ez izan industria guztia garatzen den nukleoa, bai izango da aldameneko herrien nukleoetan garatu zen industria guztiaren zentro finantziario eta kudeatzailea.

Eraldaketa prozesu hau hiribilduan zuzenean eragina izango duten zenbait gertakari politiko, ekonomiko eta sozialez markatua dago, Bilbo gaur ezagutzen dugun hirian bilakatuko dutenak. Guda Karlistak (lehenengoa 1833tik 1840ra, bigarrena 1846tik 1849ra eta hirugarrena 1872tik 1876ra), bereziki Euskal Herrian eragina izan zutenak, mendeko gertakaririk odoltsuenetarikoak izango dira giza bizitzaren prezio altuarekin eta gainera desoreka ekonomiko handia eragin zuten.

2.2 Guda Karlistak

Guda hauei hasiera eman zion arrazoi nagusia “jauntxoek” eta merkatarien arteko norgehiagokak izan ziren, bi aurkako talde sozialak bizitza ikusteko bi modu desberdinekin, liberala eta tradizionala. Bi alderdiek beren interes propioen defentsagatik borrokatzen ziren. Antagonismo hau ez zen berria Euskal Herrian, XVIII-XIX. mendeetan matxinadekin jadanik ikusi zen botere talde hauen antagonismoa alderdi politiko, ekonomiko eta sozialak maneiatzeko orduan, gerora 1833an Lehenengo Guda Karlistari sarrera emango ziona.

Espainian Fernando VII. hiltzean egondako oinordeko arazoa izan zen txinparta, baina ez Guda Karlistak eragin zituen arrazoi nagusia. Alde batetik jarrera liberalak izan ziren, Iraultza Frantzesaren printzipioetan oinarriturik, eta beste alde batetik, erlijioa eta monarkia absolutua defendatzen zuten jarrera tradizionalak, gertakizun hauek benetan eragingo zituzten guda hauek, benetako gatazka zibila hasiz.

Bi bandoak beren interesak defendatu zituzten Isabel Erreginaren eta Karlos Jaunaren izenean. Isabelinoak burgesiaren alde eraldaketak lortu nahi zituzten,

hala nola aipaturiko klase sozialaren integrazioa sistema politiko eta ekonomikoan. Bestalde, Karlistak aristokrazia tradizionalaren defendatzaile irmoak ziren, “Jainkoa, Aberria eta Erregea” goiburuarekin.



7. irudia. Tropa karlistak bedeinkapena jasotzen, Augusto Ferrer Dalmauren idealizazioa

Lehenengo matxinadak desordenaturik gertatu ziren baina gatazkak bere hasieratik garrantzi berezia izan zuen euskal probintzien hiriburuetan, batez ere Bilbon. Bilbo lehen mailako helburu geostrategikoa zen.

Nahiz eta guda hiru denboraldi desberdinetan garatu, lehenengo eta hirugarren Guda Karlistak izango dira hiribildua gehien kaltetzen dutenak, izan ere horietan gertatzen dira hiru Setioak.

Lehenengo Guda Karlista 1833 eta 1840 urteen bitartean garatu zen giza bizien eta ekonomiaren kostu handiarekin. Landa-eremuetan, gehienetan tradizionalak, kleroak rol garrantzitsua jokatzen du, izan ere bere pulpituetatik ideia Karlisten igorle bezala jardun zen nekazarietan eragiten eta Zumalacárreguirengatik zuzendutako tropak osatuz. Probintzia hiriburuak ordea, liberalak izan ziren.

Karlisten helburua euskal hiriburuetakoko bat lortzea zen. Carlos Jaunak Zumalacárreguiri agintzen dio Bilbo hartzea, izan ere lehenengo mailako gune geostrategikoan kokaturiko eta baliabide handiko plaza garrantzitsua zen. Zumalacárregui ordea, Gazteiz hartzea nahiago izango zuen, sinpatia Karlista gehiagokoa, eta zeinen kontrolak Madrilgo estrategia apurtzea ahalbidetuko

zuen, Karlismoa hesitzea zena. Baina honek, Carlos Jaunaren agindua onartu behar izan zuen.

1835ean Bilboko lehen setioa gertatzen da, baina hiritartasuna heroikoki eustera prest zegoen. Esparterok Karlistak garaitu zituen Mendigorria batailan lehenengo porrot Karlista eta liberalismoaren garaipena markatuz.

1836an Urduñatik lehenengo Gómez espedizioa ateratzen da Espainia osoan zehar ideologia Karlista hedatzeko eta jarraitzaileak berreskuratzeko helburuarekin, baina ez du emaitza onik. Azaroan berriro hesitzen dute Bilbo, berriz ere arrakastarik gabe, izan ere bilbotarren erresistentzia garrantzitsua izan zen. Ere izan zen Espartero Bilbotik Karlistak kanporatu zituen, kasu honetan, britainiar itsas armadagatik lagunduta, eta Lutxanako batailan garaitu zituen. Aurrerantzean Bilbok “menderatu gabeko” goiburua erabiliko zuen eta Espartero heroi liberal handian bilakatuko zen.

Tropen nekeak eta Karlismoa beraren barruan zegoen banaketak, herritartasun zibilaren nahigabeari lotuta, gatazkari amaiera ipintzera lagundu zuten. 1839an Bergarako Hitzarmena sinatu zen, guda amaieraren oinarriak ezartzen dituen. Hitzarmena ez zen sinatua izan ez arabar ez nafar Karlistengatik. Ekintza honek Espartero behartu zuen sinatzaileekin Foruak mantentzera.

Bigarren Guda Karlista (1846tik 1849ra) batzuetan gatazka zibil bat bezala deskribatzen da, baina batez ere matxinada txikiak izan ziren eta ez zuen izan lehenengo guda bezalako garrantzia, nahiz eta guda honen garrantzia izan denboraldi honetan izango dela industrializazioa benetan garatzen hasiko den momentua, lehenengo nukleo industrialekin.

1873ko Errepublikaren aldarrikapenak berriz ere piztu zituen Karlisten eta Liberalen artean zeuden desadostasunak eta 1872 eta 1876 urteen bitartean Hirugarren Guda Karlista sortu zen. Hirugarren guda honek aurrekoen parametroak jarraitzen ditu, nahiz eta Karlistek landa-eremuak kontrolatu, hiriburuak eusten jarraitzen duten nukleoak dira eta hirugarren saiakera bat egin zuten Bilbo lortzeko. Hau lortzeko zeuzkaten baliabide guztiak erabili zituzten, baina 1874ko hirugarren Setioan aurrekoen berdina gertatzen da, Bilbok heroikoki eusten du eta Somorrostron liberalen garaipenak Hiribilduaren askapena azkartu zuen.

Guda Karlistetan zehar Euskal Herrian zeuden boteredun maila antagonikoen boterearekiko borroka, jauntxoak eta komertzialak, XVIII. mendetik

luzatzen zen gatazka itxiko zen, *Matxinadak*, hauen azkena aipagarria izanik, *Zamacolada*. Hau erregimen liberalaren garaipenarekin garbitu zen, boteredun beste maila bati bidea emanez, burgesia komertziala, mende osoan zehar garapen ekonomiko, politiko eta sozialaren jarraibideak adieraziko dituen.


2.3 Ekonomiaren hazkunde hasiera. Industrializazio Prozesuaren aurrekariak

1800. urtera arte Hiribilduaren komertzioentzako mesedegarri ziren bi mantenuak Gaztelatik etorritako artilea eta burdindegietan landutako burdina ziren, komertzializaziorako. Bilbok ezin zion europar industriari aurre egin garapen prozedura, beraz, komertzioa XIX. mende hasierara atzera-egite nabarmenean zegoen.

Aduanen kostaldera lekualdatzeko beharra bilbotar komertziantentzat beraien negozioen garapenerako ezinbestekoa bihurtu zen. Lekualdatze hau 1841ean eman zen, euskal merkatua penintsularen barrualdeko merkatuarekin konektatuz. Gertakari hau inflexio puntua izan zen geroko industrializaziorako.

1840 eta 1876 urteen bitarteko komertzioaren beherakadaz gain, bilbotar burgesiak inbertsio berriak egiteko funtsa zuen eta ez zuen nahi izan garapenaren trena galdu, ondorioz kapitalen inbertsioarentzako bide berriak bilatzen hasi ziren. Epalza, Uhagón, Arellano, Mac-Mahon, Aguirre, eta abar izango dira burges hauetako batzuk, eraldaketa honen oinarriak.

Burgesak momentu horretara arte modu protoindustrialean esplotatuak izan ziren beste proiektu batzuetan inbertitzen hasi ziren, industria hasiberri honen emankortasuna areagotuko zuten berrikuntza tekniko berriak barneratu zituzten; Boluetako Ana Santuaren kasu izan zen bezala, Begoñako elizpean kokaturiko burdinola zaharra, kapital komertzial honen inbertsioa jasotzean ikatzezko labe garaia zuen lehenengo fabrika bilakatuko zena.



4. irudia. Santa Ana de Bolueta grabatua. <https://bit.ly/2ZkdMRL>

Gainera Bilboko Bankuaren sorrerarekin egitura finantziario indartsua sortu zuten Tuter-Bilbo trenaren eraiketara lagundu zuena, merkantzien lekualdaketarako proiekturik garrantzitsuenetarikoa.

Baita ere eman ziren aldaketa ekonomiko eta instituzionalak, zeinek instalazio hauen aurrerapen geldoarekin batera iraultza industrial sortuko zuten.

Momentu horretatik aurrera komertzioa bigarren maila batera igaro zen, burdin mineralen ustiapena izanik ekonomia industrial berria izango denaren oinarria.

2.4 Industrializazio prozesua

1876 eta 1900 urteen artean Industria-Iraultza eman zen, Bizkaiko kasuan, ezaugarri oso zehatzak dituen, kapitalak eta eskulana. Ezaugarri hauek Bilbo eta honen inguruak eraldatu zituzten, “Bilboko Ibaia” deiturikoak (ibaiaren inguruan kokaturiko herri guztiak), momentuko guneko industrial garrantzitsuenetarikoa izatera igaroz.

2.5 Industrializazioaren kapitalak

Burgesia industrial hasiberri hau, beste merkatu batzuk bilatzen hasi zen. Burdin mineralen merkatuaren alde agertu ziren, eta ustiapen masiboa egoten hasi ziren esportaziorako, beren motore ekonomiko nagusia bilakatzen. Burdin

mineralen meategiak erauzketa erraza zuten eta ibaira estrategikoki hurbil kokatuak zeuden, kanpoko komertzioa errazten zuena.

Komunikazio azpiegituretan ere inbertsio garrantzitsuak egin ziren, batez ere ekonomiaren garapenaren hasiera lagunduko zuten trenbidetan, aldi berean mugarrietako bat izanik. Lehenetariko bat Bilbao-Tutera trena izan zen, hiribildua Madriletik Irunera zioan linearekin eta Gaztelako komertzioarekin elkartzen zuena. Gainera, Ebroko ibarraren nekazaritza-gunearekin lotzen zen, hiribildua nekazaritza-produktuekin hornitu ahal zuena. Zenbait barne sare sortu ziren salerosgaien garraiorako eta ibaiaren inguruan garatzen joan ziren nukleo industrial desberdinak lotu zituzten.

Industria berriak sortu ahala Bilboko eta inguruko paisaia aldatuz doa, lantegien ondoan bereizitako herriak sortzen dira; eta meatzaritzako hiri nukleoak sorten dira, hiri industrialak, eta abar. Bilbok bere hedadura zabaltzen du Begoña. Deustu eta Abandoko elizpeak anexionatzean eta ere hedatzen da ibaiko ezkerreko ertzean zehar.

Portuko azpiegituretan inbertsioak ezinbestekoak izan ziren itsasontzien nabigagarritasuna errazteko, hiribilduaren negozioen hedapenerako giltzarria izan bai zen. Horretarako, 1877an Portuko Lanen Batzordea sortu zen Evaristo Churrua ingeniariaren gainbegiradaren menpe, egokitzapen lanak burutzeaz arduratu zena. Itsasontziak gero eta handiagoak ziren salerosgai kopuru handiagoa garraiatzeko, ondorioz lanek salerosgaien karga eta deskargei mesede egin zieten, komertzioa areagotuz eta industrializazio prozesuan enklabe erabakigarria izatea lortuz.



5. irudia. 1874tik 1888rako Bilboko itsasadarraren eraldapena. <https://bit.ly/2y9TIFB>

“Udaldiko Industria” edo udaldiko turismoa deiturikoa ere sortu zen. Burgesak bainuetxeetan inbertitu zuten eta kostako guneetan turismoa sustatu

zuten helburu bikoitza lortuz, alde batetik, aisialdiko zentroak sortu eta beste alde batetik, goi mailako klaseak osasungaitzak ziren hiri nukleoetatik aldentzea.



6. irudia. El Saltoko hondartza, Portugalete. <https://bit.ly/2Gv9Q94>

Horrek guztiak kapital pilaketa handiak eman zituen oso esku gutxitan. Denboraldi honetan antolaketa enpresarial modu desberdinak sortu ziren kapitalen erakundean oinarrituta, hala nola sozietate anonimoak, sozietate mugatuak edo komanditarioak, eta abar. Sistema finantziarioa sendotu zen banku berrien sorrerarekin 1901ean, adibidez Bizkaiko Bankua eta Kreditu Bankua. Gainera, beren jarduketak probintzia gainditu zuen estatu mailan inbertsioak eta negozioak sustatuz. Bilboko Burtza urte gutxi batzuk lehenago jaio zen, 1891an, industriarako eta azpiegituretarako kapital berriak batzeko helburuarekin.

Industrialde berriak ibaiaren inguruan ipini ziren, gune garrantzitsua izanik inbertsio autoktono, espainiar eta atzerrikoentzako. Industrialde hauek modu masiboan erakarri zuten eskulana. Hauen zati txiki bat aditua zen, gehienetan atzerritarak, ingeniariak, teknikariak, eta abar. Prestakuntzarik gabeko eskulana edo jornalariak zati txiki batetan Bizkaiko landa-eremuetatik zetozen, baina laster eskulan hori eskasa izan zen eta ordezkatua izan zen Espainiako beste probintzietako landa-eremuetako eskulanagatik. Beste probintzietako eskulana Bizkaira heldu zen bizimodu hobea bilatzeko asmoarekin, izan ere Espainiako nekazaritzak ematen zituen ustiapenak oso mugatuak ziren. Guzti horrek eztanda demografikoa eragin zuen.

2.6 1898 eta 1931 urteen bitartean

Denboraldi honetan zehar euskal industriaren hedapena hasi zen. Nahiz eta ez aldatu hedapen ekonomikoarekiko oinarriak, beste sail batzuetan inbertitzen hasi ziren, gainera Bizkaiko kapitala Espainia osoan zehar hedatzen hasi zen.

Denboraldi honetan Lehen Mundu Gerrak garapen industrialaren areagotze handia eragin zuen. Gerra-gatazkak espainiar ekonomiaren sail batzuei mesede egin zien, izan ere Espainia neutrala zen eta bi bandoekin negoziatzeko zehaztasunak, baina gatazka amaieran europar egoera ekonomiko eta politikoa aldatu egin zen gainprodukzio krisia emanez gatazkaren ondorengo normalizazio egoera zela eta.



7. irudia. I. Mundu Gerrako fronte baten argazkia. <https://bbc.in/2T5b4Na>

Espainian bizi zen egoera politikoa ezegonkorra zen, II. Errepublika ahul bat jaio zen, honen ostean Espainiar Guda Zibila hasiko zen matxinaturiko bandoaren altxamenduarekin eta ondoren lehenengo denboraldi frankista helduko zen. Hau guztiaz gain Bizkaiko burgesiak talde hegemoniko bezala finkatu zen ekonomian hastapen ekonomikoa zuzenduz 1973. urtera arte.



8. irudia. Ebro zeharkatzen ari den Armada Errepublikarraren argazkia. <https://bit.ly/1Wb7wp7>

2.7 Bilboko demografian prozesu industrializatzailearen eragina

XIX. mendeko Bilboko eraldaketa demografikoak denboraldi honetan zehar hiribilduan eman ziren eraldaketa ekonomikoei estu lotuta daude. XIX. mende hasieran Bilbo aberastasunaren zatirik handiena sortzen zuen komertzioa zuen

hiri bat izatetik, bere inguruan garatu zen industriaren hiri “kudeatzaile” indartsua izatera igaro zen. Industrializazio berriaren lankideak, nahiz eta Bilbo inguruko nukleoetan finkatu, hala nola Begoñan eta Abando (hiribildura anexionatuta mende erdian). Batez ere ibaiko ezker bazterrean kokatu ziren, Barakaldon eta Sestaon.

Bilbori dagokionez, aipaturiko eraldaketak demografian ondorio drastikoak izan zituen. Hiribilduaren garapen demografikoa ez zen uniforme izan eta gizarte mailen arabera hierarkizatuta zegoen. Arturo Rafael Ortega Berruguete Doktoreak prozesua hiru gertakari belokorekin bat datozen hiru denboraldi kronologikoetan egituratzen du: 1793-1839 (Konbentzio Guda), 1839-1876 (Bigarren Guda Karlistaren amaiera) eta 1876-1914 (Lehen Mundu Gerra). Gertakari beliko hauek heriotza-tasa areagotu zuten, baina ez ziren heriotza-tasaren areagotze sendo eta jarraia arrazoi bakarra izan.

Lehenengo denboraldian zehar (1793-1839) demografiak hazkunde geldo batekin eboluzionatzen du 1833ra arte, non heriotza-tasen hazkunde garrantzitsua ikusten da Lehenengo Guda Karlistaren ondorioz. Denboraldi honetan hiribilduko ekonomia mota komertzialekoa da eta dagoen industria hasiberria da.

Bigarren denboraldian (1839-1876), industriaurreko denboraldiarekin batera, immigrazio prozesuak hasi ziren aurreko denboraldietan baino haztapen demografiko handiagoa lortuz. Hiritartasunaren hazkundearekin batera heriotza-tasen hazkundera ere hauteman zen.

Hirugarren denboraldian zehar (1876-1914) industria iraultza eman zen. Industrializazio prozesu honek izugarrizko eskulana eskatzen zuen. Hiri nukleoetara, hainbeste jende hartzeko prest ez zeudenak, lehenengo etorkin-saldoak iristen hasi ziren. Prest ez egoteagatik bizi baldintzak ikaragarriak izan ziren eta heriotza-tasak izugarri areagotu ziren. Adibide argi bat Abando, Begoña eta Bilboko herriena izan zen, biztanleria bikoiztu zutenak.

XIX mendeko Bilbo hiru eremu nagusitan egituratu dezakegu: Bilbo, Abando eta Begoña. Hiribilduko jarrera besteengandik bereiztuko da, izan ere, immigrazioak Bilbo inguratzen zuen ingurabidean finkatu ziren.

Hiriaren biztanleriaren haztapena, alderantziz proportzionala da biztanleen haztapen ekonomikoarekiko. Bilboko parrokiarik dirudunenak Santiago eta San Nikolas izan ziren, hauetan adskribaturikoak gutxiagotu ziren. Ordea San Anton

eta Santos Juanes parroketan erosahalmen txikiagoarekin adskribatutakoen kopurua areagotu zen.

Maila baxuko immigrazioa nagusiki Espainiako nekazaritza-eremuetatik etorri zen, ekonomiaren atzerakada denboraldia igarotzen zutenak. Etorkinak lan asko eskaintzen zituzten industria nukleoetara lekualdatu ziren beraien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Hiribilduko bazterreko gunetan eta ingurabidean finkatu ziren, non benetako arazoak eman ziren lekua gainezka zegoelako. Arazo hauek heriotza-tasa asko areagotu zuten. Nahiz eta Bilbo espazio arazoak izan aurretik, momentu horretan da egoera jasanezina bilakatzen denean. Maila aberatsak modu progresiboan joan ziren Alde Zaharretik Zabalguneko gunera lekualdatzen, maila txiroenak erdigunetik hiribilduko kanpoaldera higituz.

Mendeko bigarren erdialdean, heriotza tasen hazkunde handia gertatu zen, hau izanik demografiaren ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa, izan ere maila umilenak bizi ziren egoera adierazten digu. Gainera, bizi-itxaropena nabari jaitsi zen, batez ere aurren eta gazteen artean. Bilboko auzo umilenetan izan zen heriotza-tasaren hazkundera eta bizi-itxaropenaren jaitsiera gehien nabarmendu zen lekua, jaitako 10 humetik, 4k baino ez zuten 9 urteko adina gainditzen.

2.8 1876tik aurrera

Industrializazioaren haztapenagatik beharrezkoa zen eskulana ezin zen asetu biztanleria autoktonoagatik, 1876tik aurrera industriaren guztizko garapenarekin batera immigrazioa Espainiako eskualde guztietatik heltzen hasi zen.


2.9 Hazkunde demografikoa

González Portillaren arabera Bilboko ibaia osatzen zuten udalerrien eta Bilbo beraren eraldaketa demografiko eta paisajistik bi eragileri lotuta daude: industrializazioa eta garapen ekonomikoa.

Eraldaketa demografikoaren lehenengo eragilea 1840 eta 1876 urteen bitarteko denboraldian emango zen. Denboraldi honetan zehar trenbide sare hasiberriaren sorrerari ekin zitzaion, zeinek meategien ustiapenarekin, itsasontzi industriaren inbertsioen hasierarekin eta egitura industrialaren oinari finantziarioen sorrerarekin batera hazkunde demografikoan eragin zuen. Denboraldi honetan zehar esan dezakegu biztanleriaren hazkundera motela baina jarraitua izan dela.

Bigarren eragilea 1876tik 1900era arte litzateke, denboraldi honetan zehar Industria Iraultza garatu zen meategien eta siderurgiaren ustiapen handiarekin. Ere garatu zen ontzi-industria, trenbideak areagotu ziren eta sistema finantziarioa sendotu zen banku berrien eta Bilboko burtsaren sorrerarekin 1891an.

Hazkunde ekonomiko handi hau etorkin desberdinen saldoagatik hartuak izan ziren milaka lanpostuen eskutik etorri zen, demografia eta paisaia eraldatuz. Denboraldi honetan Bilbo hiriburu ekonomiko eta finantziario handian bilakatu zen.



9. irudia. Bilboko Udaleko boteretik egindako bidaiaren grafikoa. 1799-1999. <https://bit.ly/2GGaykf>

Demografiaren hazkunde hau ez zen homogenea izan, hau da, Bizkaia emigrante gehien hartu ziten probintzia izan zen, biztanleriaren hazkunde handia sortuz. Hazkunde demografiko hau ematen zen bitartean, ere eman zen heriotza-tasen hazkundera, baina batez ere haurren eta gazteen hilkortasunean emigrazioaren desordenaturiko finkapenaren ondorioz betiko paisaia aldatuko zuen urbanizazio prozesu kaotiko eta osasungaitz batean.

2.10 Saldo migratzaileak

Aurretiaz Industria Iraultza eman zen beste Europar herri batzuetan bezala hitz egin daiteke Euskal Herrian benetako Iraultza Demografikoaz eman zela.

1857 eta 1900 urteen bitartean Bizkaian demografiaren garapen-hasiera eman zen, bi eragilerekin erlazionatua: hazkunde ekonomiko eta saldo migratzaileak. Hazkunde ekonomiko batez ere nukleo batzuetan finkatu zen, Bilboko eta ibaiko ezkerreko ertzean bezala, non lan eskaintza asko egon ziren industria hazten zen ahala, aldi berean Bilboko eta ibaiko ezkerreko ertzean zeuden fabriken inguruan finkatzen joan ziren saldo migratzaileak ekarri zituen.


Demografiak hazkunde hau izan zuen aldi beran, hilkortasuna izugarri altxatu zen, hainbat arrazoiren ondorioz: eskulanaren bizi eta etxebizitza baldintza tzarrak, elikadura kaxkarra, metaketa, gaixotasunak, garbitasun eskasa, ingurumen-eragileak...

2.11 Hilkortasuna

Biztanleriaren hazkundera ez zen inolaz ere hiribilduan sortzen ziren arazoak konponduko zituen hiritar plangintza egoki batekin eman, batez ere estolderia eta edateko uraren kanalizazioari dagokionez. Gabezia hauek oso garrantzitsuak izan ziren, izan ere zegoen urbanizazio urria eta espazio erabilgarri txikien pilaketa eragin zuten, eta estolderia eta ur edangarriaren gabeziek izurri infektokutsakorrak eragin zituzten, heriotza tasa hauen areagotzea zuzenean erasan zituztenak.


Arazo hau udako hilabeteetan larritzen zen beroarekin, orduan zelako bereziki beldurgarriak ziren izurriak ematen zirenean, kolera bezala. Horregatik denboraldi honetan zehar dirudunenak osasungarriagoak ziren udaldi guneeetara lekualdatzen ziren, infekzio puntuetatik urrun zeudenak.

Heriotzak gizartearen ezaugarri garrantzitsuak azaleratzen ditu, hala nola gizarte antolaketa gradua eta komunitate baten gizarte politikak, osasun aurrerapenak, garbitasun eta elikadurarekin erlazionaturiko elementu kulturalak, eta abar.



10. irudia. Santos Juaneseko antzinako ospitalea, Atxurin. <https://bit.ly/2SBB8Qb>

Heriotzaren arrazoiak batez ere gaixotasun infektokutsakorrek ziren, airearen edo kutsaturiko uraren ahorakinaren bidez igortzen zirenak. Ohikoenak meningitisa, tuberkulosia, baztanga, elgorria, bronkitisa eta pneumonia ziren. Pilaketa handiko lekuetan erraztasunez igortzen diren gaixotasunak dira, langileen etxeak edo lantegiak ziren bezala. Gaixotasun hauetako batzuk izurriak eragin zituzten, hala nola 1885ean Bilbon eman zen kolera izurria. Honek ondorio larriak izan zituen pilaketa handiko eta osasun urritasuna zegoen lekuetan. Eraginik gabeko gaixoen aislamendurako ospitaleak eta barrakoiak prestatu ziren.



11. irudia. 1897 eta 1905 urteen artean Bilbon gaixotasun infekzioek eragindako heriotzen urteko batez bestekoa, adinaren arabera banatuta. <https://bit.ly/2SBB8Qb>

Bilboko kasuan etxebizitzaren eskaintza urria eta garestia zen. Dentsitate demografiko handiagoa izanik heriotza-tasak garai mantendu ziren denbora gehiagoz, nahiz eta hauek batez ere inguruko langile-auzoetan bildu, non biztanleria pilatuta bizi zen eta gaixotasun infektokutsakor gehienak ematen ziren.

Erakundeak egoera hau leuntzen saiatu ziren ur edangarriaren bideratzea, estolderia eta hiriaren urbanizazioa hobetuz, gainera neurri politiko-sozialak ezarri zituzten helburu berdinarekin gaixotasunen hedapena ekiditeko.

Industrializazioaren lehenengo denboraldian hilkortasuna traumatikoa izan bazen ere, mendea amaitu ahala heriotza tasak ezarri ziren. Erakundeek, beraien artean Osasun Batzordeak, eta udal aginpideek erabakiak hartu behar izan zituzten egoera leuntzeko adibidez kaleen garbiketaren zaintza sakona, gaixotutako pertsonen bakartzea, fabriken kontrola eta gainezka zegoe Mallonako hilerriaren zabalkuntza baloratu zuten. Era berean, beste hilerri batzuk

ixtea baloratu zuten hiritartasunaren hazkundearen ondorioz infekzio gunetzat hartzen bai ziren.

2.12 Erakundeen lanak

Bilboko Udalak benefizentzia bultzatu zuen industrializazioaren ondorio txarrak leuntzeko auzorik txiroenetan, laguntza hauek barne hartzen zituzten medikuntza laguntzak, eskolatzea, txertaketa eta elikadura biztanle txiroenen bazterketa ekiditeko.

Ospitaleen ohe eta eraginkortasun eza zela eta, Udalak eta Aldundiak Basurtuko Ospitalea eraiki zuten eraikuntza irizpide moderno eta zientifiko bidez. Hamar urte iraun zuen lana, 1898tik 1908ra. Gainera zenbait burges aberats eraikuntza lanak ordaintzeko diru kopuru handiak eman zituzten.



12. irudia. Basurtuko ospitalea. <https://bit.ly/2GGaykf>

XX. mende hasieran urak bideratzera ekin zitzaion. Beste hiri batzuk ordea XVIII. mendean zehar dagoeneko egin zuten, adibidez Madril.

Nahiz eta gaixotasunen benetako zergatiak ez ezagutu, jakina zen erlazio bat zegoela bere hedapenaren eta garbitasun ezaren artean. XIX. eta XX. mendeen artean, mendebaldeko Europan zehar garbitasunaren kultura hedatu egin zen eta hirietan eraldaketa prozesu bat hasi zen. Goi-mailako klaseek hauen urbanizazioan eragin zuten, estolderia eraiki zuten eta beraien auzoetako (zabalguneak) urak bideratu zituzten, pilaketa arazorik gutxien zituen maila izanik.

XX. mendetik aurrera izan zen garbitasun neurriak hasi zirenean hiribilduan zeuden arazo guztiei konponbideak emateko.

2.13 Hazkunde demografikoa, hirugarren egoera

Hirugarren alderdi bat 1900etik 1930ra doan denboraldiari dagokio. Epe honetan heriotza-tasak behera egiten hasi ziren bizi baldintzen hobekuntzaren ondorioz. Honen lagungarri izan ziren bizi esperantzaren hobekuntza, soldata-sistemaren hobekuntza eta gizarte-babesaren sistemen hobekuntza.

Testuinguru historiko honen barruan kokatzen dugu Hiribilduko hilerri desberdinen ikerketa.

3 Europako aurrekariak

Gizarteak heriotzak sortu zituen beharrei aurre egiteko hilerriak eraikitzen hasi zen. Hauek oinarritzako bi funtzio betetzeko eraiki ziren: alde batetik higienikoa, gorputzen deskonposizioa ezkutatze; eta bestetik, oroitzapenezko funtzioa, hildakoen memoria bizidunentzat gordetzeko. Horrela, lurperatzeko lekuak hildakoen oroitzapenen zaindari bihurtu ziren.

Hildakoez arduratzearen beharra bere forma, erritu eta ikurretan eraldatzen joan da denbora aurrera egin ahala, gizarteak historiaren aro konkretu bakoitzean eskatzen zituen beharren arabera: hildakoak gertu izateko beharretik, eta, ondorioz, hirigune barneko hilerrietan eta elizetan lurperatzeko joeratik; gaur egun hiritik kanpo aurkitzen ditugun hilerriak arte, espazioaren antolaketan eta errentagarritasunean oinarrituak.

Orokorrean, hildakoei egiten zaien gurtzen eraldaketak historiaurretik ikus daiteke; izatez, lehen lurperatze leku hauek banakako hilobiak zituzten hilerri antzekoak ziren. Gero katakonbetatik pasatuko ginateke, kristauak egindako lurrazpiko galeriak zirenak eta handitasuna izan zutenak erlijio kristaua zabaltzeko eta ofiziala egin baino lehen 313. urteko Milaneko Ediktuarekin. Eta bukatzeko, gaur egungo hilerrien oinarritzat har ditzakegun XVIII. mendeko hilerriak, ilustrazioaren aroan.

Hilerri modernoek ilustrazioaren pentsamenduan oinarritzen dira eta hortik aurrera heriotzarekiko jarrerara aldatu zen, gizartean eta lurperatze lekuetan islaturik. XVIII. mendean hileta-lekuen arrazionalizazio prozesua hasi zen eta hortik aurrera handitzen joan da, bere izatea galduz edota bere natura moztuz.

XX. mendeko bukaeran, mendebaldeko herrialdeek heriotza ezkutatzeko eta aldentzeko mekanismoak sortu zituzten, askotan maite genuen pertsonaren galerak sortzen digun mina arintzeko baliabiderik gabe utziz. Ohituren eta errituen sinplifikazioak, heriotza arinkieriaz hartzea eta heriotza-zeremonien erabilpen ezak hilerriak leku axolagabeak egiten dituzte askotan gizartearen ikuspegiarentzat. Dena dela, iraganean izan zuen sinbolismoa galdu arren, gaur egun oriatik heriotzak askotan aintzat hartzen den gure kulturaren atal garrantzitsu bat irudikatzen du.

Etengabeko ikuspuntu aldaketa hauek eragin handia izan zuten hilerri modernoan sorreran eta eraldaketan.

3.1 Hilerrien bilakaera.

Heriotzaren existentzia onartzea honen aurrean jarrera jakin bat hartzea bultzatu zien gizakiei; hori del eta, hildakoez arduratzea denboran zehar aztarna utzi duen gizakien zeregina izan da. Horrela, hilobiak, hilerriak eta nekropoliak ohiko aztarna arkeologikoak dira eta heriotzarekiko gaur egun existitzen ez diren gizartearen erantzunak azaltzen dituzte gizarte horretan kultura eta heriotzaren arteko lotura gogoraraziz.

Pertsonak beraiekin hildakoekin bizitzera ohitu ziren eta erritualak egiten eta ikurrak sortzen hasi ziren maite zuten pertsonaren galeraren mina arintzeko. Heriotzaren ostean hildakoek joateko leku bat sortu zuten eta lurperatze ezberdinak beste mundurako pasabidetzat hartu ziren. Orain heriotza ez zen organismo biologiko baten itzaltzea soilik, baizik eta kulturarekin bat egiten zuen bizitzari esangura sakonago eta garrantzitsuagoa emanez.

Pertsona baten heriotzaren osteko lehenengo pausu bere gorpua ezabatzeke teknika ezartzea da eta hau ezberdina izan da kultura eta aroaren arabera. Gizartearen ezagunenak lurperatzeak eta errausketak izan dira.

Errausketa herri ibilkarien historiarekin lotuta dago, hildakoen gorpuak ahalik eta azkarren ezabatu behar baitzuten oinarritzko hiru arrazoiengatik: gorpuzkiak beraiekin eramateko, oroipena gordetzeko edota profanatzailleetatik babesteko. Hala ere, orain dela hamarkaldi batzuk arte, erlijio katolikoak sortu zituen sinesmen erlijiosoak zirela medio, lurperatzeak lurrazpian egiten ziren eta denboran zehar irauteen zuten kristautasunak heriotzari emandako garrantziagatik, hau da, bizitza heriotzaren ostean jarraitzen zela sinesten zuten. Horregatik, hilobia piztuereari itzaroteko lekua bihurtu zen, gure lurperatzeko lekuen berariazko paisaia sortuz.

Mendebaldean kristautasunak beste kulturen erritu eta sinesmenak moldatzen joan zen gaur egun ezagutzen dugun hilerrien oinarriak ezarri. Kristautasunaren sinesmenek gorputza lurperatzera eramaten zuten errausketaren orde, Jesu Kristo bezala, egunen baten bizitzara bueltatuko zirela uste baitzuten.

Kristautasunak hartutako hil monumentuetako bat eta hilerri modernoaren sorreran eragin handiena izan zutenetako bat, mausoleoa izan zen, bere garapena eta goraldia aro helenistikoan izan zuena. Lurperatze mota honek ezaugarri bereizgarria du: hilobia. Parte bat bakarrik du ikusgarri eta, beraz, ehorteza ez zen lurrazpian egiten. Bere egitura podio izeneko tamaina handiko oinarri karratua izateagatik bereizten da. Bertan, hileta-ganbera finkatzen zen, bi zatitan banatutako estalkia zuen eta hainbat eskultura zituen izaera emateko eta edertasuna goratzeko.

Denbora aurrera egin ahala, kristau-hilerrien sorrera hasi zen irazki zail baten ondorioz. Kristau komunitate klandestinoen hazkundeak eta beraien erlijioaren debekuak fededunei lurperatze eremu propioak izatera behartu zituzten: katakumbak. Lurzoruan aitzurtutako ganbarak ziren eta bertan lehenengo kristauen gorpuek ehorteak antolatzen zituzten.

313. urtean Milaneko Ediktuan kristautasuna legeztatu ondoren komunitatearen lurperatzeak harresitik kanpo zeuden kristautasunera bihurtutako patrizioen hilobietan biltzera joera hartu zuten. Kasu batzuetan, hilobi hauek martiren gorpuek hartzen zituzten barruan eta horrek kristauek bere inguruan lurperatzea nahi izatea ekarri zuen, martir horien erlikien babesa izateko. Lurperatze mota hauen ugaritzeak martirren gorpuei beste kokapen bat aurkitzearen beharra ekarri zuen.

Erlikiak eramaten zituzten lekuen gainean denborarekin elizak edota basilikak bilakatuko ziren santutegiak eraiki zituzten, eta kristauek ere hauen inguruan lurperatzea eskatzen zuten bertan zeuden erlikien babesa izateko. Gainera, fededunen biltzarretarako eta liturgiaren ospakizunerako leku sakratuak ziren eta, horrela, elizak eta monumentuak berezko identitatea hartzen joan ziren. Aldi berean borobil edo laukizuzen formako oinplanoak zituzten lehen hileta-kaperak agertu ziren, baita hainbat nabe zuten basilikak santuak erakartzen zituen erromesei babesa emateko.

Konstantinoren bakea kristau-arkitekturan eta kristauen sinbologian ohizkoak ziren dogmetan guztizko eragina izango du. Lege horren ondoren

gurtzarako erabiltzen ziren leku kristauak aurkitu daitezke, eta hauek ohoratutako pertsona ospetsuak lurperatuak zeuden lekuetan kokatzen ziren. Honen helburu nagusia oroitzapena mantentzea zen eta horrela heriotzarekiko sinesmen kristauak eraldatzea: martirren erlikiak katakunbetan izatetik lurperatua izatean babesa izatera arte.

XVIII. mendeko hilerrien iraultza baino lehen ezarrita zeuden ohitura kristauak eraldatzen joan ziren lurperatze gehienak elizen barruan egin arte. Ehortze mota honek sinbologia garrantzitsua izan zuen eliza fededun eta arbaso kristauak elkartzen ziren lekua zelako.

Hala ere, tenpluen barruan ehortzeko joerak ez ziren bateratuak izan lehenengo mendeetan zehar bi joera ezberdin aldi berean bait zeuden: alde batetik herriaren barruan debekatzen zuen lege erromatarra mantentzen zen; eta, bestetik, toko erlijiosoetan lurperatzeko joera berria. Debeku iraunkorrak ziruditen arren, 422ko Vaison-go eta 563ko Braga-ko elizbatzarrenarenak bezala, fededunek tenpluen barruan lurperatzea ohiko ohitura bihurtu zuten XVIII eta XIX. mendera arte.

Eraikin barruan lurperatzeko grinaren handitzeak hainbat faktoreen ondorioz gertatu zen. Alde batetik, hildakoek martiren babesa behar zuten beraien arima zaintzeko beste alderako bidaian, heriotzan infernutik babesten baitzituzten eta bekatutik bizitzan; eta bestetik, leku sakratuetan lurperatzean, hilobia arplatzaileen espoliotik babestuta egongo litzateke.

Aro horretan zehar hiriguneek beren konfigurazioa errotik aldatu zuten, hildakoek hirien barruan lekua hartzen baitzuten. Lurperatze eta erromesaldi leku hauek sortutako jarduerak auzo kristauen kontzentrazio periferikoa erraztu zuen eta, horrela, komunitateetan eratu ziren. Hilerri-basilikak harresien barruan zeuden elizetatik eta katedraletik bereizten zituzten ezberdintasunak desagertu ziren. Gainera, kleriko eta apezpikuak ere katedralen barruan lurperatzen hasi ziren, elizak erakunde gisa duen jarrerari jaramonik egin gabe. Aro honetan lurperatze eremuen hierarkizazioa hasi zen eta heriotzarekiko berdintasun kristaua desagertu zen.

Bizidunen eta hildakoen arteko erkidetasuna V. mendean hasi zen eta XVIII. mendera arte luzatu zen. Fededunek pentsaera hau bultzatu zuten arren, oraindik elizaren hierarkiak oraindik ez zuen guztiz onartzen. Baina tenplu-barruko lurperatzeak etekin ekonomikoak ekartzen hasi zenean, behe-kleroa bultzatu zuten ohitura hauek onartzera fededunen aldarriak zirela eta.

Hala ere, tenpluen barnean lurperatzeko lehen debekuak ezarri ziren, eta mundu guztiak bete behar zituen nahitaez. Baina derrigortasun hau pixkanaka desagertzen joan zen, eta 1276ko Leongo Sinodoan, errege, abade, ordena- maisua eta komendadoreentzako lehen salbuespenak ofizialki ireki ziren.

Kontrarreforma ondorengo kontziliazioek gauza berdina azpimarratzen zuten, baina obispoak gizarte hierarkia altuei eta behe-kleroari emandako baimenak elizen eta katedralen zoruak lauzaz galtzadatu zituzten.

XVII. mendean elizen barruan lurperatzeko eskubidearekiko bi kategoria ezarri ziren: lehenengoa eklesiastikoa zen, eta bigarrena Jainkoari zerbitzuak eman dizkion edozein pertsona, bere merituekin eredu izanez. Gainerako pertsonak eskubide horretatik kanpo geratzen ziren, baina ordainkizun bat eman zezaketen elizen barruan onartuak izan ahal izateko. Hau da, tenpluen barruko lurperatzeak saldu ezin baziren ere, hura debekatzen zuten araua indargabetzea erosi ahal zen, eta elizan espazio bat okupatzeagatik eskubide bat ordaintzea ezarri zen. Kontziliazioek elizako lurzoru sakratua profanatzeko saihesteko egindako arauak ez zuten inolako ondoriorik izan, bizidunen praktikak heriotzaren eta lurzoru sakratuaren profanazioaren arteko bereizgarritasuna ezabatu baitzuten.

Elizen barruko lurperatzeak ere heriotzaren espazio sakratuaren berdintasun kristaua hautsi zuten, gizartean eta elizan ezarritako hierarkia heriotzan ere agertzen baitzen. Honela tenplu sakratuen hil espazioa ondoren azaltzen den bezala hierarkizatu zen: piramidearen tontorrean martirra kokatzen zen, fededunek bere hilobia aldare bezala erabili zuten toki pribilegiatua bihurtuz; gotzain eta apaizek jarraituko zioten eskalafoian, eta azkenik erregeak eta noblezia. Merkataria eta eskulangileak garrantzia lortzen hasi zirenean, eliza barruan ere lurperatu nahi izan zituzten, eta lehen aipatutako indargabetzea lortu zuten. Lurperatuaren gizarte-maila behera egin ahala eta piramidearen oinarri gerturatu, martirrarekiko distantzia handitzen zen. Hilobi eskubideak ordaintzen ez baziren, heriotza anonimoa zen (gaur egun bezala); horregatik, herri laua elizatik kanpo zegoen, hobi anonimoetan lurperatuta.

Santuen erlikiekin eraikitako tenpluak behin eta berriz erabiltzea hilerrien barrutien asebetetzea ekarri zuen, hildakoen berrantolaketa beharra nabaria egiten. Eraikinen barruan gorpu kopurua gehiegizko egiten zen heinean, haien ondoan zeuden teilatuetara eramaten zituzten gorpuzkiak. Horrek kanpoko

zabalkundea oztopatzen zuen, hilerriak berez gainezka zeuden hiriguneenak baitziren.

Arazo honetatik eraikuntza mota bat sortu zen, tenpluen barnealdean izandako gehiegizko hilotzen eragindako arazoen konponbide partziala izan zena: galeria garaiak.

Eraikin hauek 1500. urtetik aurrera ohikoak izan ziren XVII. mendera arte, goseteek eta epidemiek hiriguneak suntsitzen zituztenean. Hilerrien barrutiak ixteko estalkiak zituzten, eta hormaren bat elizarekin topo egiten zuen. Haien azpian lurperaketak egiten ziren eta hileta kaperak eraikitzen zituzten; goian, hezurtegiak kokatzen ziren lurpetik ateratako gorpuzkiak itxuraren arabera ordenatzeko edo kutxetan gordeta usteko. Patio bat ere bazuten hobi komun bezala erabiltzeko. Egitura lauangeluarra eta irekia zuen, pasalekua, topaketa, jarduera eta aisialdia errazteko. Eguzkitik eta euritik babestuta, galerietan hainbat jarduera egiten ziren, hau da, hildakoentzat leku bat bilatzeko beharretik jaiotako hil gune bat, bizidunentzat topaleku bat ere izan zitekeen.

Mota honetako eraikinak hartzen zituen hilerri nagusia Pariseko Santu Inozenteen hilerria izan zen (XI. mendea), hilerri iraultzaren epizentroa izan zena. Bertan katekesia irakasten zen eta jaunartzea ematen zen, baina, aldi berean, paseatzeko erabiltzen zen, negozioak egiten ziren, mota guztiko zerbitzuak ezartzen ziren: merkatarien dendak, eskribauen postuak eta justizia, meza nagusitik irtetea epaiak ematen, eta antzezlariek eta musikariek beraien ikuskizunak eskaintzen zituzten. Era honetan, bizitza bat egiten zuen heriotzarekin.

Izurri beltza bezalako izurriteak Europatik hedatzen hasi zirenean abandonatutako eta hiriguneetatik urrun zeuden ehortze lekuak berreskuratzea eragin zuten. Toki hauek antzinako lurperatze lekuak izan ziren erdi-mailako pertsonentzat eta txiroentzat eginak, oso gutxitan hildakoak gogoratzeko bereizgarriak zituzten hilobi anonimoak ziren. Hilerri paisaia honetan parrokia elizaren eta hilerrien arteko harremana ezarriko da.

Bai tenpluen barruan egiten ziren lurperatzeak bai galerietan egiten zirenak ez zuten inolako arau higienikorik betetzen. Gorpuak lur-geruza finekin edo harri meheekin estaltzen ziren eta hoiek gorpuen kiratsak kanporatzea eta gorpuen koipeen pilaketa errazten zuten. Arazo hau, hezetasunarekin eta haizetze faltarekin lotzen zen, eta guztia batera usain txarrak ekarri zituen, toki hauek osasungaitz eta infekziosoak bihurtuz.

XV. menderako Gotzainen Kontzilioak berriz debekatu zituzten elizen barruko ehorzketak, lekuak eraginkortasun gabe babesten saiatuz. XVIII. mendera arte Braga-ko Kontzilioak ezarri zuena mantendu zen, elizen barruan lurperatzeko debekua azpimarratuz. Baina debekuak errepikatu ahala, lurperatutakoen kategoriak eta eskubideak sendotzen doaz.

Hileta espazioa ez zen soilik eraldatu, baizik eta erlijio berriaren ikuspuntuaren irudikapena ere, eta XVIII. mendea izan zen hilerri modernoaren sorrerarako oinarriak ezartzeko aroa.

XVIII. mendearen bukaeran hilerrien egoeraren aurkako kexak hasi ziren Frantzian, eta gehien bat Santu Inozenteen Hilerrian jartzen zuten arreta. Mugimendu “ilustratu” hauek aldaketa erraztu zuten eta elizaren aurkako akusazio zuzenak egin zituzten. Hildakoen arimez kezkatzeagatik eta leku horietan ibiltzen ziren bizidunen arimaz ezer ez egiteagatik errudunak zirela esaten zieten. Jarrera berri horrek eragin politiko eta sozial handia izan zuen, eta haren ondorioz nabarmenena harresiz kanpoko hilerria sortzea eta berreskuratzea izan zen, “hilerri iraultza” deituko litzatekeena sortuz.

1753. urtean Pariseko Parlamentuak hiri osoko hilerrien egoerari buruzko txosten bat egitea eskatu zuen. Ikerketa higie-ne publikoko politika batengatik emanda izan zen, biztanleen osasunerako arazo izan zitezkeen hilerrien egoera kaltegarria ebaluatzeko. Eraberritze eta hobekuntza plan hori ezarri eta gero, hilerri guztiak hiritik kanpora eramateko proiektua jaio zen.

Lurperatze tokien asebetetzeak eztabaida handia sortu zuen hileta-guneak hiriaren kanpoaldera eramateari buruz. Kontrolik gabeko hiri-hazkundearen ondorioz, hiri zikinak eta kiratsatsuak sortu ziren, eta gero eta heriotza kopuru handiagoa eta hirietako nahiz hilerrietako higie-ne kontrolik eza arrisku larrian jartzen zuen osasun publikoa. Agintariek beste konponbiderik ez zegoenez hasi ziren lan egiten, eta azkenean behin-betiko erbesteratu zituzten hilerriak hiritik kanpo. Parisek egindako bide hau Europako gainontzeko hirientzat eredu izan zen.

Ilustrazioak, zientziaren aurre egiteak eta eskura zegoen informazio kopuruak gizartearen ikuspuntu tradizionalen aldaketa bat eragin zuen. Medikuek, kimikuek eta higienistek hirien garbitasunari buruzko ikerketak egiten hasi ziren eta ospitaleen, hilerrien eta estolda sistemen eta etxeko komunien egoeraz jakinarazi zuten. Leku hauek infekziosoak izan zitezkeen lekutzat hartu ziren.

Foku infekzioso hauek hobi komunen eta eliza-lurzoruen hilobien etengabeko irekiera eta itxieragatik hedatzen ziren. Egoera hau etengabeko jarioak eta filtrazioak eragin zituen errekatxoetan eta, azkenean, heriotza-tasa handitzen zituzten izurrite infekto-kutsakorrak sortu ziren.

Eztabaida sektore ilustratuen etengabeko kritikan oinarritu zen, elizetan eta antzinako hilerrietan lurperatzeari buruzko liburuxka eta liburu arazotsuen argitalpenaren bidez. Batzuk gertatutako hondamendi desatseginak kontatzen zituzten eta beste batzuk antzinako Erroman eta Grezian hirietan lurperatzea debekatzen zuten ohituretara bueltatzea eskatzen zuten.

Elizaren iritziak banatuta egon arren protesta-jarrera bat mantendu zuten hilerriak hirietatik kanporatzearen prozesuaren aurrean. Kexa hau etorkizuneko hilerrien ordainketarekin erlazionatutako kontu ekonomiko batean oinarrituta zegoen. Teorikoki, leku hauen finantzazioa fabriken eskuetan egon behar zen (elizak zituen errentak parrokia-elizaren mantentze-lanetarako, bai konponketarako, bai Parrokietako jainkozko zerbitzuaren ospakizunetarako).

1765ean elizen barruan lurperatzea debekatu zen eta oso arau zorrotzekin zigortuak izan ziren. XVIII. mendean Santu Inozenteen Hilerria behera bota zuten eta bere lekuan enparantza publiko bat sortu zen, hilerri modernoaren eraikuntzari hasiera emanez.

Sentiberatasun berria heriotzarekiko gizartearen jarreraren eragina izan zuen. Garbitasunaren argumentuak hildakoek bizidunen gain izan ahal zuten arriskuan zentratu ziren. Ideia hau pixkanaka jarrera erlijioso bihurtu zen eta horrela, mendeetan zehar hildakoen bizilekua ziren lekuak beraientzat desagokia izaten hasi zen. Ondorioz, elizaren izaera sakratu eta garbia lausotzen joan zen.

Higienista ilustratuak heriotza eta osasun kontuen arteko eztabaidak alde batera uztearen alde zeuden, bere helburu nagusia hildakoak lurperatzeko leku egoki bat aurkitzea zen. Arrazoiak eta aurrerapen zientifikoak kontrol-gradu batzuk ezarri behar zirela esaten zuten, eta heriotzari eskainitako lekuak hiritik kanpo egon behar ziren. Horregatik heriotza kontzeptua biltzen zuen guztiari eragiten zion legedi egoki bat idazten hasi ziren, hilerrien eraikuntzatik gorpuak ehortzeko modura arte.

Korrante berriak heriotzaren desakralizazioa ekarri zuten eta sentiberatasun eta jarrera aldaketa bat egon zen heriotzarekiko. Erdi Arotik heriotzaren momentu bizitzaren erdigunea eta bizitza osoaren amaiera

irudikatzen zuen, momentu horretan arimaren etorkizuna erabakitzen zen. Baina historiaren aldi honetan dena aldatu zen: goibelak bizitzari bidea eman zion, arimaren etorkizuna bizitza osoan zehar luzatzen zen prozesu batean erabakitzen zen eta honek dogma kristauetan eragin zuzena izan zuen. Paradigma aldaketa hau hilerri berrien antolaketan, arrazionaltasunean, artean eta edertasunean islatu zen.

Pentsaera berri honen garaipena zientzian, gizartean eta medikuntzan egindako aurrerapenekin batera Europa osoan zabaldu zen eta heriotza-tasaren jaitsiera argi bat eta jaiotza-tasen igoera bat egon zen. Bai bizimoduan eta elikaduran egindako aldaketak eta komunikabideen erraztasuna heriotzarekiko konkista txikietan eragina izan zuten. Horrela, bizi-itxaropena handitu zen eta gizarte- eta hilerri-politika berriak garatu ziren.

Laikotasuna handitzeaz aparte, ideologia eta pentsaera berriak beste aldaketa handi bat ekarri zuen: eliza eta hilerriaren arteko harremana apurtzen hasi zen.

Apurketa hau XIX. mendean zehar ikusten hasi zen. Erlijioak gizartearen barruan oraindik ere zuen indarrak formula eklesiastikoen berreskurapena bultzatzen jarraitzen zuen, hilerriak kapera txikiekin betez. Baina XVIII. mendeko hilerrien iraultzaren ostean etorri zen laikotasuna gero eta handiagoa zen eta elizak lurperatze lekuen monopolioaren jabe izateari utzi zuen. Hori dela eta, hilerri zibilen eraikuntza hedatzen joan zen eta gauza erlijiosoak desagertzen joan ziren.

Hilerri modernoak espazioaren antolaketan eta errentagarritasunean oinarritzen dira, hildakoentzat erabilitako espazioaren eta bete behar dituen beharren arteko arrazionaltasuna bilatzen dute. XVIII. mendeko hilerri erreformaren ostean sortu ziren eta argi ikus daitezke arkitektoak proiektatzearen zergatiak. Gainera, horietako batzuk oso adierazgarriak dira, heriotzaren bi nahaste kulturalak ikusi ahal direlako: alde batetik, iraultza aurrekoa, ikuspegi goibelarekin erlazionatuta, non bizitzaren azken momentuan arimaren etorkizuna erabakitzen zen; eta bestetik, erreforma ostekoa, non arimaren etorkizuna bizitza osoan zehar garatzen den prozesu baten bidez erabakitzen da. Vista Alegreko hilerria azken hilerri motakoa da.

Prozesu honekin batera hilerrien izaera ere aldatzen joan da, baina gizakiak ehorzketak egiten hasi zenetik lurperatzeko lekuen izaeraz arduratu dira, bai kanpotik bai barrutik. Horrela, paisaia adierazgarriak osatu dira mantendu diren

hainbat konstanteekin, garrantzi-maila handiago edo txikiagorekin aroaren arabera, eranskin puntualak aparte.

Eraldaketa honetan hilobien izaera aroa ezberdinen ezaugarri kulturalak islatzen dituzte. Horrela, hilerrien hondarrak ezagutarazten digute nola aprobetxatzen zituzten momentuko jakituriak eta formulak, lekuko errituen ohiturak eta hirigunearen inguruan zeuden materialak hilerriak eraikitzeko.

Baina hilerrietan gertatukoa aldaketen barnean, pentsamolde burgesak gizabanakotasuna eta norbera izateko beharra agerian utzi zuen, hilobi anonimoekin bukatzeko nahian islatuz. Joera berri honek familia hilobien goraldia hasi zuen oroitzapen izaerarekin, eta kapera handien eraikuntzek familien botere ekonomikoa adierazten zuten.

Hilerrien eremu pribatuen barruan hildakoa lurperatzeko lekuak aurkitzen ditugu. Hilerria hilobiak mantentzen dituzten bi atalez osatuta dago: atal higienikoa, ikusezina dena, eta ikusgarria, hildakoaren oroimena gordetzen duen lekua, omenaldia ere egiteko erabiltzen dena. Monumentuak hildakoen memoria ondorengo belaunaldiei transmititzeko eta mantentzeko erabiltzen da.

Hilerri zaharren indar sinbolikoa, balio funtzionalak eta atal artistikoak aire zabaleko museoak bihurtzeko aukera ematen die.

Gizarte joera berriek ere aldaketa asko ekarri dituzte hilerrien paisaian, esate baterako, plastikozko loreak, material berrien margoak, materialen tratamendu faltsua, granitoaren erabilpena, moldearekin egindako eskulturak, jabeek utzi dituzten eraikinak, etab. Modu honetan, hileta-espazioak debaluatzen joan dira eta bizi garen hiriaren irudi bat erakusten dute.

3.2 Aldaketa handien eredua: *Santos Inocentes* eta *Père Lachaise* (París).

Santos Inocentes-aren hilerria eta geroko *Père Lachaise* modelo adierazgarrienak dira heriotzarekiko jarrera ezberdina izan zuten bi garai irudikatzen. Lehenengoaren itxiera agindu zenetik (1780) bigarrenaren irekierara arte (1804) muga baten pasabidea gauzatu zen. Momentu honetatik aurrera hileta-arkitektura sakondu zen eta jakintza- arlo bat bilakatu zen. Horren barruan arlo ezberdinek bat egiten zuten, esate baterako, higiena, soziologia, ekonomia eta politika; eta horien helburu nagusia gizalegez hezitzea zen askea eta ordenatutzat hartzen zen gizarte batena.



13. irudia: Pariseko Santos Inocentes hilerria irudikatzen duen marrazkia. <https://bit.ly/30TzYIP>

Frantzian hilerriak egiteko modua Europa osotik hedatu zen eta horien kokapenean, espazioaren kudeaketan eta toki publiko hauen funtzio kulturalen eragina izan zuen. Hilerriak garai hartako sentiberatasunarekin eta heriotzarekiko jarrerarekin bat zetorren modelo baten irudikapena dira. Ikuspegi honen bilakaera XVIII. mendean izan, XIX. mendean zehar mantendu zen Europako kanpoaldean, XX. mendera arte.

XVIII. mendearen hasieran, *Santos Inocentes*-eko hilerriak hamazortzi parrokiei eta bi ospitaleei ematen zien zerbitzua. Egoera honek lekuaren asebetetzea eragin zuen eta arazo larriak izan zituzten hilerrian funtzionamendu egokia izateko. Hilerri hau Pariseko handiena zen eta XI. Mendean ireki zenetik ehunka mila paristar lurperatuak izan ziren bertan, gehienak hobi komunetan. Hobi hauek gainezka zeuden eta agintariak oso arreta gutxi jarri zioten osasungarritasunari XVIII. mendean sartu arte, gorpuak desagiteko lurraren borondatean konfiantza jarri baitzuten. Hain larria zen arazoa ehorzketen iragaziek alboko auzoko putzuak erabilezinak utzi zituztela.

1744. eta 1760. urteen artean agintariak hilerriaren itxierari buruz eztabaidatu zuten, baina behin-betiko itxieraren agindua 1780ean eman zen. Urte horietan zehar jende asko gaixotu zen hobi komunetan etengabeko irekierak eta itxierak kanporatzen zituzten kiratsengatik. Agintariak hainbat txosten idatzi zituzten hilerriaren egoera salatzeke eta etorkizuneko itxiera aurreikusi zitekeen.

Irtenbidea erabatekoa izan zen. Parisetik kanpo zeuden erromatar aroko harrobi zahar batzuk aukeratu zituzten bertan hiriko hilerriaren gorpu guztiak sartzeko. Katakonbak hezurtoki handiak bilakatu ziren eta 1810ean sarrera bat eraiki zen hiritarrek heriotzaren leku berria bisitatu ahal izateko. 1786an Pariseko artzapezpikuak lekua bedeinkatu zuen eta lekualdaketak beste bost urte iraun zuten, gorpuak Pariseko ia hilerri guztietatik atera ziren eta. Lekualdaketa hauek XVIII. mendean Frantzian gertatutako gizarte-aldaketaren beste islapen bat da.



14. irudia: Pariseko katakonben kriptak. <https://bit.ly/2yaH6xV>

Hilerri zaharren suntsipenak heriotzaren erreferente berrien hedapena ekarri zuen nolabait, orain ikuspegi ez hain goibel eta zapaltzailearekin lotuak.

Père-Lachaise-eko hilerriaren irekieraren aurretik 1804an, Parisen egonezin handiko aldi bat egon zen. Hiriguneko parrokiako hilerriak ixten ziren heinean, kanpokoak betetzen joaten ziren. Momentu horretan, udal agintariek hilerriak hirigunetik urrun kokatzeko planifikazioa hasi zuten. Hilerri berriek aurrekontu monumentaletara egokitu behar ziren, hau da, beste edozein eraikin publikoaren parean egon behar ziren hiria berari garrantzia eman behar ziotelako. Lurperatzeko lekuak hirien ezinbesteko lekuak bihurtu ziren; bere ezaugarri sinbolikoak komunitatearen interes sozialak islatzea eta etorkizunean beratan lurperatuko zen pertsonaren interes indibidualak babestea betetzen zuten.

Itxieraren agindua bidali zenetik bi hilabete igaro ziren hilerri berriak eraikitzeko lehiaketak antolatu ziren. Lehiaketa hauek Akademiak antolatzen zituen eta parte hartzen zuten leku guztiak ohorezko eta famazko lekuak izan behar ziren, horregatik heriotzaren lekua oroitzapenezko izaeraren arabera izango zen. Hilobi bakoitzak espazio txiki bat irudikatzen zuen, non memoria indibiduala gordetzen zen; eta multzoa gizabidezko hezkuntza eredu bihurtu zen bertako bisitarientzat.

Monumentuak errege, santu eta lider-klaseen eskubide bat izatetik klase-dirudunen eskuetara pasatu ziren. Burgesiak bere oroimena hurrengo belaunaldietan mantentzea nahi zuen eta horregatik monumentua hilerrien atalik garrantzitsuena bihurtu zen. Horrela, goi-mailako pertsonen eta familien oroimena mantentzeko helburua beteko zuten.

Lehiaketara aurkeztu ziren lan guztiek hileta-arkitekturan sortzen ari zen espezializazio tekniko handia erakusten zuten. Handitzen ari zen espezializazio honek pentsaera higienistan egiten ari ziren aurrerapenekin eta zientziako eta burgesiaren pentsamoldeko aurrerapenekin batera zetorren. Horregatik, hileta-arkitektura arkitektura tradizionaletik urruntzen hasi zen eta modu independentean eraikitzen hasi zen.

Korrante higienistek landaretzagatik eta airearen mugimenduagatik apustu egin zuten gorpuen lurrunei aurre egiteko, eremu berrien ezaugarri nabari bat bihurtuz. Arrazoiaren Mendean naturaren formekiko sentiberatasuna berreskuratu zen eta forma hauek paisaia-lorezaintzako arkitekturan eragina izan zuten. Leku hauetan ezaugarri zen ingurunearen intimitatea istripu naturalak erabiliz lortzen zen. Hilerriak sigi-saga egiten zuten bidezidorrekin apaintzen ziren, baita errekatxo marmartiekin eta tokia testuinguruan jartzen zuten baso eta landare igokari ugariekin. Honela, erromatarren lurperatzeko ohitura berreskuratzen zen.

Pentsamendu arrazionalak espazioaren berrantolaketan aldaketa sakonak ekarri zituen, esate baterako, koadranteetan banatzea, lurraren erabilera ordenatua eta logikoa erraztu zuena. Gainera, hilobien profanazioak eta lapurretak ekiditeko hilerriak ixtea erabaki zuten eta hesiak eta harresiak eraiki zituzten zailtasun bezala. Azkenik, aipatzekoa da arkitektoek estilo neoklasikoak erabiltzen zituztela nostalgia berpizteko eta horrela bisitarian sentimenduak eragin.

Hilerria hirigunetik ateratzeko beharraren ohitura poliki-poliki gertatu zen prozesua izan zen. 1763an eta 1765ean hainbat dekretuk arrakasta izan zuten. Baina benetan herritarrak elizetan lurperatzea eragozten hasi zituena hilobi hauei esleitutako tarifa altuak izan ziren. Geratzen zen aukera elizen inguruko hilerrietan lurperatzea zen. Bestalde, dekretu hauek eraginkorrak izaten hasi ziren arren, ez zuten zehazten zer nolako ezaugarriak izan behar zituzten Pariseko hilerriak. Higieneari, harresiz kanpoko kokapenari, zabaltasunari eta espazioa antolatzeke beharrari buruzko gaiak baino ez zituzten zehazten dekretu hauek,

hilobi kolektiboak txandakatzea errazteko. Debekuak, ordea, esplizituak ziren lekuaren soiltasunari dagokionez. Behar diren elementuak bakarrik eraikiko lirateke, hala nola itxitura-hormak, kapera, atezainarentzako eraikin bat eta administrazio-pabiloiak.

Hileta-monumentuaren irudia arrunta izaten hasi zen lorategi pribatu edo publikoetan. Idatzi askok praktika hori indartzen lagundu zuten, eta praktika horren jatorria Ingalaterrako paisaia-tradizioan dago, hura gabe ezinezkoa zatekeen halako espazio bereizgarriak sortzea. Horrelako lekuen diseinatzaileek paisaia-lorategien indar moral zirrargarria erabiltzen zuten, bisitariaren barruan sentimenduak piztuz eta bertutea oroitzen zuten monumentuen bidez hausnarketara gonbidatuz.

Père-Lachaise hilerri modernoek kopiatu beharreko eredua da. Arrazoimenak eta ilustrazioak eztabaida-garai bat eta ideia berriak eremu guztietan islatzearen ondoriozko suhertasun bat sortu zuten aren, oraindik hiriek hilerri pilatuak eta kaltegarriak zituzten.



15. irudia: *Père-Lachaise*-eko hilerria. <https://bit.ly/32JsrYy>



16. irudia: *Père-Lachaise* hilerria goitik ikusita. <https://bit.ly/2MdoJ3K>

Hilerrien iraultzatik aurrera, elizak bere ondasunak, monopolioa eta boterea galdu zituen. Hilerrien kudeaketatik eta hileta-elizkizunen ospakizunetik gero eta

gehiago urrunduta, beste eraldaketa berezi bat gertatuko da kudeaketa hori Komunaren menpe geratzen denean.

Hortik aurrera, hilerriek elizaren menpe bakarrik egoteari uzten diote eta herri-erakundeak bilakatzen dira non erlijioaren ikurrak alde batera uzten dira edo garrantzia galtzen dute. Jende guztiak lurperatua izateko eskubidea izango du eta horrela Elizak ezarritako “ez duin” kategoria desagertzen da. Orain, legez, guztiek atsedean hartu ahal izango dute hilerrietan. Baina ehorzketen irekierak aldaketa handiak ekarri arren, burgesiaren pentsaerak ekarritako ezberdintasun sozialak ez ziren desagertu.

Hala ere, hasiera batean abantailatsua zirudien egoera batek lurperatze laikoen eta hileta-elizkizunen gehiegizko degradazioa ekarri zuen. Egoera honek hainbat arauketa saiakera izan zituen, baina 1804ko ekainaren Dekretua hedatu arte mantendu zen. Bertan erreforma guztiaren zehaztapenak alde batera uzten ziren eta hilerriaren defendatzaileen eta leku arrazional eta funtzional baten alde zeuden arteko oreka bilatu zen.

Horrez gain, hilerrien ezarketa berriek izan behar zituzten ezaugarriak ezarri zituzten: bi hilerrien arteko gutxienezko tartea 35 metrokoa izan behar zuen, hilerriaren eta hiriguneen arteko gutxienezko tartea ezarri zen eta eskuz egindako putzuak ehun metro baino gutxiagora egitea debekatu zen. Izurrite tragikoak ekiditeko neurriak ere hartu ziren: gorpu bakar baterako doako hilobiak erabiltzea bost urteko iraupena izango zuen, eta hilobi kolektiboak alde batera utzi ziren. Panteoi indibidualak edo familiarrak behin-betirako ezartzeko eremua erosteko aukera eman zen, hilarriak edo beste motatako monumentuak ipintzeko eskubidea onartuz.

Landaretzari dagokionez, hilerri guztiek zuhaitzak izan behar zituztela ezarri zen gorpuen kiratsak xurgatzeko. Arau hau estetikarako ekarpen bezala nabarmendu zen, efektu goibel eta malenkoniatsuak sortzeko.

Kokapen proposena leku garai bat izango litzateke, ipar-haizeen eraginpean eta hormekin itxita. Orain bai, hilerriak eratuta geratzeko oinarri-legal nahikoak zituen eta bere lekua aurkitu zuen hirien bihotzetik kanpo behin-betiko finkatzeko.

Nicolás Frochot prefeta *Père Lachaise* hilerriaren sustatzaileetako bat izan zen. 1801ean hileta zeremoniak eta lurperatze-ohiturak birgaitzeko enkargua egin zioten. Parisen hiru hilerri berri ezartzea aholkatu zuen, aurretik aipatutako

Père Lachaise hilerria. 1804an, bere kemena eta ahaleginari esker, Pariseko Ekialdean hilerri berria kokatzeko lurren behin-betiko erosketa onartu zen. Aukeratutako lekua Mont-Louis izan zen eta Jesusen Konpainiari emandako leku bat zen zaharren eta eriondoen egoitza bat ezartzeko.

Lekua hilerri bihurtzea lagundu zuten bi gertaera gertatu ziren aldi berean. Alde batetik, Jesuiten zorrak zurtzeko lurak saltzeko agindua, Frantziatik kanporatu ondoren; eta bestetik, aurretik aipatutako Parisko hilerrien egoerari buruzko ikerketa, erreformaren abiapuntu bezala. 1804ean dena bukatu zen, Frouchotek, jabetza erosi ondoren, Brognartiri eman zionean, Senako eta Pariseko Herri Lan Departamentuan lan egiten zuen arkitekto bat, bertan, hilerri berri baten proiektu bat gara zezan.

Eremuaren erosketatik hilerriaren ireki zen arte oso denbora gutxi igaro zen. Arkitektoak bertan existitzen zen lorategiaren topografiara egokitu behar izan zen, baina hil aurretik sinatu zituen hiru proiektuetan topografia zail hori garai hartako hilerrien arauak betetzeko egokitu zuela erakusten dute.

Hilerria diseinatutako eremu bat izan arren, bisitaria ingurune artifizial batean zegoela ahaztarazteagatik bereizten zen. Lekua mendixkaren tontorrean kokatzen zen piramide-formako kaperaren inguruan biltzen zen. Sarrera, aurrealdeko hormen kurba zabaletik hasi eta erdi-puntuko arku formako atea zuen erliebedun frontoi monumental baten opakotasuneraino garatu zen.

Ataria pasatu ondoren (eta juduen hilerria alde batera utziz) ezki-zumarkalea alboetan dituen zabalgunean gorpuak gordetzeko eraikin txiki bat izango luke, eta zumarkalea ondoren jarraituko zen. Horien artean hainbat hileta-monumentu zeuden eta hauek hilerriaren eremu zabalaren mugak bezala erabiliko ziren eta, era berean, piramiderainoko espazioa barruan kokatuko zen.

Lurzoruaren topografia aldakorrak eta inguruaren forma irregularrak diseinua baldintzatu zuten. Hala ere, Brongniartek kontrasteak aukeratu zituen ardatz gurutzatuak bezala erabiltzen ziren ibilbide zuzenak erabiliz, eremua antolatzeko ere erabili zirenak. Bestalde, hilerriaren barrualdea inguratzen zuen bidearen zatian, bihurgune zabalak jarri zituen, hormen formako izkina bortitzak leuntzeko. Eraitza forma erregularreko eta tamaina ezberdineko eremu landaretsuak zituen plano bat izan zen eta horiek ibilbide handiekin mugatuta zeuden, hala nola, ezkien, gaztainondoan, makalen edota arkazien zumarkaleak, eta horien artean gurdiak igaro ahal ziren. Gune berdeen arteko pasealekua

errazten zuten sigi-saga egiten zuten bide txikiekin eta oinezkoekin sortzen zen kontrastea, monumentu partikular gehienak zeuden tokian.

Hileta-parke honen sorrera garai hartako paisaia teorien oinordeko leiala izan zen. Baratze eta lorategia zuten etxalde batetik garai horretan heriotzarekiko jarrera islatzen zuen ispilu bihurtu zuten, hilerri-lorategien artean eredu bihurtuz.

Arkitektoaren hil zenean, hilerri horretan lurperatua izan zen eta lanak Goddek jarraitu zituen. Existitzen ziren oinarrien gainean gaur egun ezagutzen diren atea eta kapera eraiki ziren, eta lekurako eraikin mota egokienari buruz aholkatu zuen. Hilerria berehala bisitatzeko leku interesgarria bihurtu zen eta lurperatua izateko prestigioa lortu zuen, bai lorategiaren erakargarritasunagatik, bai eragin neoklasikoko monumentu ederrengatik. 1825erako hilobi mota berri bat orokortu zen, familia panteoia, eta hauek antzinako mausoleon forma hartu zuten.

Garai hartako bidaia gida askok pertsonaia handien hilobiak nabarmentzen zituzten, pertsona famatu askok bertan lurperatu baitziren. Lekuaren edertasunak eta sotiltasunak, hiriaren gainerako eremuekin batera, bizitzan zein heriotzan gozatzeko aukera ematen zuen espazio bat sortu zuen. Santuaren babesa, parrokiako hilerriaren ezaugarria izan zena, hildako ospetsuen balio eredugarriekin ordeztu zen.

Horrela, lekua oroitzapen- eta memoria-izaera hartu zuen. Hilerria hileta-arteko benetako museoa bilakatu zen eta bere lehenengo urteetatik gaur egun oraindik ere bukatu ez den bibliografia handi bat sortu zuen. Nabarmentzekoa da hileta-monumentuen sorrerak XIX. mendean izan zuen garrantzia eta distira.

Bertan ikus dezakegu nola heriotzarekiko jarrera aldatzen joan den. Hura arbuioa sortzen hasi zen arrazionalismoaren emaitza zen sentsibiltate higienistaren bultzadaren ondorioz. Sentiberatasun berri horrek, bere garaiari egokitutako heriotzaren irudi berri bat aurkitu nahian, hildakoak hiritik urruntzeko benetako programa bat prestatu zuen diseinatutako proiektuen bidez. Antzinatik erreferenteak berreskuratu ziren, hala nola balio sinbolikoa, eta ehorzketa-politika sanitarioekin batera heriotzaren leku berrien oinarria izan ziren.

Bestalde, *Père Lachaise* hilerria erabiltzen dugu heriotzarekiko jarrera aldaketa hau erakusteko eta, ondorioz, hilerriaren tipologian. Antzinako

ikuspegia eta tradizioak eraitsi ondoren, hilerri honetan irudikatutakoa jaio zen, garbiagoa, txukunagoa eta arrazionalagoa dena eta gaur egun arte irauten duena.

Santos Inocentes-eko hilerrian heriotzarentzat eta bizitzarentzat ziren lekuak bat egiten zuten. *Père Lachaise* bezalako hilerri modernoetan, berriz, hilobiak hilezkortasun sentimendua sortzen zen egon zirenen eta gaur egun ez dauden pertsonak beti oroimenean mantenduz.

Hilerri-eremua prozesu luze batez eratu eta eraldatu zen eta prozesu horretan zehar elizaren interes asko alde batera utzi ziren. Aldaketa guzti horien bidez eremu erabilgarria eta arrazionala sortu nahi zen, XVIII. mendeko eskaerei egokituta.

Hortik aurrera, bakarkako eta familiaren hileta-monumentu berriak, laguntzarako eraikinak eta hiriguneetatik urrun eta higienikoki bermatuta zeuden lurretara egokitutako espazioaren kudeaketa hilerri-eremu berria osatuko zuten.

3.3 Pariseko ereduaren jarraibideak jarraituz.

Vista Alegreko hilerrian eraldaketa horien elkargunea argi ikusten da. Vista Alegreko egitura itxurazko bi eremutan banatutako osotasun bat bezala ulertu behar da: publikoa alde batetik eta pribatua bestetik. Publikoan hilerriaren zerbitzurako erabiltzen diren eraikinak aurkitzen dira: kapera, gorpuen biltegia, errausketa labea, harrera-lekua, etab.

XVIII. mendeko iraultza eta gero jaiotako hilerria da, XX mendean zabaldu arren; eta Frantzia XVIII. mendean ezarritako tradizioa jarraitzen du. Hilerri hau kontrastez beteta dago eta hilerrien hierarkizazio soziala ikus daiteke. Gune zaharrena gizartearen goi-mailakoentzat zen, Nuestra Señora de Begoñako enparantza hileta-monumentu handienak eta garrantzitsuenak dauden lekua da, 99 urterako erremuetan kokatzen dira eta ezin dira suntsitu. Erdialdetik urruntzen garen heinean hildakoen oroimen monumentuak eskasagoak dira, irudikatze murritzua ezartzen duten espazioen homogeneitateari aurre egin behar diete eta. Erdialdea edo Nuestra Señora de Begoñako enparantza hiribilduaren zabalkundea bezala izango litzateke eta bertan monumentu handienak eta ikusgarrienak aurkitzen ditugu. Baina erdialdetik urruntzean, hilerria hiriko aldirien antza hartzen du, non nitxoak eta alokatutako hilobiak presentzia txikiagoa dute eta paisaia homogeneoagoa da.

Antolakuntza horrek Arrazoiaren mendean ezarri zen pentsamolde burgesak ezarritako jarraibideak jarraitzen ditu. Legearen aurrean pertsona

guztiak berdina izan arren, ezberdintasun ekonomikoak nabariak ziren bai bizitzan baita hil ostean ere. Horregatik XVIII. mendean ezarri ziren hilerrien formulak noblezia goraipatzeko eta kokatzeko sortu ziren, eta lurperatze komunalak alde batera utzi ziren.

Ideologia eta pentsamendu berriek, elizaren eta estatuaren arteko banaketak eta espazioaren zatiketak gorpua ezabatzeko prozesua sinplifikatzea eta aldatzea ekarri dute, eta gaur egun gehien erabiltzen den sistema errausketa da, horren abantailengatik. Sistema honek espazioaren arazoa konpontzen du eta horrela banaketa errazten du. Gainera, errausketa lurperatze tradizionala baino arinago egiten da, ehorzketa prozesu motela baita. Baina errausketak bere alde txarra ere badu ez delako gorputza soilik erretzen. Gaur egun ehun akrilikoak asko erabiltzen dira eta pertsonak gero eta medikamentu gehiago hartzen dituzte, horien artean sendagai erradioaktiboak. Ondorioz, errausketa prozesuan partikula kutsakor horiek iragaztea oso zaila da.

Eraldaketa guzti hauek gaur egun hilerrien inguruan nolabaiteko interesa piztu du, gizartea eremu hauetatik urrundu arren, historikoki eta artistikoki herentzia historikoa igortzen digutelako eta hiriaren beste hedadura bat direlako.

4 Bilboko hilerri modernoek aurrekariak

Korrante liberalak eta pentsamendu higienista berandu iritsi ziren Espainiara. Bilbo industriaren aireratzea eta ideologia eta pentsamendu berrien agerpena goiztiarragoak izan ziren hirietako bat izan arren, ia mende bat behar izan zuten herrialde aitzindarietan izan zuten garrantzia bereganatzeko. Atzerapen hori agerian geratu zen osasun publikoari eta zementu-espazioen bilakaerari buruzko legediaren bilakaeran.

Arkeologia aztarnei esker badakigu Bilbon XIV. mendetik gorpuak Santiagoko (guar egun katedrala) eta San Antoneko elizen barruan zein kanpoan lurperatzen zirela. Ondoren, Santos Juanes, San Nicolás eta Begoñako Basilika bezalako beste tenpluen eraikuntzekin batera eliza-espazioetan ehorzketak egiteko lekuak ugaritu ziren, eta horri San Agustin, La Encarnación eta La Esperanza komentuak gehitu behar zaizkio.

Hilobien banaketa (tenpluen barruan) oso gai garrantzitsua zen, horregatik adituen batzordeak izendatzen ziren hileta eremu horren salneurria jartzeko. 1379an Bilboko Santiagoko katedralean batzorde horietako bat izendatu zuten katedralaren berreraikuntza zela eta sute baten ostean, hau da, berritzeren bat egiten zen bakoitzean hilobiak aldatzea eta berrantolatzea beharrezkoa zen.

“Encajonado”-en hileta-espazioa nabaritzekoa da. Hauek tenpluen barruan kokatutako hilobi komunak edo herri xeheari emandakoak ziren eta elementuren batez estalita zeuden, hala nola adreilu, lauza, egur eta abarren lauza edo estalkiz. Zoruaren zati handi adreiluz edo lauzaz egindako kaxoi handi batez estaltzen zuten eta hau karratu txikietan zatituta zegoen hildakoen ehorzketarako erreserbatuak. Bai eraikitzeko behar ziren obrak, bai eraikitzeak eragindako gastuak handiak ziren.

Hileta espazio hauek xeheak izan arren, hau da, ez zituzten goi-mailako klase baten pribilegioak, kanpoan kokatutako hilerriak baino hobeto kontsideratuak zeuden. Hala ere, bazeuden gune nobleagoak tenpluen toki nabarmenetan, hala nola familia ezberdinentzat erreserbatutako espazioak eremu nobleagoetan. Azkenik, nabaritzekoa da berezko hilobi batzuk bazeudela apaizak lurperatzeko, eta tenpluen barruan hilobiak egitea ezin zen baimendu jendearentzat.

Hilobiak fededunen arteko eztabaida sutuen arrazoia ziren; bai lurperatzeko tokien egoera, zein horiek zabaltzeko beharra, gai nagusiak ziren gizarte katolikoan. Banaketa-prozesuan izandako desordena eta gehiegikeriez ere eztabaidatzen zuten, eta inbidiak ere bazeuden tenpluaren barruan leku nabarmenik lortu ez izanagatik, hilobiak enkante bidez eskuratzen baitziren.

Hilerri modernoak XVIII. mendeko Frantziako ideia ilustratuetatik jaiotzen dira, Espainian eta Euskal Herrian ez ziretenak gauzatuko XIX. mendea eta XX. mendearen hasierara arte. Euskal Herrian aldaketa bultzatu zuen aurrekaria Pasajes-en 1781ean gertatutakoa izan zen, 89 pertsona hil baitziren kutsaduragatik.

Urte horretan zehar, parrokoen, medikuen eta militarren hainbat txostenek tenpluetako gehiegizko lurperaketek sortutako egoera txarra salatu zuten. Aurrerapen zientifikoek eta medikoek gorpuak agerraldi epidemikoen eragiletzat hartzen zituzten. Ezagutza berriak eta aurrerapen zientifikoak prozesu luze baten sorrera ekarri zuten hilerriak hirietatik kanpo ateratzeko.

Baina aldaketa hau elizaren interesen kontra zihoan, izan ere, hilerriak hirietatik ateratzea mezek eta ehorzketetarako lurren alokairuek ekartzen zituzten etekinen galera suposatzen zuen. Arazo honi beste batzuk gehitu zitzaizkion, hil-toki berriak finantzatzeko zailtasuna eta nobleziak, mendeetan zehar beraiena izan zen pribilegioa ukatzea, bere hildakoek tenpluen barnean lurperatzea, kasu.

Erakundeak hainbat lege idazten hasi ziren, tenpluen barruan egindako gehiegizko hilotzek sortutako arazoak inoiz konpontzen ez zituztenak. Lehen Errege Zeduletako bat Karlos III.ak aldarrikatu zuen eta 1787ko apirilaren 3an jarri zen indarrean: bere 3. xedapenak, herriek nekropoliak zelaian eraikitzea proposatzen zuen, eta, gastuak aurrezteko, ermita zaharrak aprobetxatu behar zituzten kapera bezala erabiltzeko. Hala ere, ez zuen zehazten hil gune horien finantziazioa, ez nork eraiki behar zituen, ezta mantendu ere. Errege zedula honek eragin gutxi izango luke ondorio praktikoetarako.

Karlos III.ak promulgatutako zedulak, jada, hil espazioen antzinako legeria bat zehazten zuen, eta ondorengo legeak, geroz eta zehatzagoak izan ziren, apaizek, beranduago, lan maisu batek eraiki behar zuen hil espazioaren diseinu eta plangintzaz arduratu behar zutela esanez. Baina horiek eraikitzen hasi aurretik udal arduradunekin ados egon behar zuten.

1804ko ekainaren 5ean, Karlos IV.ak zirkular bat aldarrikatu zuen, dena xehetasun handiagoz azaltzen zuena, baina irismen mugatua ere izango zuena. Lau urte geroago, 1808ko azaroaren 28an, Jose Bonapartek Madrilén hiru hilerri eraikitzea agindu zuen, eta agindu hori Espainia osora zabaltzea agindu zuen Dekretu bat aldarrikatu zuen. Frantziarrek egoera behartu zuten hiriguneetan hilobiratzeek zekarten arazoa zuzentzeko. Hirietako korrejidoak izan ziren zelaian bakarrik lurperatzera behartzen zituztenak, parrokién apaizak eta herrietako alkateak erantzule eginez, epaiketa kriminalen mehatxupean. Bilbon hilerri berri bat eraikitzeko, San Frantzisko komentuari (haren baratzea) ondoko lurrak izendatu zituzten, Bilbo Zaharrean. Nahiz eta dekretu eraginkorra izan, frantziarrek gobernatu zutenean bakarrik izan zen, eta ez zuten lortu nahi zuten harresiz kanpoko kultura sortzea.

1813ko azaroaren 1ean beste agindu bat eman zen, non hilabeteko epea ezarri zen tokiko korporazioek behin-behineko hilerriak hiriguneetatik kanpo ezar zitzaten. Horiek aireztatutako espazioetan egon behar zuten behin betiko hilerriak eraiki arte, eta zigor gogorak ezartzen zituen, teorían, arau horiek ez betetzeagatik. Agindua ez zen eraginkorra izan, eta arau eta lege ezberdinak ez betetzea konstante bat izan zen XX. mendera arte.

Horregatik, Isabel II. erreginak elizen barruko ehorzketak berriz debekatu zituen, artzapezpikuak, gotzainak eta langile erlijiosoak izan ezik. Hala eta guztiz ere, tenplu barruko familia pribilegiatuen hilobiratzeek jarraitu egin zuten.

1886. urtetik aurrera aurrerapauso handia eman zen hileta espazioen legediaren arloan, arkitekto, ingeniari eta obra-maisu batek egindako plano bat formalizatzeko betebeharra ezarri baitzen. Gainera, beharrezkoa zen hilerria eraiki nahi zen lur eremuaren baldintzak zehaztuko zituzten bi medikuren txosten batekin batera aurkeztea. Hiriguneekin izan behar zuen distantzia ere ezarri zuten. Eta hori inguruko herrietako biztanle kopuruaren arabera zen.

Hilerriaren hedadura urteko heriotzen kopuruaren arabera kalkulatu zen, 20 urterako hilkortasuna aurreikusiz. Epidemia-agerraldiek eta heriotza-tasak handitu zitzaizketen hondamendiek sortutako egoerak ere kontuan hartzen ziren.

Tenplu barruan hilobiratzeak eta epidemiek eragindako arazoak konpontzeko eta arautzeko kezka bazegoen ere, agintariek ez zuten arazo horiek konpontzeko borondaterik izan XX. mendera artea, egoera jasanezina zenean.

4.1 San Frantziskoko ortuaren hilerriak

Hilerri honen eraikuntza Bilbon. Hilerri honen eraikuntza Bilbon 1808an sustatu zen Jose Bonaparteren Gobernuaren garaian, Bizkaiko korrejidoreari Bilbon hilerri bat jartzeko agindu zionean, eta horretarako San Frantziskoko baratzearen ondoko lurak aukeratu ziren. Karlos III.a eta Jose Bonaparteren zedula eta aginduen ondoren, 1822an Agustin Humaranek diseinatutako proiektua aurkeztu zen.

Higiene-kontzientziak aurrera zihoazen bitartean, osasungarritasuna hobetzeko neurrietan sakondu zen, eta hiriak suntsitzen zituzten epidemiak geldiarazten saiatu ziren. 1817an, Fernando VII.aren erregealdian, Osasun Batzordeak sortu ziren, eta hori jauzi kualitatiboa izan zen osasungarritasun ezaren eta epidemien aurkako borrokan. Pentsamendu-korrante berri horiek pisu handia izango zuten Bilboko pertsona ilustratuen buruetan, baina XX. mendera arte ez ziren politikak eta agintarien eta erakundeen inplikazioa eraginkorrak izan.

1826an Frantziskotarrek eta Udalak hitzarmen bat sinatu zuten proiektuari ekiteko. Frantziskotarrek euren lurren zati bat galdu zuten arren, kritikarik handiena Kabildoak egin zuen, egoera berriak bere interesekin interferitzen zuela sentitu baitzuen. Kritika horren aurrean, Bilboko kontseiluak Madrilen apelatu zuen eta 1827an Gaztelako Kontseiluak ondu zuten Bilboko hiribilduak bi hilerri izan ahal zituela, San Frantziskoko baratzearena eta Mallonaren ondorengoa, Begoñako elizatean eraikia izango zena. Nahi zuena lurperatu zezaketela ere ebatzi zuen, betiere parrokia bakoitzak ezarritako kanonak ordaintzen bazituen.

Humarenek diseinatutako San Frantziskoko hilerria iragankorra izan zen, utzi dituen aztarna bakarrak eraikuntza eta altxaera planoak baitira. Obra neoklasiko garrantzitsu bat zen, ondorengo Mallonako hilerria izan zen bezala.

Aurrealdean atari handi bat zuen, eta ateburuaren gainean, letra handiz, inskripzio hau irakurtzen zen: “UBI POSUITIS EAM... VENI ET VIDE” eta kanpoko horman, harrizko gurutze txiki baten oinarri zen hilarri batean, beste bat zegoen: “FERNANDO VII.AREN ERREGEALDIA SAN FRANTZISKOKO KANPOSANTU PARTIKULARRA, S.M. ERREGE-ERREGINAK ERAIKIA ETA HAINBAT DEBOTOEN KONTURA”.

Hilerriak lorategia definitzen zuten zutabe dorikoen gainean galeriak zituen, hau, zortzi parterretan zatitzen zen eta korridore luzeek, nitxoetako lau solairu hartzen zituzten, non hilobi lauazatuak zeuden. Galeria zabal bat zuen, horma-hobi eta hautestontziekin, kapera apal bat gorpuak uzteko, eta lorategi oso zaindua, zeinaren erdian zurezko gurutze handi bat altxatzen baitzen.

Nekropoliko kapera zentratua zen, sarreran arkupe bat eta bolumen simetriko batzuk zituen, gangatua zen eta obra harlangaitzez egina zegoen.

Ikusgarriena eta bikainena ezkaratza zen, estilo neoklasikoa bereizteko hilobiak bezalako elementu garrantzitsuak ere diseinatu ziren arren, antzinako Erroman oinarrituak zeudenak. Barrualdea aberatsa zen zentzu guztietan, baina kanpoaldea eta sarrera gunea oso latzak ziren.

Lurperatze mota ezberdinak zeuden: panteoia garestiena eta handiena zen, merkeenak, ordea, lorategiko lurrean zeuden espazioak ziren. Beste kategoria batzuk ere bazeuden, hala nola, familia-hautestontziak, hautestontzi pertsonalak, galerietako zoladuran leundutako hilobiak, betirako emanak, beste batzuk pertsonalak, etab.

1.500 lurperatze arte hartzeko aukera izan arren, ez zen leku egokia haientzat, Bilboko erdigunetik nahiko urrun baitzegoen, eta espazio hori eraikitzeko erabili ziren baratzeak komentuan ostatu hartzen zuen frantziskotarren komunitatearen sostengua ziren.

Zoriturrez, hilerriko ezer ez da geratzen jada. Eliza eta instalazio guztiak kuartelamendu bezala erabili ziren eta 1856an erabat suntsitua izan ziren. Ondoren, lur berdinetan, infanteria kuartel bat eraiki zen, eta hondar guztiak suntsituta geratu ziren.



17. irudia. XV. mendeko komentua, San Frantziskoko auzoa, Bilbao. <https://bit.ly/32lkh2v>

4.2 Begoñako elizingururen hilerria

Hilerria Begoñako basilikatik metro gutxitara kokatuta dago eta bere lurzorua 10.000 m² ditu. Udal- eta foru-artxiboetan aurkitu daiteken dokumenturik zaharrenak 1811koak dira, eta Bilboko udal kontseiluak Begoñakoari hilerri berria eraikitzeke ordaindu beharreko errentei buruz emandako erantzuna aipatzen du. Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboan hilerri honen finantzazioa suposatzen duen arazoa planteatzen duten hainbat dokumentu gordetzen dira eta Begoñako Andra Maria elizak gurtza mantentzeko baliabideak mantentzea.

1813an, Bilboko Udalak erlijio katolikoa zuten hildako guztiak Begoñako eta San Frantziskoko hilerrietan lurperatuak izateko beharra berretsi zuen, eta zigorrak ezarri zituen Gurutzearen komentuko baratzean (gaur egungo Euskal Museoa) ehorzketak ekiditeko.

1814an Begoñako hilerria martxan zegoen, Bilboko Udalak gorpuak San Frantziskoko hilerritik toki horretara mugitzeko hartzen duen hitzarmenak frogatzen duen bezala.

1914. urtean Portu Batzordeak, Udalaren bitartez, hilerria desjabetzeko ahaleginak hasi zituen. Ekintza horrek ezinegona eragin zuen kontsularengan, Madrilgo Britainia Handiko enbaxadan eta Bilbon bizi den komunitatean. Azkenean, 1914-1917 bitartean desjabetzea ez zen gauzatu, gaia beste hamarkada batez zokoratuz.

1923an, H. Patteson kontsulak jarri zuen arazoa berriro, eta negoziaketak berritzea eskaini zuen arazoa behin betiko konpontzeko. Baldintza onak zituen akordioa eskaini zien Portuen Batzordeak, eta aukera bikaina ikusi zuten arazoa behin betiko konpontzeko.

Maiestatearen Gobernuak onartu ondoren, negoziazioak hasi ziren, eta 1924an akordio bat lortu zen. Akordio horren bidez, Batzordeak bere gain hartu zuen proposatutako lursailaren erosketa eta eraikinei, zuhaitzei eta abarrei dagozkien kalte-ordainak ordaintzea. Gorpuzkiak, monumentuak eta hilarriak hilerri zaharretik berrira eramatea ere ordaindu behar izan zuten.

Ondoren, leku berri bat bilatu behar izan zuten, 1904an aukeratutako lursaila okupatuta zegoelako. Era berean, ezaugarri horietako espazio bat hartzeko egokitzat jotako gainerako lursailak ere bazeuden. Eskakizunak betetzen zituen bakarra Gurutzetan kokatutako baratze bat zen, eta Barakaldoko Udalari erosketa eskaera egin zioten. Hasiera batean tokiko agintariak baimena emateko prest zeudela zirudien arren, azken unean atzera egin zuten, erlijio eta higiene arrazoiengatik oposizio handia zegoelako. Udalak ezetsi egin zuen erosketa, eta eskaintza atzera botatzeko eragozpen nagusia hilerriei dagokien lurzuaren legea zen, hau da, hilerria ez zegoen behar bezain urrun herri guneeetatik.

Hori dela eta, beste lursail bat bilatu behar izan zuten. 1926an, zentzuzko eskakizun guztiak betetzen zituela zirudien lursail egoki bat aurkitu zen. Aukeratutako lursaila ondoko Asua haranean zegoen, Loiuko parrokiaren, Derioko errepidetik gertu eta Vista Alegreko hilerrietik gertu. Malda txiki bat zuen, euri-uren eta gorpuzkien koipearen hustubidea errazten zuena, eta, errepide orokorretik aldendua zegoen arren, harekin lotuta zegoen lurrezko bide baten bidez.

Lursailaren erosketa 1927an egin zen, eta eremuak 40.000 m² inguru zituen; beraz, hilerri zaharra baino askoz handiagoa zen. Lursaila bere osotasunean erosi zuten, lursailaren zati bat saltzeari uko egin baitzioten jabeek.

Hilerriaren eraikuntzarako Emilio Otadui arkitekto jauna esleitu zen. Espazio berriak bi metroko horma bat izango zuen, bi kapera, bata protestantea eta bestea katolikoa, zaindaria rentzako etxe bat, eta iturri eta hustubide bat jarriko litzateke, hondakin-uren eta euri-uren pilaketa guztia kanporatzeko Gainera, lur guztia berdinduko litzateke, eta sartzeko bide bat eraikiko litzateke.

Lana 1927ko amaieran hasi zen, eta jada 1929an Gibraltarreko Gotzainak Nugent Hicks Doktorea donetsi zuen, James Johnston britainiar komunitateko apaizak lagunduta. Sail katolikoa, egun batzuk beranduago, Ojanguren aitak sagaratu zuen, Loiuko parrokoa, Candido Erenchun apaizak lagunduta.

Argitu behar da hilerri zaharra protestante hutsa zela, baina orain beharrezkoa zen leku berri bat eraikitzea komunitate britainiarraren beharrak bere osotasunean asetzeko. Hortik dator hilerriaren zati bat Eliza Katolikoaren errituen arabera sagaratzeko erabakia.

Berehala hasi zen hilerri zaharreko monumentuak, hilarriak eta gorpuak kanposantu berrira transferitzeko prozesua, kontsulatuak estuki esleitu eta ikuskatu zuena. Antzinako hilobi-gunea zegoen lursail osoa industu zen eta identifikatu gabeko 319 gorpu aurkitu ziren, espazio berrira eramandako monumentu eta hilarri kopurua 138ra igo zen, eta ezagutzen ziren hondakinen kopurua 402ra. Gorpuak, hilarriak eta monumentuak hilerri zaharrean zeuden bezala jarri zituzten; gainera, garbitu eta "zaharberritu" egin zituzten, ahal zen neurrian.

1929ko amaieran, kapera protestantearen eta katolikoaren zerbitzuak izan ziren I. Mundu Gerraren amaieraren armistizioa ospatzeko (1918), eta hil gune berriak hildakoak ohoratzeko.

Bai eraikinek, bai euren barnean dituzten apaingarriek, hilerri katolikoetatik ezberdina dira, eta oso ohikoa ez den berezitasun bat ematen diote protestanteak ez diren lurraldeetan. Gainera, dekorazio elementuek berek ere badute beren historia, Euskal Herriko tradizioan errotuen dagoen ikuspegi katoliko tradizionalarekin talka egiten duen ingurune ezberdina osatzen laguntzen duena.

Dekorazio elementuen historiaren barruan, aipatzekoa da protestanteen kaperako apaingarriak H. Allison andreak laga zituela, James A. Allison zenaren omenez, latoizko facistola, aldiz, (elizetako kantu liburua jartzen den atril handia) Portugaleteko eliza ingelesetik dator, non Buller Langford jaunaren omenez jarri zen Bilboko aurreko prokontsula britainiarraren omenez, eta objektu horren transferentzia James Johnston apaizak antolatu zuen familiaren erabateko baimenarekin. Biblia Johnston jaunaren bidez ere lortu zen, Britainiar Kontsulatuak bere lana eskertuz. 1930ean, Spencer jaunak koloretako beirate bat jarri zuen kaperetako batean, Edith Aelfrida emaztearen omenez. Espero zen, zegokion momentuan, beste beirate guztiak, kapera katolikoko leihoak bezala, horrelako konposizioengatik ordezkatuak izatea.

Kapera protestantearen barruan, oroitzapenezko plaka bat dago, Andrew Wauchoperen omenezko inskripzio bat daramana. Hogei urtez britainiar armada zerbitzatu zuen teniente koronela izan zen eta Echalar inguruan Pirinioetan hil zuten. Pasaian hil zen, 35 urterekin, 1813an.

Plaka hau, hilerri zaharreko kapera txikitik ekarri zuten, non, 1870 inguruan, kontsul Youngek jarri zuen. Espainiako merkataritaren bulegoari atxikitako trasteleku bateko zaborraren erdian abandonatuta aurkitu zuen. Dendariaren aitzak teniente koronela hil zen pasarteetara bidali behar zuen plaka, baina hori egin ahal izan baino lehen hil zen. Kontsulak familia aurkitu zuen eta plaka hilerri berrian jartzeko asmoa zuela adierazi zuen, eta kainu hori familiak eskertu zion.

Hilerria eraikitzeko diru gehiena Bilbon bizi zen komunitate britainiarraren bidez lortu bazen ere, Eskandinaviako komunitateak izan zuen garrantzia ere azpimarratu behar da, haiek ere erabili baitzituzten hilerri horretako zerbitzuak.

1929tik, hilerri berria donetsi zutenean, 1985eko abendura arte 129 gorpu lurperatu ziren, eta horiei lehen aipatutako hegazkinlari eta marinel 72 hiliarriak gehitu behar zaizkie, baina ez da ezagutzen gorpu gehiago lurperatu ote diren, ezagutzen direnak 201 gorpu diren arren.

Lehenengo eraikin azpimarragarria zaintzailearen gela zen. Beheko solairuan, administrazioaren pabiloia eta hilerriaren berezko zerbitzuak zeuden.

Oinplano angeluzuzenekoa da, eta inguruko lurzoruaren gainean dago. Solairu bat eta ganbara bat ditu, eta zurezko eskuzko eskailera batetik sartzen da bertara. Hormak harriz eta adreiluz eraikita daude, argamasa eta morteroarekin; hala ere, aire-ganberarik ez dagoenez, hezetasunak agertu dira. Izkinak eta zokaloa harlanduz osatuta daude, arkupea osatzen duen arkua bezala. Arku horretatik, sarrerako ateak irekitzen dira. Bertara iristeko, harrizko hiru maila igotzen dira. Baina fabrikaren gainerakoa adreiluzkoa da.


Teilatua bi isurialdekkoa da, teila laua eta erorketa handiak ditu, taulaketaren bidez eusten zaie, eta zoru gehienak egurrezkoak dira, pinu-tarimarekin, eta zati batzuk baldosazkoak dira.

Hilerriko komun orokorrek antzeko eraikin txiki bat hartzen dute, eta aurreko eraikinari atxikita dago, eta altuera bakarra du.

Kapera protestantea aurreko eraikinaren antzekoa da, oinplano angeluzuzenekoa, eta nabe bakarra osatzen du, arbelezko bi isurkiko teilatuarekin. Teilatuari eta ateari eusten dien armazoia egurrezkoa da. Fatxada nagusia harri landuzkoa da eta gainerakoa adreiluzkoa. Barruko trenkadarik ere ez du; beraz, aurreko eraikinean bezala, hezetasunekin dituen arazoak nahiko larriak dira. Gainera, fatxadaren pisuak eta eraikinaren zati batzuen hondoratzeak arrakalak sortzea eragin dute. Zazpi leiho angeluzuzen ditu, ojiba-akabera dutenak, eta altzairuzko profila duten bastidoreek estaltzen dituzte. Horietako hiruk, bat albo bakoitzean eta bestea atzealdean, koloretako beiratea dute, figuratiboa eta beruneztatua, kanpotik beste beira zeharrargi batekin babestuta daudenak. Azkenik, zoruaren zatirik handiena baldosazkoa da, koadro zuri, beltz eta xakelariekin.



24. irudia. Loiuako britaniarren hilerrian lurperatutako soldaduen eremua. <https://bit.ly/2O9bZxG>



25. irudia. Loiuako britaniar hilerriaren argazkia. <https://bit.ly/2O9bZxG>

Kapera Katolikorako eraikina aurrekoaren neurri berekoa da. Zazpi leihateak beira zeharrargiak eta beirate beruneztatu gabeak dira. Bere zorua nahiko hondoratuta dago eta hormetan pitzadurak ditu, bere kontserbazio egoera tamalgarria delarik, beste kaperarena baino askoz okerragoa.

Azkenik, garai batean hilotzak gordetzeko eta autopsiak egiteko gela gisa erabiltzen zen etxola bat dago, baina azken aldian zaintzaileak lurra zaintzeko erabiltzen zituen lanabes eta tresna ezberdinak gordetzeko erabili zen. Bere oinplanoa angeluzuzena da, teila lauko bi isurkiko teilatua du, erorketa handiak dituen egurrezko estruktura batez eutsia, eta sarrerako atea erdi-puntuko arku bat da, argamasaz eta morteroz egina.

5 Vista Alegreko Hilerriaren aurrekariak

Frantzian bezala, Vista Alegreko hilerriaren sorreraren hazitegia XVIII. mendean garatu zen, baina benetako aldaketak hurrengo mendean hasiko ziren, pentsaera ilustratua Espainian mamitu zenean. 1887ko urrian Bilboko udaletxean eztabaida bizi bat egon zen eta bertan hiribilduaren arazo handia azaldu zen: asebetetzea. Bilera bero-bero honetan zehar, Mallonako hilerria Santu Guztien Egunean zehar ixtea proposatu zen, masifikazioa zela eta.

Batzar honetan parte hartu zutenek hilerria hain egun esanguratsu batean ixtearen proposamena Osasuneko Tokiko Batzordetik pasatzea erabaki zuten, Udaleko kideekin eta hiribilduaren sendagile eta zirujauekin osatuta zegoena. Eztabaida hau osasungarritasunaren arazoak eragindako ugarietako bat izan arren, batzar hori hilerri berriaren eraikuntzarekin bukatuko zen eraldaketa prozesu bat sortu zuen.

Egoera jasanezin honen aurrean, agintariek Rucoba arkitektoa (Bilboko Udalaren arkitektoa) proposatu zuten Mallonako hilerriaren zabalkunde posible baten ikerketa egiteko. Behin diseinua eginda, zabalkundea ez zen irtenbide egokiena, lur-eremuaren heren bat soilik aprobetxagarria baitzen. Gainera, makineria burokratikoaren moteltasunak konponbide hamarkadetan zehar atzeratzea eragin zuen.

Elkarte ilustratuetan Mallonako hilerriaren garbitasunaren egoera txarrari buruz hitz egiten zen jada eta bere kokapena kritikatzeko hasi zen, osasungarritasun arazo larriak zekarren eta. Hileta-espazio berri baten beharraren aurrean, agintariek hiribildutik gertu zeuden lur-eremuak bisitatzen hasi ziren baina emaitza positiborik gabe, bakar batek ere ez baitzituen betetzen legeek eta zientzia modernoak ezarritako eskakizunak. Emaitzak errepikatzen joan ziren gaur egun Zamudio-Derion kokatutako eremuen esleipena lortu arte.

Aurretik esan den bezala, Osasuneko Batzordeak Mallonako hilerriaren egoerari buruzko txosten bat egin zuen. Batzordeko partaideek lekuaren begi-ikuskapen bat egin zuten eta hilerriaren egoera txarra egiaztatu zuten. Txostenean garrantzi handiko hiru puntu azpimarratu ziren:

1. Hilerria egun osoan itxita egon behar zuela proposatu zuten.
2. Lurraren egoera lurperatzeak egiteko egokia ez zela ezarri zuten, eta bi faktorek eragin zuten arazo horretan. Lehenengoa lur-zoruaren asebetetzearekin zerikusia zuen, barrutiak hartu zuten neurrigabeko

lurperatzen kopurua zela eta. Honek gorpuzkien koipeen metaketa sortzen zuen, eta hauek osasunerako eta ingurunerako kaltegarriak ziren. Bigarren faktorea lurraren kalitatearekin erlazionatuta zegoen; hau buztin motatakoa zen, trinkoa eta iragazgaitza eta modu egokian zulotzea eragozten zuen hezetasun maila handia zuen, ura gainazaletik gertu zegoelako.

3. Hilerritik gertu herriak zeuden eta handik errekatxo bata pasatzen zen. Puntu hau garrantzi handikoa da, gorpuen deskonposizioak eragindako kutsadura ibaian amaitu ahal zuen eta izurriteak eta osasun-arazoak eragin.

Mallonako hilerria ez zen hileta-espazio egokia bere zeregina betetzeko; izan ere, bere eraikuntza-akatsek eta gehiegizko erabilpenak hilobietan arrakalak eragin zituen, eta horrek gorpuen usteltzeak sortzen zituzten gasen jarioa errazten zuen. Gainera, Santu Guztien Egunean jende-pilatze handiak sortzen ziren eta horiek heriotza-tasa handitu zezaketen gaixotasunen garapenak errazten zituzten.

Hilerri hau hirigunetik gertu mantentzearen arriskuei buruz hitz egiten zuten txostenek errepikatzen ziren eta hilerritik gertu zegoen errekatxoan isurtzen ziren iraizketen arriskuan sakontzen zuten. Iraizketa horiek ibaira iristen baziren, hondakinak arropa eta tresnak garbitzeko erabiltzen zen uretik bidaiatzen zuten, eta osasunerako arrisku handia eragite zuen.

Txostenen ondorioak Osasun Batzordearen ordezkariari bidali zitzairen eta ondorengoak izan ziren:

1. Santu Guztien Egunean sarrera debekatu beharko litzateke egun horretan sortzen ziren jende-pilatzeak ekiditeko.
2. Debeku hori urte osorako neurri orokorra bezala hartu beharko litzateke.
3. Egoera hau hilerri berri bat ezartzeko aprobetxatu beharko litzateke.

Santu Guztien Egunean hilerria bisitatzeko debekua aurrera eramateko zailtasuna azpimarratu behar da, erlijioa eta gizartea oso lotutak zeuden eta. Zientzia eta korrante higienistak sendagileen eta herriaren hileta-kulturari aurre egiten zioten kudeatzaileen buruan zeuden; hau da, arrazoiaren eta sentimenduaren arteko gatazka bat zen.

Nahiz eta Osasun Batzordearen argumentuak XVIII. mendeko mugimendu ilustratuetan eta zientziaren aurrerapenetan oinarritutak egon arren, ez zuen erabakitze gaitasuna, hau da, batzorde aholku-emailea zen eta erabakiak udal-bileran hartzen ziren. Osasun Batzordearen aholkuak eztaba daezineko argumentuetan oinarritu arren, agintariek ez zuten biztanleria atsekabetu nahi, eta ikuspegi politikoa zientifikoaren aurretik jarri zen.

Batzarrean arazoari konponbide partziala emateko akordio batera iritsi ziren; alde batetik, Osasun Batzordearen iradokizunak bete nahi zituzten eta, bestetik, ez zuten biztanleria atsekabetu nahi. Eztabaidaren parte bat Santu Guztien Egunean hildakoak bisitatzearen beharra nola osotzean oinarritu zen eta horregatik txostenaren puntu batzuk aldatzea adostu zen. Bigarren puntua aldatu zuten, non hilerriaren patiora sartzeari debekatzen zen lekuaren toki kaltegarriena zelako, eta hileta beste nonbaitetik sartzeko modua bilatu zuten. Gorpu-biltegi berri bat egokitzea legeztatu zen eta, azkenik, Gobernadore Batzordeak hilerria zabaltzea gauzatzeko modukoa bazen edo leku berri bat bilatu behar bazuten ikertu zuten.

Akordio hauek Mallonako Hilerriaren Kaperau Kudeatzailera bidali zizkioten gutun baten bidez. Bertan Santu Guztien egunean hilerrira sartzeko debeku azpimarratzen zen, oroigarri bat jartzera joaten ziren pertsonentzat izan ezik, horiek objektua usteko denbora justua izango zutela ezarriz. Aldaketa horiek Osasun Batzordearen iradokizunak bete ez zirela esaten digute eta jendeak oraindik hilerrira joaten zela Santu Guztien Egunean beraien hildakoak ohoratzen.

Egoera hau egon arren, hemendik aurrera gertaerak arindu eta kudeaketak bizkortu ziren eta 1902an bukatu ziren Bilboko hiribilduaren hilerria berriaren irekiarekin, Vista Alegreko Hilerria.

5.1 Behin-betiko irtenbidea zabaltzea zen?

1887ko azaroaren 12an Gobernatzeko Batzordeak txostena argitaratu zuen, Mallonako hilerriaren zabalkundea komenigarria bazen edo hileta-espazio berri bat eraikitzea beharrezkoa bazen argitzeko. Egoera hain zen larria, hilerri berri baten eraikuntzaren aldeko jarrera adierazi zuela 1986ko otsailaren 17ko Errege Aginduaren Arabera.

Ondorengo txosten batek zabalkundearen ideia guztiz baztertzen zuen bi arrazoiengatik, lehenengoa lurzoruaren kalitate txarragatik eta bigarrena handitzeak zekarren diru kopuru handiagatik, izatez, apur bat gehiago jarrita

beste hilerri beri bat eraiki zitekeen baldintza hobeetan. Gainera, sendagileek jakinarazi zuten Bilbok 4,5 eta 5,5 hektarea arteko eremua behar zuela, eta hauek ezinezko neurriak ziren zabalkundea soilik eginez.

Beste alde batetik, agintariek lur-eremu egokia aurkitzeko izan zituzten zailtasunak azpimarratu behar dira. Lurzoruaren topologiak, haran gutxi eta txikiak zituzten mendiez osatuta, zailtasun fisikoak eragiten zituzten, eta ezinezkoa egiten zuten horrelako espazio bat lurzoru egokian kokatzea. Gainera, lur horiek ez ziren egokienak hileta-espazio bat kokatzeko, buztintsuak eta hareatsuak baitziren edo landare-geruza txikiko alubioi-lurrak ziren, euriak eramateko errazak.

Txostena sinatu zuten pertsonei osasungarritasunari eta asebetetzeari buruzko berehalako arazoak konpontzeko beharra ez ezik, plangintzaren beharra eta hiribilduak garai horretan jasango zituen aldaketa guztien aurreikuspena ere gidatzen zien. Jarraian azalduko diren hainbat akordioen ondoren, hiribildutik kanpoko lurretan hilerri berria jartzeko atea ireki zen.

Bost egun beranduago, Gobernatzeko Batzordearen txostena Ohiko Sail Publikoan aurkeztu zen. Akordioak hilerri berri bat edo bi eraikitzeko adina lurzoru berria bilatzeko baimena ematen zien; eta horrela Mallonako hilerria handitzearen ideia guztiz baztertu zuten.

Helburu hauek betetzeko akordioak Gobernatzeko Batzordearen eta Sustapen Batzordearen kideen arteko lankidetasuna formalizatzen zuen. Soltura, Lavando eta Epalza jaunei egun horretan bertan Gobernatzeko Batzordeak batzordekide izendatu zituzten arazoa behin-betiko konpontzeko.

1887ko abenduaren 3an Sustapen Batzordea bildu zen eta Laca eta Amezola jaunek izendatuak izan ziren, eta Enrique de Epalza-ren Udal-Lanen Laguntzaile karguaren zehaztapena nabarmena izan zen. Datu hau oso garrantzitsua da Vista Alegreko hilerria berak bukatu baitzuen.

Mallonako hilerria osasungarritasun eta higiene irizpide modernoek arabera eraiki zen arren, hirurogeita hamar urte pasa ondoren zaharkituta geratu zen. Horregatik, hilerri berriaren eraikuntzak Père Lachaise bezalako eredu aurreratuak jarraitu behar zituen, horretan hiribilduak zituen arazo berdinak konpondu nahi izan baitzen.

Sustapen, Osasun eta Polizia Batzordeak lur-zoruak aztertzeko eta leku berria proposatzeko arduradunak izan ziren. Lur-eremua hiribildutik gertu egon behar zen eta Nerbioi ibaiaren bi aldeak ikuskatu zituzten, Deustu eta Begoñako jurisdikzioetakoak ziren zonaldeak eskumaldetik, eta Abando, Etxebarri eta San Miguel de Basaurikoak ezkeraldetik.

Hautapen irispideak 1886ko otsailaren 17ko Errege Aginduaren arabera egin ziren. Honek hilerri berrien eraikuntza eta tramitazioa bermatzen zuten hamaika arau zituen. Berrien artean, higienari eta etorkizuneko aurreikuspenei buruzkoak zeuden; lur eremuek gutxienez hogeitaz erabili ahal izateko ahalmena izan behar zuten gorpuak lurpetik atera gabe. Gainera, orientabidea zaindu behar zuten, haize nagusien aurkakoa izan behar baitzen; egoera geologiko eta higienikoak kontuan izan behar zituzten; eta, azkenik, ur-metaketak ere kontuan izan behar zituzten, hala nola, biztanleek erabili zitzaketen iturburuak, akueduktuak eta ur-eroanbideak. Gainera, Errege Aginduak hilerriaren eta hurbilen dagoen biztanleriaren arteko gutxienezko distantzia 2km-tan ezarri zuen, eta inguruan baserri sakabanatuak bakarrik izan ahal zituen.

Ezaugarri hauetako espazioaren eraikuntzarako behar zen eremua azken hamarkadan (1878-1888) egon ziren 13.000 heriotzetan eta ehorzketetarako adostu ziren bi m²-ko espazioan oinarritu zen. Atera zen zifra bikoiztu zuten espazioaren erabilera 20 urtetan ziurtatzeko, eta, gutxienez, 53.000 m²-ko espazioa behar zutela kalkulatu zuten.

Hilerri berriarentzako lehen proposamena Basauriko jurisdikzioko Arizko jauregitik gertu dagoen kokalekua izan zen. Trenbideak eta Durangoko errepidea hiribilduarekin lotzen zuten. Eragozpen bakarra Mirafloreseko geltokian hilotz biltegi bat eraikitze beharrean zegoen, Durangoko trenbidea gorpuak garraiatzeko erabili ahal izateko. Bere erosketa onartu ez zen arren, tren bidezko garraioa hil zerbitzu bezala erabiltzea aipatzen den lehen aldia da. Lursail berriek bilketan egindako bira hori funtsezko ezaugarrietako bat izango da Vista Alegreko behin-betiko proiektuan, Zamudio-Derion.

Premiazko konponbidea behar zenez, Mallona handitzeko proiektua berraktibatu egin zen, eta Jaurilaritzako Ministerioaren ebazpenaren zain egon zen, ondoren gauzatzeko.

Eztabaida denboran luzatzen hasi zen, bai handitzeko bai hil espazio berri bat eraikitze egindako proposamen guztiak baztertuak izan baitziren.

Komisionatuek presio handia egin zieten aurrez aurreko jarrerei eta eztabaida behin betiko konponbide baten bidez ez konpontzeari.

Akordiorik lortu ez arren, Abandoren jurisdikziokoak ziren lur berriak proposatu zituzten. San Adrian ermitaren azpian zeuden, Peña auzorako norabidean, garai hartan Torre-Urizar baserriak zirenaren hegoaldean, eta 78.429m²-ko hedadura zuen. Hilerriaren bi heren ehorzketarako erabiliko ziren, eta gainerako herena hilerriak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak ziren eraikinetarako. Lorategiak jartzeko ere erabiliko zen zati handi bat, garai hartako pentsaera higienistaren eskakizunak betetzeko ezinbestekoak baitziren; gainera, ehorzketa espazioa asko edertuko zuen.

Proposatutako tokiak beste ezaugarri batzuk ere betetzen ziten, hala nola Bilborekiko hegoaldearen orientazioa, eta hezetasuna ez pilatzeko beharrezkoa zen hegaldetik hego-mendebalderako inklinazio txiki bat zuen. Hiribildutik banatua zegoen, Cantalojas zubirantz deribazioa zuen mendi baten bidez, hego haizearen aurkako hesi natural bezala jarduten zuena, herritarrekiko isuriak eraman zitzakeena. Konposizio geologikoa buztinezkoa zen, kaiola nahasketarekin, probintzia osoko bezalakoa, eta e zen egokia gorpuen deskonposizioa errazteko.

Lurpeko hezetasunarekin lotutako arazoak, hala nola urak biltzea eta eroatea, oso larriak ziren, espazioa hil-gune bat eraikitza zuzenduta egongo baitzen. Arazo larrienetako bat Nerbioi ibaiaren hurbiltasuna zen, hondakin-urak isuri zitezkeen herritarrek urrez hornitzen zituzten makinetan eta biztanleek arropa garbitzen zuten lekuetan, osasungaiztasuna eta gaixotasun infekzioak sortuz.

Lurrak ere Errege Aginduak ezarritako gutxieneko distantzia ez zuen errespetatzen, hau bi kilometrokoa zen hurbilen dagoen biztanleriarekiko. Eragozpen handia zen arren, akordioaren sinatzaileek arazo hori konpon lezake salbuespen-klausulari helduta. Horrek nahitaezko distantziak murrizteko aukera zegoela adierazten zuen beharrezkoa zen kasuetan, eta, horretarako, interesdunek eskaera bat egin behar zioten Jaurlearitzari, dagokion espedientea izapidetu ahal izateko. Arazoa behin-betiko baztertzeko aukera hori izan arren, komisionatuek beti erakutsi zuten legea betetzeko gogo irmoa.

Eragozpen guzti hauek egon arren, lur eremua erostea erabaki zuten 1888eko uztailaren 5eko batzar publikoan, hilabete berberako 19ko Dekretuaren

bidez. Tramitazio burokratiko honen ondoren, Edesio de Garamendi arkitekto nagusiak zegokion planoak diseinatu behar zituen.

Arazo guztiak bukatzeaz zeudela zirudien arren, Udalaren baiezkua legeak adierazitako tramitazio burokratiko luze baten hasiera izan zen. Eraikuntza-espeditentea bideratu baino lehen, aurrez ezarritako urrats batzuk nahitaez egin behar ziren, prozesua atzeratuko zutenak, proiektua eraikitzen hastea oztopatuz.

Garamendik txosten berri bat egin behar izan zuen proposatutako eremuaren ezaugarriei buruz, eta horretan ezin ziren egon ezberdintasun handirik Sustapen eta Jaurilaritza komisionatuek idatziko zutenarekin konparatuz. Baina bi medikuen irizpena beharrezkoa zen lekuaren egoera higienikoak agerrarazteko.

Azkenean Tokiko Osasun-Batzarrak behin-betiko txostena idazteaz arduratu zen. 1888ko abenduan egin zuen, aurreko txostenetan behin eta berriz azaldutako gogoetak berarenak eginez eta proposatutako eremua egokiena zela onartuz. Azpimarratu nahi dut baserri batzuk bi kilometro baino gutxiagora sakabanatuta zeudela, eta dagokion salbuespena eskatu beharra zegoela.

Berrikuntzarik funtsezkoena elizak 1888ko abenduaren 13an Bilboko Barruti Judizialaren bidez egindako eskariaren bidez parte hartzea izan zen artzapezek eskatu zuelako. Horrek Errege Aginduaren 2. klausula bete behar zela argudiatzen zuen. Arauak adierazten zuen beharrezkoa zela Bai Elizako ordezkariak bai Osasuneko tokiko batzordekoek kontsulta egitea espeditentea izapidetzeko. Hori dela eta, Bilboko Alderdiko Artzepezak Begoñako Santa Maria elizako, San Bizenteko eta alde zaharreko lau apaizak eta parrokoak bildu zituen, etorkizuneko hilerriaren kokalekuari buruzko iritzia eman zezaten. Ez zuten inolako eragozpenik jarri eta alkateari zuzendutako gutuna 1888ko azaroaren 19an sinatu zuten.

Ondoren, Udalak eliza berriko kontsultatu zuen, ez baitzen kontuan hartu prozesu guztia betetzeko egin beharreko eginbideetako bat. Eginbide horrek Ongizate eta Osasuneko Zuzendaritza Nagusiak 1888ko abenduaren 28an Madrilen hartutako erabakiari egiten zion erreferentzia. Akordio horrek azpimarratu zuen beharrezkoa zela kaltetutako apaizek eta parrokoek hilobi-gune berriaren kokapenari buruzko informazioa ez ezik, Elizaren fabrikako funtsek (parrokia-elizaren errenta, jainkoen mantentze eta zerbitzurako) proiektatutako obren gastuei erantzun ahal izango zieten ere zehaztu behar zutela.

Akordioa kanal ofizialen bidez zabaldu zen, probintzietako gobernadore zibilei zirkularra bidaliz, eta 1889ko urtarrilaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bilboko Udal Hilerriaren eraikuntza berriak kaltetu zituzten parrokoak kontra agertu ziren, ta ukatu egin zuten parrokiako lantegietako funtsekin espazio berria eraikitzeko aukera.

Parrokoei egindako kontsulta horrek ezkutatu egiten zuen oso burokratikoa zen gai bat: hilerriak udaletan jartzeko prozesua. Azpimarratzekoa da 1868ko azaroaren 17ko Dekretuaren argitalpena, iraileko Iraultzaren ondorioz lehen ideia aurrerakoien iturri izan zen, honek Madrilen udal hilerri bat eraikitzeko baimena eman zuen. Baimena eta paradigma berria zuzenbide estatuari egozten zitzaizkion jada, hau da, mende askotan elizaren monopolioa izan zen eskubide bat eskuratzen ziren udalak, jabetza eta lurperatzera bideratutako tokiak. Prozesu honen amaiera progresiboa izan zen eta 1931ko uztailaren 9ko Dekretua argitaratzearekin amaitu zen, modu iragankor eta partzialaren hilerrien sekularizazioaren erregimenari ateak ireki zizkiona, hau da, hileta-lekuak eta lurperatzeak sakratuak ez izateko aukerari.

Baina eraikuntza espedienteak 1888ko abenduaren 19an eman zuen bere lehenengo pausua, udal-arkitektoak 1887ko Errege Dekretuaren 8. klausula bete zuen kaperaren perimetroaren planoan, kaperauaren gelarena eta enplegatuen egoitzena, gorpuen biltegiarena, hileta-efektuen biltegiarena, autopsia-gelarena eta erlijio katolikotik kanpo hiltzen zirenak lurperatzeko erabiliko zen hesiaren espazioa planoan markatuz. Gainera, Edesio de Garamendi udal arkitektoak hurrengo urtearen martxoan eraikuntzen lehenengo plano eskura ipini zuen.

Beste alde batetik, Alkatetzak Probintziako Gobernadore Zibilari eskaera ofiziala egiten zion ahalik eta lasterren aktibatze; hau da, Maiestateari zuzentzen zioten, hilerriaren eta gertueneko herrigunearen arteko gutxieneko distantzia murriztu zezan. Horrela, 1889ko uztailean Gobernu Zibilak Daniel Meñaca ingeniaria izendatu zuen, Ramon Adán Yarzarekin batera, udalak izendatutako ingeniaria zena, hilerrirako proposatutako lurrak berriz ikuska zitzan.

Bere txostena urte horretako abuztuaren 9an eman zen eta momentu horretara arte ezagunak ziren lekuak kontuan izan zituen: Urizaren dorrea eta Arizko jauregia. Hauek beste txostenen emaitza berdinak izan zituzten, Nerbioi ibaia kutsatzearen arriskua kontuan izan behar zela azpimarratuz.

Arizen kasuan, gertuen zegoen biztanleria 5km-tara zegoen. Hala ere, infekzio arriskua handia zegoen landare-geruza germenek bete ahal zen eta euri-urak eraman zitzakeelako, Mirafloresen dauden ur-biltegien iragazgaitasunaren ondorioz xurgatzen ez dena. Izurrite berriak sortzearen beldurra airean zegoen eta hau hipotesi soil bat eta argumenturik gabeko egoera bat izan arren, pisu handia izan zuen eremu horiek baztertzeko erabakian.

Beraz, proposatutako bi lursailetakoa bat ere ez zen perfektua. Hala ere, instantzia eskudunek behin betiko osasungarritasun arazoetarako erabaki zail bat hartu behar zuten osasungarritasun arazoak behin betiko konpontzeko. Distantziaren arazoa prozesu guztia bukatzea oztopatu zuen; izan ere, Gobernadore Zibilar Urizar Dorreko lursailaren espedienteak Madrilen aurkeztea eskatu ziotenean, bertan behera utzi eta atzera bota zuen Osasun Batzorde Probintzialak, ezarritako distantzia ez zuelako betatzen. Gainera, Administrazio Militarrek Urizar Dorreatik gertu zeuden eremuak azkar eskuratu zituzten ospitale militar bat eraikitzeko.

Gertaera hauek 1890ko otsailaren 12ko Bilera Publikoan aurkeztu eta tratatu ziren. Bertan, Urizar Dorrearen eta Arizeko Jauregiaren lursailak alde batera utzi ziren.

Hiribilduak zituen osasungarritasun arazoak konpontzeko borondate handia egon arren prozesu guztia berriz hasieratik hastea beharrezkoa zen. 1890ko azaroaren 14an eremu berriak bilatzeaz arduratzen zen batzorde berezia bildu zen eta dena data berdinean berriz hasiko zela zirudien, hain zuzen ere, hildakoen hilabeteetan. Bilera horretan alkatearen komisionatuek eta Abandoko hilerriaren ondoko lurren jabeek parte hartu zuten, proposatutako irtenbidea bost urte baino ez zituen hilerri hori handitzea baitzen. Honek pentsarazten digu Udalbatzak lursail bat aurkitu nahi zuela Udalaren jurisdikzioaren barruan.

Denboraldi honetan aipagarria den beste proiektu bat egon zen. Hautatutako lur-eremua Araneko Lursaila deitzen zen eta Escurceren bidetik gertu kokatzen zen. Bere forma, Arane errekek biltzen zituen urak jasotzen zituen mendi-magal batena zen, Elguera Ibaira isurtzen zuena eta, aldi berean, honek Nirbioi ibaian isurtzen zuena. Hilerria eraikitzerakoan arazo larri bat ekarriko zuen, bere hondakin urak ibai horietan amaituko baitziren. Gainera, gertuen zegoen biztanle-gunearekin mantendu behar zuen gutxieneko distantzia ere ez zuen errespetatzen. Bere plano topologikoa 1891eko irailaren 15ekoa da eta bere eraikitze-planoa urriaren 21ekoa.

Gobernatze batzordeak 1891eko azaroaren 28an egindako txostena alkateari zuzenduta zegoen eta 1884tik ondo bukatu ez ziren kudeaketa guztiak bildu zituen. Txosten honek Udal jurisdikziotik kanpo geratzen ziren lur-eremuak erosteko aukera zabaltzen du. Hauek Basurtuko hilerritik gertu kokatzen ziren eta, gainera, lehen aldiz partikularrek eskaintzen zituzten lur-eremuak barruan sartzen ziren.

Eskaintzetako bat Salustiano Orive jaunak, botikaria, egin zuen 1891eko azaroaren 23an Udalera zuzendutako eskutitz partikular baten bidez. Bere lurzorua Erandioko elizinguruaren parte zen, eta, zehazki, nekazaritza etxalde izeneko finka batean kokatzen zen.

Agian proposamen garrantzitsuena Derion kokatutako lursailak eskaintzen zituena izan zen. Hiribildutik 7 edo 8 km-ko distantziara egon arren, bertatik oso gertu pasatzen zen errepide baten bidez lotzen zen. Gainera, Lezamako tren-geltokia bertatik hurbil zegoen. Kokapena hiru jurisdikzio zibilen barruan zegoen eta hiribilduaren etorkizuneko hilerria eraiki zen lekua da.

1891eko abenduaren 2an ospatu zen ohiko batzar publikoan beharrezkoa zen jarrera aldaketa gertatu zen, hilerri beharrezkoa eta espero zena behin betiko eraikitzea ahalbidetuko zuena. Aipatutako txostena irakurri ondoren, lehiaketa publiko bat irekitzea erabaki zen, non Bilboko jurisdikziokoak ez ziren lurak eskaini ziren.

Lehiaketa 1891eko abenduaren 10ean plazaratu zen eta Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Eskaintzak 20 egunetan aurkeztu behar ziren, zegozkien planoekin, eta informazio zehatza izan behar zuten lur-eremuaren konposizioari buruz, hiriguneekin eta ibaiekin gertutasunari buruz, etab. Ziurrenik lehiaketa kandidatura bakarra geratzeko planteatu zen, arazoa behin betiko konpontzeko.

Baldintza guzti hauek ezarri arren, hainbat lur-eremu eskaini ziren, esate baterako, Estanislao de Echave y Basterrechea jaunarenak, Zubiletan (Burceña) kokatutako lursailak eskaini zuenak. Hilabete horretako 29an Salustiano Orive jaunak berriz Erandion kokatutako lur-eremuak eskaini zituen. 30ean, Juan Manuel Llona y Menchaca jaunak Lujuan kokatutako lursailak ematea proposatu zuen. Azkenik, data berberean, Bilbotik Lezamarako Trenbidearen Konpainiaren ordezkari eta buru gisa, eskaintzarik osoena eta interesgarriena egin zuen. Azken eskaintza hau onartu zen eta lursail horietan gaur egun Vista Alegreko hilerria kokatzen da.

Eskaintza honen interes nagusia Trenbidearen Konpainiak lurak doan lagatzeak zekartzan abantaila ekonomikoak ziren. Hala eta guztiz ere, txosten teknikoaren kalitateak eta zehastasunak ere bereizten zuten. Bertan, datu ugari azaltzen ziren, bai lurren ontasunari buruz, bai lurren kokapen onari eta sarbideei buruz.

Lur-eremuak 88.500 m²-ko azalera hartzen zituela zehaztu zen, eta hau handiagotu ahal zela behar izatekotan. Bilbotik 7km baino gehiagoz bananduta, Vista-Alegre izeneko puntuan zegoen. Zati bat Zamudioko elizatearen jurisdikzioan zegoen, eta beste bat Deriokoan. Konkretuki Bilbotik Bermeorako eta Asuatik Erlecheserako errepideen arteko bidegurutzearen alboan zegoen, Erlechesen ondoan eta bertatik zuzeneko sarbidearekin.

Lurraren forma erregularra zen, eta ia ehun metroko muga zuen aurretik aipatutako errepidearekin. Etengabeko malda leuneko mendi-magal baten gainean zegoen, lurraren uniformetasuna aldatu gabe. Malda beharrezkoa eta komenigarria zen urmaelik egon ez zedin eta, horrela, lursailaren etengabeko saneamendua egiaztatu zen.

Lurraren landare-geruzaren sakonera metro erdi eta metro bateko lodiera artekoa zen; haren azpian beste bat zegoen, bi metroko lodiera zuen harea eta buztin pixka batez osatua, eta haren atean buztin trinkoko beste geruza bat aurkitu zuten. Teorian, hilerri bat hartzeko lur on bat zen, ez baitziren saneamendu baliabide garestiak jarri behar, drainatze sinple bat instalatuz bakarrik konpondu ahal zen filtrazioen arazoa estolda edo kolektore nagusi batera eramanez.

Lehiaketara aurkeztutako lur-eremu guztiek sarbide arazoak zituzten, hiribilduaren jurisdikziotik kanpo bait zeuden. Beraz, distantzia eta irispide-erraztasunak funtsezko datu bihurtzen dira lursaila aukeratzeko orduan; izan ere, lursail egokia aukeratu zen, eta horregatik ezin izan zen ezetsi Trenbidearen Konpainiak sustatutako ekimena. Lursailak errepide nagusi batekin mugatzen zuen, eta hilerriaren ondoan Trenbidearen Konpainiaren geltoki bat zegoen, garraio moderno baten bidez bidaiaren garraioa errazteaz gain, hileta-garraioa ere errazten zuena, heriotzaren treneko hileta-bagoiekin (Trenbide Konpainiak berak horrela deitua). Lurren kokapen onari, garraio moderno bat batu zitzaion, modernitatearen irudia zena XIX-XX. mendearen amaieran. Trenbidea hilkutxak eta senideen dolua hilerri berrira garraiatzeko gai zen.

Lurraren irudiak perfektua zirudien arren, lurraren jabeek egindako trikimailu trebea zen. Konpainiak azaldu zuen eragozpen bakarra Deriora eramango zituzten trenak atera arte Bilbon hilkutxak gordetzeko biltegi bat izateko beharra zen. Beraiek onartzen zuten irtenbidea Mallonako hilerriak eginkizun hori betetzea proposatzean. Konpainiak proposatu zuen Mallonako hilerria hilkutxen gordailu gisa erabiltzea, eta haiek egingo zituzten Mallona eta Bilbo eta Lezama arteko lotura-adar txikia eraikitzearen ondoriozko gastuak.

Txosten honen bukaeran konpainiaren benetako asmoak aurkezten ziren, eta baliteke horiekin etorkizunean desadostasunak egotea. Trenbidearen Konpainiak proposatu zuen Bilboko Udalak bere gain hartzea horrek zekartzan karga guztiak.

Gainera, trenbideak ez zuen hirigune garrantzitsurik bere inguruan; horregatik, linea errentagarri bihurtzeko modu bat bilatu behar izan zuten, pertsonen jario etengabea bermatuz. Hiribilduko biztanleengan trenbidearen erabilera ere indartu nahi izan zen, Konpainiak zituen lineak errentagarri egiteko asmoz.

Dena hain baikorra zen arren, 1892ko martxoaren 9an batzorde informatzaileak bere irizpena helarazi zion Osasuneko Tokiko Batzarrari. Batzordeak lursailaren kokapenari buruz zuen iritzia positiboa zen, baina bertako lurren kalitateari buruz zuen iritzia ez zen hain baikorra. Lurraren baldintzak ez ziren zientzia modernoak nahi zuenera iristen, baina Bizkaiko egoera geologikoa ikusita, ezin zen beste lurrik aukeratu.

Hilabete bereko 12an, Tokiko Osasuneko Batzarrak berea egin zuen irizpen hori, eta alkateari aurkeztea erabaki zuen. Alkateak Gobernazio Batzordera bidali zuen. Era berean, azken horrek martxoaren 14an, txosten zabal bat egin zuen, Mallonako baldintza txarrak deklaratu zirenetik izandako izapidetze guztia jasotzen duena.

Berrikuntzak eta prozesuan interesgarritzat jotako gaiak baino ez ziren nabarmendu. Gai horietako batek Bilbotik Lezamarako Trenbidearen Konpainiak betiko eskainitako lursailen kantitateari egiten dio erreferentzia, 12.500 m²-ra handitu baitzen.

Beste atal batean, zinegotzi batek egindako protesten ondorioz sortutako polemika jasotzen da. Polemika hori Gobernazio Batzorde honek erabakiak hartzeko eta lursailei buruzko balorazioak egiteko eskumena zuen ala ez aipatzen

zuten prozedura-kontuetan oinarritu zen. Zinegotzi berak presta egin zuen Llona jaunaren doako lurren ebaluazioa epez kanpo aurkezteagatik.

Txostenaren ondorioek, ordea, eraikuntza prozesua garatzea ahalbidetu zuten ondorengoa adieraztean:

1. Trenbidearen Konpainiak doako eskaintzen zuen 112.500 m²-ko lursaila onartzea hilerri berria kokatzeko, eta zegokion lege-izapidetzea egitea.
2. Hori egin ondoren, hileta eremua eraikitzea erabaki zen, eta 1886ko otsailaren 17ko Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera izapidetu zen espedienteak, eta txostena egin zen Gobernuak onar zezan.

Behin-betiko espedienteak 1892ko martxoaren 23ko bilkura publikoan zehaztu berri dugun txostenaren onarpenarekin hasi zen izapidetzen. Espedienteak izapidetzeko prozesu burokratiko luzea berriz egin behar zen, izapideak aipatutako Errege Dekretuak emandako errekerimendu ofizialen mende jarritz, eta haren osagarri 1888ko uztailaren 16koa.

3. klausulak nahitaez bete beharreko hurrengo urratsa planoak egitea zen. Maiatzaren 11n Edesio de Garamendi arkitekto nagusiak hilerri berriaren eraikuntza planoak bidali zion alkateari. Bertan, hilobiratze-eremuak eta nahitaezko-eraikinak zehaztuta agertzen dira: kapera, gorpuen gordailua, autopsia-gela, kapilauarentzako gelak, hezurtegia, biltegia, zirkulazio-galeriak, hilobiratzeetarako etxadiak eta katolikoak ez zirenak lurperatzeko tokia. Hil horren 24an, Garamendik lurraren kokapenari eta orientazioari, lurraren baldintza geologikoei eta haizeen kalitateari buruzko txostena egin zuen. Gainera, dauden komunikabide guztiak adierazten zituen plano batekin lagundu zion.

Agintariek Gorostiza eta Sanz medikuei kontsulta egin zieten, Gobernazio Batzordeak izendatu zituenak, hileta gune bat hartzeko lurak zein egokiak ziren argitzeko. Ez zuten eragozpenik jarri, nahiz eta lur-eremutik gertu errekatxo bat igaro. Haien arabera, infekzio arriskuak gutxituta zeuden, hiruzpalau baserri baino ez baitzeuden sakabanatuta inguruetan, eta Vista-Alegre bezalako ezaugarri onak zituen lursailik ez zegoela adierazi zuten.

XIX. mendearen amaieran elizak botere handia zuen eta hilerriaren kokapena gogor kritikatu zuten. Kritika hau oso garrantzitsua zen; izan ere, Errege Aginduak parroketako apaizei galdetzerak behartzen zituzten, hilerri berriaren

eraikuntzari buruz zuten iritzia eman zezaten, baldin eta haien funtsak parrokien fabrikako funtsekin eraikitzeak eragindako gastuei erantzun ahal bazieten.

Elizaren erantzuna guztiz ezezkoa izan zen eta Trenbide Konpainiaren eta agintari eskudunek emandako argudio baikor guztiak kritikatu zituzten. Kokapenetik eta bidaiaren lausotasunetik Trenbidearen Konpainiak ezartzen zituen onurak eta tarifak arte kritikatu zuten. Testuaren amaieran, esplizituki, bi gai itxi zituzten, eta, haren ustez, oso garrantzitsuak ziren. Parrokoentzat ez ziren hilerri orokorra eraikitzeako lur egokiak, eta lantegietako funtsek ez zituzten ordaindu proiektuetako hilerria eraikitzeako gastuak. –hala ere, Zamudioko eta Derioko erretoreei ere galdetu zitzaien, eta haien erantzuna positiboa izan zen, fabrikako fondoek ez baitzuten eraginik izan.

Izapide guztiak egin ondoren, lursail osoa erabilgarria ez zela izango nabarmentzekoa da, proposatu ziren 112.500 m²-etatik bakarrik 97.500 m² erabilgarriak ziren, laguntza-bulegoetarako aurreikusitako hedadura kendu behar baitzen. Hala eta guztiz ere, lursailaren hedadura nahikoa zen hilerriak bere funtzioa bete zezan hogeita zortzi urtez gorpuzkiak kendu gabe, eta proiektu honetarako esleitutako aurrekontua 140.00 pezetakoa zen.

Gobernazio Batzordeak izapide guztiak laburbildu zituen 1892ko uztailaren 10eko datarekin txosten berri bat sortuz, Udalak behin betiko onarpena eman aurretik, eta txosten hori Bizkaiko Probintziako Gobernadore Zibilarari bidali zitzaion. Horrela amaitu zen udala agintariei zegokien lurren izapidetzea, eta dokumentazioa Gabernazio Ministerioa eraman zen.

1893ko urtarrilaren 19an, probintziako gobernadoreak Gregorio de Revilla alkateari jakinarazi zion espedientea Gobernazio Ministerioko idazkariordeari bidali zitzaiola, baimena eman zezan.

Ekainaren 14ko Probintziako Aldizkari Ofizialak Errege Agindu honen eta hura idazteko oinarritzat hartutako Osasun Kontseiluaren irizpenaren testu osoak argitaratu zituen. Errege Kontseiluak bere irizpen ulerkorrean adierazi zuen, baina bere erantzukizuna eta higiene publikoaren garrantzia kontuan hartuta, zenbait neurri behar zirela ohartarazi zuen. Batez ere, ehorzketatan jarduteko moduari lotuta zeuden, eta, horretarako, karea erabiltzea erabaki zuten, gorpuen deskonposizioa bizkortzeko; izan ere, uste zuten prozesu hori luzatu egin zitekeela, lurraren hezetasun handiegia eta oxigenazio gutxi zeudelako.

Bigarrenik, oso garrantzitsutzat jo zuten Asua ibaiaren erreka egotea izurrite berriak sortzeko arriskurik handiena, nahiz eta aurreko txosten guztiek kutsadura-arriskua. Eragozpen horiek nahitaez bete beharreko baldintzen atalean jaso ziren Errege Aginduan, baldintza horiek betetzen ez baziren, ordura arte egindako izapidetze guztia baliogabetuta geratzen zen.

Lau baldintza ezarri ziren; lehen baldintza metro eta erdian ezarri ziren hilobien sakonerari buruzkoa zen. Bigarrenak zehazten zuen ezinbestekoa zela ibaiaren emaria desbideratzea. Gainera, beharrezkoa zen hilerriaren alde bat iragazgaiztea, aukeratutako lekutik 50 metrora zegoen errekan emai zitezkeen filtrazioak gelditzeko. Hirugarrenak karea erabiltzea derrigorrezkoa egiten zuen gorpuen deskonposizioa azkartzek, eta laugarrenak hondakinak hamar urte baino lehen mugitzea debekatzen zuen.

Bilboko hilerri berriak hura eraikitzeke baimena lortu bazuen ere, erabaki berriak hartzera behartzen zuen Errege Aginduaren bigarren baldintza. Azaroaren 13an Gobernazio batzordeak hainbat peritu izendatu zituen, hilerriko filtrazioak ibaira iristen ote ziren jakinaraz zezaten, eta erabaki behar zuten zer obra mota ziren beharrezkoak Errege Agindua betetzeko. Horretarako izendatutako pertsonak Edesio de Garamendi Udal arkitekto burua, Manuel Enrique Epalza arkitekto ordezkaria eta Alfredo Acebal arkitektoa izan ziren.

Txostenean ibaia kutsatzeko arriskua gezurtatu zuten; haien arabera erreka kokapena uste baino urrunago zegoen. Kutsatzeen ezintasuna ere azpimarratu zuten, eta lekuaren konfigurazio topografikoak eragotzi egiten zituela frogatu zuten, batez ere erregearen ibilguaren goialdeko lursailaren gainbehera naturalagatik eta goratze txikiagoaren ondorioz. Ondorioz, ez zen beharrezkoa inolako obra gehigarriarik egin behar hilerrian.

Hilerri berria eraikitzeke azken baimena Madrilgo Gobernazio Ministerioaren esku zegoen, eta hark eman zuen, baldintza jakin batzuk betez. Hiribilduko Udalak Gobernu Zibilararen bidez eskakizun guztiak betetzeko asmoa agertu zuen. Probintziako Gobernuak uko egin zion bere eskumenari, eta badirudi udalak eten batean utzi zuela. Egoera hau azaroaren 15ko ohiko batzarrean ebatzi zen. Bertan, aurreko txostena irakurri eta Gobernazio Batzordeak hilerri bideratutako lursailaren ardura hartzea erabaki zen. Hura eraikitzeke azken tramiteak azkartzen hasi ziren, eta azkar egin ziren.

Hurrengo kontua Burdinbidearen Konpainiak lursaila Udalaren esku lagatzea ebaztea zen. Hori atzeratu egin zen, aipatutako lursailak eskuratzeko formalitateak amaitu behar izan zituelako.

Lurren lagapena 1893ko abenduaren 18an egin zen, eta protokolozko ekitaldi bat egin zen. Ekitaldi hori Begoñako geltokian bildutakoen bilerarekin hasi zen, gero Deriora joateko Trenbidearen Konpainiako tren batean. Agintariek egiaztapen txiki bat egin zuten, eta lursailak eta planoak bat zetoze la ikusi zuten. Horrela, udalerrria eta trenbidea ordezkatzan zituzten ordezkariak lursail horiek laga eta karguaz jabetu ziren, eta, amaitzeko, Bilboko Udalak lurren jabetza hartu zuen.

Horren ondoren lursaila Jabetza Erregistroan inskribatu behar izan zuten, honek lekuaren jabetza egiaztatzen zuen eta Udalerriri proiektuaren obrak hasteko aukera ematen zion. Horretarako, lagapenaren kontratua onartu behar zuen Gobernazio Ministerioak.

Izapide hori egiten zen bitartean, eta denbora larriki igaro zenez arazoa konpondu gabe, Gobernazio Batzordeak 1894ko martxoan lurra hondeatzeko eta ixteko lanak hastea proposatu zuen, eta berehala lurperatu ahal izango zen, egoerak hala eskatzen bazuen. Ziurrenik, eskaera horrek ezusteko guztiak konpontzen saiatuko zen, Mallonako saturazio-arazoei Elejabarriko hilerrikoak ere gehitu behar baitzitzaizkien, hura ere saturatzen hasia baitzen. Gobernazio Batzordea abuztuaren 14an txosten baten bidez zuzendu zitzaion alkateari, prozesua luzatu zelako kezka agertuz, eta behin betiko planoak amaitu eta berehala obrak hasteko beharra errepikatzen zuten.

Memoriaren datek eta Edesio Garamendik sinatutako planoek adierazten dute 1894ko urriaren 25ean bete zuela enkargua. Planoak Derioko lurak ixteko obrei egiten zien erreferentzia (sarrerako burdin hesia barne), baita katolikoak ez diren lurperaketetarako barruko itxiturari ere. Eskrituraren baldintzak oraindik ebatzi gabe jarraitzen bazuten ere, Udalak obren hasierari aurre egitea erabaki zuen, eta 1894ko abenduaren 24an esleitu ziren enkante bidez.

5.2 Azken fasearen hasiera: eraikuntza

1895eko abenduaren 3an, gobernadore zibilak Bilboko alkateari Errege Agindu bat helarazi zion, Bilboko Trenbidearen Konpainiak Lezamari eskaini zion lursaila Udalak doan eskuratzeko onartzen zuena, bertan hilerri bat jartzeko. 1893ko maiatzaren 31ko Errege Aginduak onartu zuen.

Trenbidearen Konpainiari jakinarazi zitzaion Errege Agindua argitaratu zela, eta, azkenean, 1896ko martxoaren 31n Bilboko Udalaren izenean zegokion eskritura inskribatu ahal izan zen Jabetza Erregistroan.

6 Eraikuntza

Bilboko Hilerri berriaren lanak enkantearen bitartez Hermenegildo Urdangarin jaunari esleitu zitzaizkion eta baldintzen agirian adierazitako hilabete bateko epea igarota, 1895eko urtarrilaren 24a lanen hasiera data hipotetikotzat eman dezakegu. Lan hauek premiazko izaerarekin proposatu ziren Hiribilduko Hilerririk handienaren, Mallona, asebetetzearen ondorioz sor zitezkeen arazoak ekiditeko. Gainera, Elejabarriko Hilerriaren asebetetze arazo hurbila gehitzen zitzaion.

Lehen lan hauetarako, zeinen iraupena hamar hilabeteetan hitzartu zen, lursailen itxitura-horma, katolikoak ez diren lursailetarako espazioaren mugaketa eta itxitura eta sarrerako ateak baino ez ziren proiektatu.

Helburu horretarako egindako Memorian, Edesio de Garamendi kezkatuta agertzen da hilerri eremuei dagokien legegintza betetzeko. Gainera, izurriteak berriz bueltatzearen beldur gorakorra zegoen, hilerriek jasango zuten kolapsoa zela eta. Beldur honek diseinu taldeak aurrerratuago zeuden beste herri batzuek hartutako irtenbideak aztertzeraz eraman zuen, bai legegintzan bai hilerri eraikuntzan, hala nola Frantzia eta Italia.

Lanen prozesua sei urtez luzatu zen eta oinarrizko bi testuen bidez aztertu daiteke.

Horietako lehena 1896ko abuztuaren 30ean Edesio de Garamendi Udal Arkitekto Nagusiari Gobernatze Batzordeak eskatutako txostena da. Txosten honetan hilerriaren ehorzketak egiteko gaitasuna zehazten da, sor zitezkeen epidemiak ekiditeko.

Bigarrena 1897ko abenduaren 31an Enrique Epalzak egindako memoria da; zeinen helburu nagusia, Vista Alegreko lanen egoera ezagutzera emateaz gain, Udalerririk Tren Konpainiak emandako lurren arduradun egin zenetik sortutako jazoera desberdinak biltzea zen. Behin ikertuak, hauei amaiera emango zieten akordioak hartuko ziren.

Garamendik gaixotu eta lanak behin betiko utzi baino pixka bat lehenago sinatutako lehen txostenak, oinarrizko proiektua bere funtsezko ataletan eta atal

funtzionaletan ikasita eta garatuta zegoela baieztatzen zuen. Lanen gauzatzea bi fasetan banandu zen. Lehenengoak, berehalakoenak, zementu-eremua gerora erabiltzeko egokiak ziren gutxieneko azpiegitura eta urbanizazio kontuei erantzuten zien itxitura, espaloiak eta arekak eginez. Eta beste alde batetik estolda-saila saneamendu biltzailearekin batera, ezinbestekoak Hilerriaren funtzio nagusia betetzeko, higienikoa.

Lanak erritmo onean aurrera egin arren, Garamendik urtea amaitu baino lehen bukatutzat ematen zituen Tren Konpainiak bere jabetzako etxola batek okupatzen zuen lur eremu bat libre uzten bazuen.

Bigarren fasean azpiegitura eta garbitasun lanak jarraitu zituzten, zerbitzuekin erlazionatutako beste batzuekin batera. Honako leku hauen eraikuntzak aurreikusi ziren: kaperak, gorputegiak, kapilauaren eta ehorzlearen etxeak, autopsia-gela eta kapera inguratzen zuten gelak. Leku hauek komunitaterako zerbitzu zehatzak eskaintzen zituzten gorpua hilerriara heltzen zenetik lurperatu arte. Garbitasunari dagokionez, filtroak eta uren dekantaziorako deposituak sortuko ziren, Asua ibaira zihoan estolda-bateratzailearen isurbidearekin batera.

Epeei dagokionez, Garamendi arkitektoak lanen iraupena zehazteko ezintasuna adierazi zuen, oraindik izapide fasean bait zeuden, baina egin ahal zituen aurreikusiak adierazten ditu. Bi urteko epea ezarri zuen hilerriaren funtzionamendu egokirako, eta hiru urtekoa galerietarako.

Txosten honek erakusten digu tokiko oinarritzko urbanizazioa lehenetsi zutela hiribilduaren beharrei erantzuteko, hau da, gorpuk hobietan lurperatzeko beharra lehenetsi zutela, eta eraikinak gerorako utzi zituztela. Hala ere, planteamendu hau praktikoa zirudien arren, arkitektoak ez zuen uste Mallonako kaperauak lurperatzeak egin ahalko zituenik emandako epean.

Garamendik aipatzen zuen epea Mallonako kaperauak alkateari zuzendutako gutun batean oinarrituta zegoen. Bertan, hilobi komunarako lur eremua urte baterako soilik erabilgarria izango zela baieztatzen zuen kaperauak.

Gutun honekin Mallonako hilerriaren asebetetzearen beldurra berpiztu zen. Arkitekto horren indarra galtzea, ordea, bertan behera geratzen zen bere gaitasunen aurrean, Mallonako lurzoruaren egoera zehatza zifrekin frogatu baitzuen txostenean. Datu horien ondorioak ziurrenik garbitasun eta gizarte arazo honetarako konponbidea aurkitu behar zuten arduradunak baretuko

zituzten. Arkitektoaren arabera bazegoen gorpuak bi urtez lurperatzeko lur eremua eta, horiek igarota, aurretik erabilitako hobiak berrerabili ahalko ziren gorpuak atera ondoren, hori egiteko hiru urte igaro behar ziren eta.

Halaber, bazeuden hilerri berria eraikitze lanak gehiago oztopatzen zituzten zailtasunak. Gobernatzeko Batzordeak alkatetzari eskatu zion Lezamako Tren Konpainiarekin bitartekari lanak egin zitzala lur eremua behin-betiko lortzeko. Alkatetzak eskatu zuen konpainiak zorua karga orotatik libre uztea, Udalak erabat itxi ahal izateko.

1896ko uztailean kontratistak hilerriaren itxieraren lehen faseko lanak eman zituen, baina oraindik hogeita bat metro baino gehiago geratzen ziren ixteko Erlecheseko errepidera irtenbide zuzena zuen partikular baten etxola bat zegoelako. Memorian ikus daiteke Epalzak etxola aurretik antzeman zuela, baina jabetzaren aktan eta lursailen eskrituretan ez zen aipatu. Egoera hau eragotzi egiten zuen harresia ixtea Trenbidearen Konpainiak arazoa konpondu arte, eta Udalak behin baino gehiagotan eskatu zion Konpainiari arazoak konpon zitzan. Egoera honen ondorioak hondamendia izan zitekeen, arlo honen legediaren betebeharrean berehala ikusten baitzen. Horrek hilerriaren irekierarako baimena oztopatzen zuen lurperatzeak premiazkoak bihurtzen baziren.

Itxieraren kontua ez zen hilerria berehalako erabilera oztopatzen zuen arazo bakarra. Arazo honi Asua ibairako estolden konponbidea elkartu zitzaion. Hau, gizarte osasungarritasuna eta saneamenduaren ikuspuntutik, nahitaez konpondu beharrezko gaia zen hilerriaren irekierarako baimena lortzeko. Puntu hau zuzen lotuta zegoen 1893ko martxoaren 31ko Errege Aginduarekin, hilerria hura betetzeko baldintzapean eraikitzea baimentzen zuena.

Proiektuak estolda-sarearen uren bilketarako neurriak hartu zituen eta dekantazio eta iragazkirako depositu bakarra proiektatu zen, ondoren urak Asua ibaian husteko. Udalaren Osasun Batzordearen oniritzia falta zen eta 1896ko martxoan eskatu zieten.

Garamendik irtenbide onena bilatzen saiatu zen beti eta horregatik proiektuaren parte hori hastea erabaki zuen baimena eskatzen zuten bitartean.

Beste alde batetik, kapera eta gorpuen biltegia bezalako eraikin garrantzitsuenen eraikuntzaren atzerapenak hilerriaren erabilpena oztopatzen zuten. Arazo honi aurre egiteko eraikinak egurrez egitea proposatu zen lehenbailehen erabili ahal izateko.

Proposamen honekin gorpuak hileta-eginbeharrak baino lehen biltegian gordetzearen erabilpena beteko zen. Gainera, kaperaren eraikuntzak hileta-liturgia emateko lekua ahalbidetzen zuen eta horrela kontu erlijiosoari ere irtenbidea emango zitzaion.

1896ko azaroaren 26an Echeverria udal-gizonari eta Epalza Udalerriko Arkitektoari bidalitako gutun batean Tren Konpainiako Presidentearekin irtenbidea bilatzeko izandako batzarra laburbilduta agertzen da. Batzar horretan hilerriaren egoera bereziari buruz hitz egin zen, hau da, trena hilerri zaharra eta berria lotzeko erabiliko zela. Bi hilerrien arteko adarra planteatutako moduan egiteko ezintasuna azpimarratu zen. Hilerri batean desegokia izango litzateke trena hilobien artean ibiltzea, zerbitzua oztopatuko baitzuen. Egokiena adarra hilerriko tapien ondoan bukatzea izango litzateke, behi-behineko biltegia horra mugituz.

Trena trantsizioaren ikur bihurtu zen, arimaren bidaia eta XX. mendeko modernitatea bateratzen zuen. Trena loturatzat erabiltzea gustuko ez zuten iritziak ere egon ziren, teorikoki zerbitzuaren ongizatea oztopatuko baitzuen.

1897ko irailaren 30ean, Garamendiren txostenaren ondoren, Epalzak txosten berri bat goratzen dio Gobernatze Batzordeari. Bertan Garamendik egindako aurreko txostenean azaldutako arazoak oraindik konponbiderik ez zutela azpimarratu zuen. Aldaketa bakarra etxadiaren lanak bukatu zirela izan zen eta bide berri batzuk ireki zirela proiektuarekin batera. Gainera, lurperatzeak hurrengo urteko apirilean hasi zitezkeela azaldu zen.

Hilerriaren eraikuntzarekin jarraitzeko konponbideak ez ziren bakarrik Udaletik kudeatzen, Tren Konpainiak ere parte hartu behar zuen oraindik konpontzeko zain zeuden bi gaietan: itxiera oztopatzen zuen etxolaren gaia eta Mallonako trenbidearen adarraren gaia.

Vista Alegre hilerriaren lanen bukaerarako data konkretu bat ematea zaila bada ere, hainbat txosten hartzen dira erreferentzia bezala: Barneko Legegintzari aipamena egiten dioten txostenen datak, hilerriko zerbitzuen langileen kontratazioa edo Mallonako hilerri zaharreko (San Vicente hilerriarekin batera) eta Vista Alegre berriaren arteko hilobien konpentsazioa. 1901ko azaroan lanak bukatzeaz zeuden eta inaugurazioa laster egingo zuten.

Mallonako hilerriaren asebetetzearen arazoak instantzia eskudun guztiak gainditu behar izan zituen. Burokraziaren moteltasunak konponbidea atzeratu

zuen 1884tik, Mallonaren lehen zailtasunak planteatu ziren urtetik, 1902ra arte, bedeinkatu eta inauguratu zen urtean. Denbora gehiegi behar izan zuten hiriaren osasungarritasuna erasotzen zuen hain kontu larria eta delikatu konpontzeko. Hiriaren biztanleriak desorekatua zegoen azpiegiturarekin konparatuta XIX. mendeko bukaeran, gehien bat heriotza tasaren handiagotzean.

1902ko apirilaren 14an Gobernatzeko Batzordeak alkateari zuzendutako gutunean hurrengo hilabetearen bukaerarako inaugurazio ekitaldia egitea eskatu zion. Horrela, hilerri berriaren eraikuntza prozesu luzeari bukaera emango zioten. Horregatik inaugurazio ekitaldia okasioa merezi zuen bezalakoa izan behar zen. Zeremonia lurperatzeak egiteko lurra bedeinkatzetik pasatu behar zen; hilerriak udalkotzeko prozesuak hauen administrazioa, zainketa eta zuzendaritza udalari egokitzen zitzaiola esarri arren, gizarteak zorua sakratua izan behar zela argi utzi zuen.

Zeremonia horretan ospatutako liturgia Erromatar Erritualaren arabera egin zen. Honetan hilerri osoa hartzen zuen eszenografia islatzen zen eta nabarmenezko elementuak aurkezten zituen; hala nola, beltzez margotutako gurutzeak, hilerriaren erdian eta lau hertzetan kokatuak, edota hiru kandela gurutze bakoitzaren aurrean, apaizak gero gurutzearen buruaren eta besoen gainetik pizturik goratzen zituenak. Ihintzadurarentzat ere gatz, intsentsua eta urez betetako ontziak erabili zituzten. Eta soinu-osagaiak ere erabili ziren, adibidez, sermoiak, otoitzak (ahotz aldaketekin) eta kantikak. Bukatzeko, hilerriaren inguruan eskumatik ezkerrera zihoan ibilbide bat ezarri zuten eta bidearen bi aldetara ur bedeinkatua jaurtitzen zuten, gurutze bakoitzean geldituz intsentsatzeko. Erritu funtzioaren osotasuna momentu horretan erakusten zen eta hilerriak higiene funtzioaz aparte garrantzi sakonagoa hartu zuen. Gainera, kaperan ere inaugurazio meza bat gauzatu zen.

Ikur-funtzioaren garrantzia inaugurazio aktan ikus daiteke, atal zehatz bat baitu berarentzat bakarrik. Inaugurazioaren garrantzia zela eta, hiribilduaren hogeitahamar pertsona ospetsu inguru bertara hurbildu ziren; hala nola, herri-erakundeen eta elizaren ordezkariak eta lanen Arkitekto Zuzendariak, Enrique Epalza y Chanfreau jaunak.

Azpimarratu beharrekoa da bai egiletasun bikoitza baita Garamendiren garrantzia diseinuan, txostenen elaborazioan eta gaur egun ezagutzen dugun hilerriaren sorreran. Baina 1896tik aurrera, bere osasun ahula zela eta,

txostenetan eta dokumentuetan ez da bere sinadura agertzen eta 1899an hil zen. Hortik aurrera, hilerriaren eraikuntza Epalzaren ardurapean geratu zen.

1896ko ekainean proiektua planteatuta zegoen. Planoen ikuspegi zatituak honako hauek erakusten ditu: oinplanoaren banaketa orokorra, harresien, hesien eta itxiturako ateak galeria estaliko kapera, kaperaua eta ehortzailearen laguntza-erakin bikiak eta, azkenik, epailearen eta gorpuen depositu bikiak eta hilerriaren forma. 100 urte baino gehiago igaro ondoren hilerriak gaur egun duen itxura ia bat egiten du hasierako proiektuarekin, hau da, Garamendik zuen ikuspegia mantentzen da.

Hilerria XX. mendearen hasieran eraiki zuten arren, izaki bizidun bat da eta denbora aurrera egin ahala aldatzen eta eraldatzen joan da. Ikuspegi zaharrak berriekin nahasten dira hilerria hiribilduaren eta bere biztanleriaren pentsaeraren aldaketen ispilua bihurtuz.

Garamendiren proiektua sentiberatasun estetikoa zuen, baina nabarmena da osasun-funtzioari garrantzi gehiago eman ziotela; hau da, hilerria ebakuazio lekua eta depositu bezala erabiltzeko garrantzia azpimarratu zen. Higiene behar honek ekarritako konponbideek beste arazo bat ezagutarazi zuten: aro horretako sentiberatasun berriari itxura egoki bat ematea hilerriari.

Vista Alegreko hilerriak gertuen zuen erreferentzia Mallonako hilerria zen, neoklasiko estiloan eraikita. Arkitektoaren hitzetan, antzinako munduko tradizioak berreskuratzen zituen estilo hau, funtsean, paganoa zen, eta arte galtze batek bakarrik ahalbidetu zuena eraikuntza erlijiosoetan erabiltzea. Latindar-bizantziar estiloa eta erromanikoa bertako estiloak ziren bere iritziz, baita Espainiako arkitektura kristauaren parte. Hori zela eta, estilo horiek erabili zituzten forma bereziak eta ojiba-deribazioak nahastuz, eraikin moderno bat egiteko beharrezkoa den askatasun zuhurraren barruan.

1895erako Enrique Epalzaren irudia pisu gehiago lortzen joan zen proiektuan, honek gaur egun nabariak diren eta proiekturako garrantzitsuak izan ziren osagai batzuk diseinatu baitzituen: kaperaren apsidearen atzeko aldean kokatu zen harmailadia eta balaustradaren diseinua, kale batzuen urbanizazioa, barrutiaren funtzionamendurako beharrezkoak ziren bulego txikien eraikuntza (hezurtoki eta lantze tailerra) eta lurperatze kategoria ezberdinen eraikuntzen diseinua. Enrique Epalza Vista Alegreko hilerriaren sorreran eta eraikuntzan garrantzitsua izan arren, are garrantzitsuagoa da bi arkitektoen lankidetz

onartzea, Garamendik Bilbo industrialaren hilerri berriaren diseinuan lagundu baitzuen.

Hilerria eta hiria banaezinak dira, hilerria ez da hildakoak lurperatzeko lekua bakarrik, baizik eta hiriaren zabalkundea ere. Epalzaren hitzetan, altxatutako eraikinak Bilbo bezalako hiri jakitun baten hilerri modernoak izan behar duen izaera serio eta aldaezinarekin bat egiten zuten. Horregatik, eta hilerriaren betikotasunaren ideia mantentzeko, harlanduzko materialak erabili zituzten margoak eta material suntsikorren orde.


Hilerri modernoek eraikuntzak zabalguneen diseinatzaileen alderdi berberak izan zituen kontuan: klimatologia eta lekuaren ohiko haizeak zuten norabidea; lekuaren heriotza-tasaren kalkuluak; kaleen antolamendua eta ibilbideak; etxadien kokapena; enparantzak, ibiltokiak eta eraikin publikoak; sarbideak eta, gehien bat, korrante higienistak ekarritako osasungarritasun baldintzak.

Tokien antolamendua eta alderdi guztien arrazionalizazioa areagotu egin ziren laukia erabiliz. Ondorioz, XIX. mendetik aurrera egin ziren hilerrien diseinua geometrizatu eta espekulatiboaren bidez eraikitako etxadiak dira.

7 Pertsona ospetsuak

7.1 YBARRA FAMILIA (XIX-XX)

Ybarra familiaren aberastasuna eta enpresa leinua ezin dira azaldu Bizkaian burdinak izan zuen gorakada eta garrantzia gabe, nahiz eta bere enpresa-arrakasta hiribilduan kokatutako denda txiki batean hasi, mota guztietako generoak saltzen, mailegu ematen eta bezeroen zorrak kobratzen. Bertan bere lehenengo dirutza lortuko zuten, enpresa hedapen handi batekin industrializazioaren estandarte izatera iritsi ziren Euskal Herrian eta Espainian.



28. irudia. José Antonio Ybarra
de los Santos
<https://bit.ly/2YeeKRX>

Beraien lehen jarduera industrial burdinola izeneko fabrika protoindustrialen merkataritzan oinarritu zen. Ybarra familiak bitartekari bezala funtzionatzen zuen, hau da, haiek burdinolei behar zuten materialak ematen zizkieten eta produktuei irteera ematen zieten. Horrela,

mailak igotzen joan ziren Espainiako iparraldeko bitartekari nagusienetariko eta estatu-mailako handienetarikoa izatera heldu ziren arte.

Enpresa–dinastiaren benetako hazkundera eta sorrera merkatu protekzionistaren eta aduana-batasunaren abolizioaren ondoren etorri zen, 1841ean, Lehen Gudu Karlismen ostean. Hemendik aurrera beraien interesak ez ziren bakarrik merkataritzakoak izango, baizik eta industriar interes handia erakusten hasiko ziren, eta burdinolen negozioak ustekabeen behera egingo zuen bitartean, legediaren babesik gabe ezin baitziren lehiatu Europako siderurgia aurreratuekin. Ybarra familiak norabidea garaiz aldatu zuten arren, beste merkataritza batzuek aurrea hartu zieten eta Euskal Herriko lehen fabrika modernoa eraiki zuten Boluetan (Santa Ana de Bolueta). Azkenean, olagizonek merkatutik kanporatu zituzten eta Ybarrak, Kataluniako kapital berriei elkartuak, industria siderometalurgikoan ekin zioten beren enpresa-ibilbideari.

Ybarra familiako kideak ezkontzen bidez boterea handitu zuten. Beste familia batzuekin elkartzek, haien bezain aberats eta boteretsuekin, beren interesen irismena hedatzea ahalbidetu zien. Beste ezaugarri esanguratsu bat bere interesek oso goizetik lortu zuten hedapena izan zen. 1830etik aurrera, burdinolatik eta merkataritzaren eta biltegien negozioetatik lortzen zuten burdinak Espainia osoa hartzen zuten eta penintsulako punturik estrategikoenetan zeuden. Madrilan eta Sevillan harreman ugari zituzten, eta horrek herrialde osoan merkataritza bereganatzea ahalbidetu zien. Baina kontaktuak ere zabaldu egin ziren, eta batzuk atzerrian kokatzen ziren, siderurgia modernoak sortzeko giltzarri izanik, hau baitzen berrikuntza guztiak eta euren proba eremua lortzen zuten tokia.

Berrikuntza arriskutsuenak Europatik zetozen, eta hartu zituzten ia erabaki guztiak egokiak izan ziren, 1850ekoak izan ezik. Hamarkada horretan, teknologia-disjuntiba bat izan zuten, hau da, haien siderurgiek Chenot izeneko labe-prozesu bat erabiltzen zuten, beren garaiko estandarra zena. Bere garaian prozesu hau iraultzailea izan zen arren, erregai kopuru izugarriak xahutzen zituen eta beste aukera bat bilatzen hasi ziren bere modu handiak handitzeko. Beste prozesu hori Bessemer prozesu ospetsua izan zen, erregaia erabili beharrik gabe burdina altzairura bihurtzea errazten zuena. Ingalaterran egin ziren lehen probak ez ziren guztiz onak izan, asmakizunak gaztaroko arazo asko baitzituen. Jose Maria Ybarra eta Jose Villalonga erakustaldian izan ziren frogak ikusten, eta Espainian soilik erabiltzeko patentea lortzeko negoziatu zuten. Beraien instalazioetan altzairu gozoarekin egindako lehen probak onak izan ziren, baina urte askotara arte ez

zuten benetan ezarriko, ezin baitzen edozein altzairu mota erabili, eta horrek ekoizpen-aukerak mugatzen zituen.

Akats hori gorabehera, Karmengo fabrikak funtzionatzen jarraitu zuen eta inoiz ez zuen galerarik pilatu, bere produktuen kalitateari esker eta lehengaia lortzeari eta Ybarra taldearen hedapen komertzialari dagokionez dituen abantailengatik.

Lehenengo Gudu Karlistaren etenaren ostean, Ybarrak dirua irabazten jarraitu zuten. Alde batetik armada liberala lagundu zuten eta, bestetik, euren kontaktu sarearen bitartez garia ekartzen zuten, la gari-monopolio komertzial gisa jardunez setiatutako hiribilduan eta Espainiako iparraldean. Eten horren ostean Europako industriak Bessemer sistema sartu zuen eta metalen eskaera onura handiak ekarri zizkion Ybarra taldeari, bere irabaziak meatze-arro ezberdinetan birinbertitzen zituztelako, bere jabetzako estatuko garrantzitsuenak zirelarik, Somorrostroko haztegia kasu. Ybarra taldea estatuko meategien jaberik handienetako bat izan zen, eta euren lehiakideek baino kanon altuagoak hitzartzeko trebetasuna izan zuten, euren arroetatik minerala ateratzeko.

Aldi berean, BLB/AHB (Bilboko Labe Garaiak / Altos Hornos de Bilbao, AHB) sortu zuten, Comillasen markesaren, Altzarien Kredituaren eta Ybarra Taldearen arteko elkarketagatik.

1876ren ondoren sortutako negozio aukerek atzerriko eta lekuko inbertsioak sustatu zituzten, bai meategien sektorean zein altzairuaren garai berrian, erauzketa industria baino etekin gehiago ekartzen zituztenak. Gainera, beraien interesak indartu zituzten ezkontzen bidez, bai lekuko merkataritza-etorkiko familia, bai kanpoko enpresariekin.

Gero BLB/AHB beste burdingintzekin eta beste enpresa-taldeekin elkartu zituzten BLB/AHV (Bizkaiko Labe Garaiak / Altos Hornos de Vizcaya) lantegi erraldoiak sortzeko.

Ybarra familiaren ezaugarria da oinorde kopuru handia izatea eta haren funts guztiak non dauden jakiteko ikerketa ia ezinezkoa egitea. Denbora eta belaunaldiak aurrera egin ahala leinuaren izaera enpresariala galtzen joan zen, eta inbertitzaileen rola hartzen joan ziren. Kapitalak oinordetzan hartu ziren eta trenbideetan, industria kimikoan, ontzigintzan, siderurgian, papergintzan eta abarretan inbertitu zituzten. Ybarra taldearen garrantzia argi geratzen da

aipatzen bada 1921ean lau Ybarrak berrogeita sei postu betetzen zituztela Estatuko industria garrantzitsuenetako administrazio kontseiluetan: BLB/AHV (Bizkaiko Labe Garaiak / Altos Hornos de Vizcaya), Sociedad Española de Construcción Naval, Sociedad Española de Minas del Rif, Hidroeléctrica Española, Banco de Vizcaya, etab.

7.2 TOMÁS ALLENDE (1848-1935)

Tomás Allende Alonso (1848-1935) euskal industrializazioaren bakarkako enpresari garrantzitsuenetariko bat izan zen XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran. Burón-en jaio zen, Leon-en kokatutako herri bat, bere gurasoak Matías Allende Allende eta Petra Alonso Díaz deitzen ziren eta herri berekoak ziren.



2 Irudia. Tomas Allende Alonso jaunaren erretratu, egilea: Sorolla Bastida, Joaquín.
<https://bit.ly/30LgfoA>

Bere lehenengo ikasketak herri horretan egin behar izan zituen, baina harreman estua zuen bere osaba Manuel Allende Villaresekin, Burón-eko enpresaria zena. Harreman honek bere bizitza erabat aldatuko zuen betirako, 1864aren inguruan Bilbon ezarri baitzen eta berarekin meatzaritzan eta burdinaren negozioetan hasi zen. Baliteke bere ikasketak hiribilduan jarraitzea eta bere osabaren alabarekin ezkondu zen, Maria Allende Plagaro izenekoa.

Guda Karlistaren ostean, Bizkaiko meatzaritzaren hedapenarekin batera, osaba eta iloba 1880an Bizkaiatik kanpo kokatutako hainbat meategi erdi bana erosteko elkartu ziren. 1881n ere elkartu ziren mineralak erosteko, zehazki burdinaren mineralerako Bilbon.

Manuel 1881ean erregistratu zuen behatze mekaniko bat asmatu zuen. Honek neurri handi batean, mineralen erauzketa lanak errazten zituen, asmakizun honekin burdin mineralak automatikoki garbitu baitzitekeen, arrastelurik eta aitzurrik erabili behar gabe. Metodo askoz azkarragoa eta eraginkorragoa zen, eta horregatik Sustapen Ministerioak saritu zuen. Baina hori ez zen Allendetarren asmakuntza bakarra izan, hauek, aireko tranbien erabilera bultzatu zuten, mineral arrotik ontziratze puntura egiten zen mineralaren garraiorako sistema bat, airean esekita zeuden bagoi eta kable batzuen bidez, garraioa izugarri merketuz eta dinamizatuz.

Meatzaritza ustiapenak garrantzi handia izan zuen bere negozioetan, batez ere Bizkaiko burdinak, nahiz eta Leongo ikatzarekin ere saltzen zuen. Horrek onura ugari ekarri zizkion, eta erauzketa sektorean berrinbertitzen joan zen, Estatuko meategien jabe handienetako bat bihurtuz.

Beste proiektu batzuetan ere parte hartu zuen Victor Chavarrirekin, ez bakarrik meatzaritzan oinarritutakoetan, baizik eta lehergailuen fabrika bat eta beira fabrika bat muntatu zituzten eta Bilbo eta Santurtzi eta Bilbo eta Las Arenasen arteko trenbideetan inbertitu zuten.

Honako hauen sortzaileetako bat izan zen: Unión Minera de Bilbao (1901), Ferrocarril de La Robla (Bilbo-Leon), Hospital Minero de Triano, Ferrocarril de Elgoibar a San Sebastián, etab.

Azkenik, aipatzekoa da pertsona ospetsu honek erabat eraldatu zuela hiribildua, lursailen salerosketan, higiezinaren eraikuntzan eta espekulazioan aritzen baitzen. Leonardo Rucabado arkitektoarekin lan egin zuen eta berarekin hiriko higiezinaren handietako bat bihurtu zen, Campo Volantin eta Indautxu bezalako eremuak indartuz eta kolonizatuz. Higiezin-operazio honen ondorioz, gaur egun ere, Indautxuko jauregi batek irauten du, Casa Arróspide izenekoa, garai hartan hiriko periferia berean zegoena. Obra hau Severino Achucarro arkitektoari enkargatu zitzaion eta bere barnean Daniel Zuloaga zeramikari ospetsuak apaindu zuen. Jauregi horren inguruan beste batzuk eraiki zituen bere seme-alaba eta senideentzat.

Politikaren arloan ere nabarmendu zen, Ekoizleen Liga Nazionalaren (1896-1898) parte izanik, eta Riañoeko Kongresuan (Leon) diputatu izan zen Alderdi Kontserbadorean. 1899 eta 1918 bitartean, Leongo probintziako senatari hautatu zuten, eta hurrengo legealdietan, 1919 eta 1923 bitartean, Soriako probintziako senatari. Azkenik, aipatzekoa da Primo de Riveraren diktaduran Bizitza Nazionaleko Jardueren ordezkaria izan zela Batzar Nazionalan bi legealditan, 1927 eta 1929 artean.

7.3 CASILDA ITURRIZAR ANDREA / TOMÁS JOSÉ DE EPALZA (1826-1900) (1798-1873)

Casilda Iturrizar andrea 1826aren inguruan jaio zen, Joaquín Iturrizar Basaberen alaba izan zen, merkatari oso xumea. Bere ama Eugenia de Urquijo e Isurtegaray deitzen zen, Begoñakoa zen eta bere senarra baino maila ekonomiko onberagoa zuen, garrantzi handiko dote bati esker. Aita hiltzean, familia egoera ekonomiko are delikatuagoan utzi zuen.

Horregatik, Casilda Bilboko merkataririk oparoenetako baten zerbitzuan sartu zen, Tomás de Epalza (1798-1873). Hark eta bere emazteak 1847an auzi bat hasi zuten, senarraren dibortzio demanda batengatik. Tomas Epalzak elizako dibortzioa lortu zuen arren, 1857ra arte ez zen ezkontza baliogabetu, bere emaztea hil ondoren. Bi urte beranduago. 1859an, Casilda Iturrizar eta Tomás José de Epalza ezkondu ziren San Nikolas elizan.



3. irudia. Casilda Iturriza Andrea.
<https://bit.ly/2JYNYUu>

Bere gaztaroan merkataritzan egindako inbertsioei esker, Tomás José de Epalza Kubara joan zen eta bere aberastasuna lantzen hasi zen. XIX. mendearen erdiko hamarkadetako merkataritza nagusietako bat izan zen eta oso egoera ekonomiko eroso zuen. Hiribildua jasaten ari zen aldaketa handien adibideetako bat zen: Santa Ana de Boluetaren bazkide fundatzailea izan zen (1841) eta hainbat kargu bete zituen bere administrazio-kontseiluan, hau izanik Euskal Herriko lehen siderurgia modernoa eta Espainiako lehenetarikoa. Bilbotik Tuterara doan trenbidea eta Banco de Bilbao (1857) ere sustatu zituen. Merkataritza garrantzitsua eta errentari handia zen, eta bere jabetzak hiri osoan zehar hedatzen ziren, Portugaleteraino. Gainera, Espainia ordezkatu zuen trenbidearen sozietate eraikitzailean, frantsesek parte hartzen zuten Irun eta Madril arteko Trenbidearen Konpainian. Isabel II.a Bankuaren interesak ere ordezkatu zituen.



4. irudia. Tomás José de Epalza.
<https://bit.ly/2GyOzM3>

Gainera parte-hartze politikoa izan zuen tokiko eta probintziako gobernu organoetan, 1838 eta 1839an udal gobernari izatera iritsiz. Liberalismo moderatu foruzalearen printzipioetan oinarritzen zen bere ideologia, baina askotan bere interes ekonomikoen mesedetan bere idealak traizionatzea leporatu zitzaion, euskal ekonomiaren babesaren aurka jokatzuz eta printzipio liberalago batzuen alde eginez. Gorteetarako diputatu izateko hautagai izan zen 1836, 1837 eta 1839an, eta 1843an ordezkari diputatu aukeratu zuten.

Tomás José de Epalza hil zenean Casilda Iturrizar “Epalzaren alarguna” gehitu zion bere sinadurari. Berak bere senarraren negozioekin jarraitu zuen, arrakasta nabari batekin, hiribilduaren biztanle

aberatsenen artean agertuz. Maila handiko merkataritzan inbertitzeari utzi zion, baina sektore berrietan inbertitu zuen, hala nola trenbidean (Bilbotik Portugaletera eta La Roblara) edo ikatz meatzaritzan. Higiezin inbertsio handia ere egin zuen Campo Volantinen. Tivoli kaletik gertu dirudunentzako hainbat etxebizitza sustatu eta eraiki zituen, eskolak kale berean eraikitzeaz gain.

Bere posizio soziala zela eta, ekitaldi sozial ezberdinez gozatzen zuen, antzokia eta zezenak azpimarragarriak zirelarik. Arriaga Antzokia altxatzeko eta administratzeko 1886an eratu zen Bilboko Teatro Nuevo sozietatearen akziodun nagusia izan zen.

Baina aipagarrienak ongintzako inbertsioak izan ziren, hala nola Irakaskuntza Katolikoko Sozietate Anonimoan, gazteak giza jakintzaren adar guztietan hezteko eta irakasteko, erlijio katolikoaren printzipioen arabera. Helburu berarekin, eskola ezberdinen sorrera sustatu zuen, eta jesuitekin egindako akordio baten bidez, egungo Deustuko Unibertsitatearen enbrioia sortu zuen.

1891ean Fundazio Katolikoan eta Langileen Patronatuan parte hartu zuen, langile-klaseari irakaskuntza, moralizazioa eta erabateko doako babes emateko.

Errondako kaleko bere etxean, Rafaela Ybarra idazkariarekin batera, Familia Santuaren Elkartea biltzen zen, eta han langile, neskame eta prostituta babesgabeentzako gaueko eskola bat mantentzen zuten. Halaber, hainbat inbertsio egin zuten, hala nola Ospitale Zibilean, Miserikordian, Sehaska Etxea, etab.

1900ean hil eta gero ez zituen oinordekorik utzi, baina bere testamentuan jada ebatzi zuen baliabide gehienak obra sozialetara zuzenduta zeudela, hala nola, lehen aipatutako eskolei eusteko Bilboko Udalera bideratutako dirua. Ekarpen handi honekin, Huertas de la Villan haur eskola bat eraiki zen. Ospitale Zibilari, Aita Santuari, Bizkaiko Erakusketa Etxeari, San Vicente Pauleko Patronatuari eta Portugaleteko Erakusketa Elkargoari legatuak egon ziren; azkenik, dirua eman zien umezurtzei eta babesik gabeko familiei.

Hil ondoren, hiribilduak, Gregorio Balparda Bilboko alkatearen aginduz, estatua bat eraiki nahi izan zion, Plaza Eliptikoan jarri zena eta Agustin Querol eskultore katalanaren lana zena. Gaur egun, Casilda Iturrizar parkean dago.

Hiribilduko kale-izendegian bi aldiz agertzen den pertsona bakarra da: lehena ahateen parke ospetsuari izena ematen, eta bigarrena, berriz, Viuda de Epalza izeneko kaleari. Gainera, Basurtuko Ospitaleko pabiloi bat du bere izenean, dohaintza eskuzabala egin baitzuen beste hiriburu pribatu batzuekin batera ospitale modernoa eraikitzeko.

7.4 JUANA MIR (VISTA ALEGREKO HILERRIAN FUSILATUA) (?-1937)

Juana Mir ipuin, kontakizun eta antzerki idazlea izan zen, baita kazetaria. Bere aitak eragin handia izan zuen berarengan Victoriano Mir y Mata kazetaria izan zen eta. Bere aita Arana anaiek, Sabino eta Luis, sortutako eta zuzendutako *El Correo Vasco* lehen egunkari nazionalistaren zuzendari izendatu zuten.

Bere lehenengo bizilekua Bilbon 1910ean izan zuen, eta Iralabarri auzora joan ziren bizitzera. 1915etik fusilatu zuten arte Euskalduna kalean bizi izan zen.

Bere lehen idatziak 1923koak dira, *Euskal Herriaren Alde* izeneko aldizkari batean, non 1928ra arte kolaboratu zuen, ohiturazko kontakizunak argitaratuz.

Ateneo Navarrokekin ere harremana izan zuen, denbora tarte horretan liburutegi bat ireki nahian zebilena, eta Juanak beraiekin kolaboratu zuen irekiera ekitaldian, non bertako lurrari buruzko hitzaldiak egiten zituzten, hau da, Nafarroari buruzkoak. Gainera, bere bizitzan zehar haurrentzako ekitaldi ezberdinak antolatzen zituen, antzerkian jarduteaz gain.

Euzkadi egunkariko argitalpen-taldearen "La tarde" egunkarian kolaboratu zuen. 1930era arte Juanita Mir izenarekin sinatzen zuen, poesia tartekatzen zuen narratibarekin eta gai hutsalekin lotutako artikuluekin.

Bere ikuspegi antibelikoak bere artikulurik onenetako batean islatuta geratuko zen, "Solo fue un sueño" izenekoa, non gerrarik eta mugarik gabeko mundu bat proposatzen duen; hemen ustelkeriaren eta diruaren aurkako bere iritzia osatzen hasiko litzateke.

1934an, krisi latzak eta urriko gertaera tragikoekin amaitu ziren etengabeko grebak zirela eta, emakumeei dei egin zien Gobernuari errukia eska ziezaioten egoera horren aurrean. Gerrak gutxi batzuek etekin ekonomikoak izan zitzaten erabiltzea ere salatu zuen etengabe. Apurka-apurka bere ikuspegia aldatuz joan zen, eta Europako nazioei errua bota zien, gerra langabezia eta krisi ekonomikoa murrizteko tresna eraginkor gisa erabiltzearen ondorioz, hiltzen ez zutenek lana lortuko zutelako.

1936an zehar, egunkariak gerratik ihes egiten zutenentzat tresna bihurtu ziren, eta familiek aurkitu ahal izan zituzten. Gerrako aurrerapena gero eta handiagoa zen, eta hortik aurrera "Heroismoa eta sakrifikoa" baino ez zuen idatziko, biztanleria zibilak bitxiak saltzea babesten zuen artikulu bat, gerraren gastuak ordaintzeko. Baina bakerako bere nahia inoiz baino presenteago zegoen, eta herritarrek bizimodu lasaia izatea nahi zuen.

1937an atal bat lortu zuen berarentzat, "La mujer escribe" izenekoa, non gerra eta haren hondamenak salatzen zituen, Gernikako eta Durangoko bonbardaketetaraino.

Bere borreroak izango zirenek bere testu guztiak irakurtzen zituzten, baina berak bonbardaketak eta Alemaniarekin eta Italiarekin zituen harreman onak kritikatzeko jarraitu zuen, aberria eta zuen guztia lapurtu nahi izatea leporatuz. Azkenik, bando horrek Gurutze Gorriko langileen eta ibilgailuen aurka egindako jarduerak kritikatu zituen, eta sortu zuten larritasuna eta gurasoak eta seme-alabak banandu izatea, haurrak ebakatu behar zituztelako.

Juana 1937ko uztailaren 6an atxilotu zuten eta Larrinagako espetxera eraman zuten kondenatua izateko, gerra kontseilu bidez 1937ko uztailaren 6an. Heriotzara kondenatua izan zen subertsio gorri-separatistaren propagandista izateagatik eta mugimenduaren ideien aurkako ideiak sartzeagatik. Juanak matxinada militarri atxikitze delitu bat egin zuen, arriskugarritasun soziala areagotuz, eta erru horrek heriotza zekarren berekin. Fusilamenduan laguntzen zioten guztiak gizonak eta langileak ziren, militarren bat, marinelen bat eta margolariren bat izan ezik. Horien artean Melchor Jauregizar Hospitaleche kazetaria ere zegoen.

1938ko urriaren 25ean *Euzkadi* egunkariko zuzendari zen Jose Lekarozek gogoratu zuen azken aldiz haren izena. Hau Gurseko kontzentrazio esparrura konfinatu zuten eta alemaniarrek frankistei eman zieten, hauek heriotza zigorra ezarri zioten eta zigorra biziarteko kartzelara aldatu zioten.

7.5 INDALECIO PRIETO (1883-1962)

Espainiar sozialismoaren pertsona garrantzitsuenetako bat izan zen eta iritzi ugari sortu zituen bere figurari eta ikuspegi politikari buruz, errepublikanismo liberalarekin lotuago zegoena sozialismo tradizionalarekin baino, marxismoarekin eta langileriarekin lotuago zegoena. Bere bizitza publikoa Bilboko Elkarte Sozialistaren kontrola hartzeko bere lehenengo borroketatik gobernu-gizon gisa zuen gaitasunen frogak nabariak lehen aldiz eman zituen arte hartzen du.



5. irudia. Indalecio Prietoren argazkia.:
<https://bit.ly/2Y5z7N0>

Momentu horretan bere alderdiaren eta Espainiako politikaren funtsezko pertsonaietako bat bihurtu zen, Ogasun eta Lan Publikoen Ministro gisa boterera heldu zen arte lehenengo biurteko errepublikanoan.

1883ko apirilaren 30ean Oviedon jaioa, Indalecio Prieto sei urte zituela ekonomikoki hondoratu zen erdi-mailako klaseko familia betatik zetorren. Bere aita hil zenean (Oviedoko diputazioko kontagailua) eta familiako diru-sartzeak amaitu zirenean, Prietoren amak Bilbora joan behar izan zuen hiru seme-alaba txikiekin. Gorteen auzoan ezari ziren, langileen eta prostituten auzoa zena.

Bilbora heldu eta denbora gutxira, Prietok bere lehenengo harremanak garatu zituen muin sozialistekin auzoan zegoen Langile Zentroaren bidez. Hala ere, 16 urte betetzera itxaron behar izan zuen Alderdi Sozialistaren kide bezala onartua izateko.

Prietok gaztetan hasi behar izan zuen lanean txitxiribitxiak saltzen, baita antzerki konpartsa batean ere, non bizitza osoan mantendu zuen generoarekiko gustua eta zaletasuna bereganatu zuen. Geroago, takigrafia ikasi ondoren, La Voz de Vizcayan jartzea lortu zuen. 1901ean El Liberal de Bilbao sortu zenean, egunkari honetara pasatu zen erredaktore gisa, eta korrespontsalia bat ere sortu zuen. El Liberal-ean bere kazetaritza zaletasunak garatu zituen, eta denborarekin ere egunkari hau Prietoren beraren bozeramaile ideologiko bihurtuko zen.

Bere bizitza politiko aktiborako sarrera 1911an gertatu zen, probintzia diputaturako hautagai izendatu zutenean. Baina momentu honetan politiza ez zen Prieto gaztea gehien erakartzen zuen gaia, laster beragatik erakartuta izango zen arren.

1920an aitortu zuen bezala, politikatik irten nahi zuen baina herrialdeko etengabeko bidegabekeriak bertan jarraitzera bultzatzen zuten. 1912tik 1915era Prietok probintziako diputatu kargua bete zuen Bizkaiatik, eta Alderdi Sozialistaren funtsezko figuretako bat bihurtu zen inguruan. Hala ere, 1917an politika behin betiko utzi eta New Yorkera joateko zorian egon zen. Baina Pablo Iglesias Bilbora joateko agindu zion Bilboko sozialisten buru jar zezan eta agindua bete zuen. 1920arte bere handinahi bakarra politika ustea eta lasai bizitzea zen.

Baina asmo hori alde batera utzi behar izan zuen Espainiako politikaren protagonista nagusietako bat bihurtzeko 1939ra arte.

Prietok Bilboko Elkarteko Sozialistaren bizitzan izandako parte-hartzearen ezaugarri nagusia, bereziki 1911tik aurrera, gero eta zorrotzagoa izan zen Facundo Perezagua euskal sozialismoaren lider historikoarekin izandako liskarra izan zen. PSOEko korrante marxista langileekin lerrokatuago zegoen, eta horrek Espainiako sozialismoaren barruan botereengatik eman diren bataila epikoenetako bat sortu zuen.

Prietoren errepublikaren aldeko jarrera, funtsean, honako honetan oinarritzen zen: eskuinaren nagusitasun politikoarekin amaitzeko, Espainiak alderdi errepublikar indartsu eta ondo antolatua behar zuen, monarkiarekin pozik ez zegoen burgesia txikia bilduko zuena, eta zeregin hori ezin zuen bete PSOE, beharrezko baliabideak ez zituelako.

Prietoren errepublikaren aldeko jarrera, funtsean, honako honetan oinarritzen zen: eskuinaren nagusitasun politikoarekin amaitzeko, Espainiak alderdi errepublikar indartsu eta ondo antolatua behar zuen, monarkiarekin pozik ez zegoen burgesia txikia bilduko zuena, eta zeregin hori ezin zuen bete PSOE, beharrezko baliabideak ez zituelako.

1915eko PSOEko Kongresuan, Pablo Iglesias lagunduta, Perezagua Bilboko Elkartearen zuzendaritzatik alde batera utzi zuten modu ofizialean, bi urte lehenago lortu zuen arren, 1913ko hauteskunde-prozesuaren ondorioz. Prozesu horretan, errepublikarren presioak Perezagua Konjuntzioaren hautagaitzatik kentzea lortu zuen, eta haren ordean Prieto jarri zuten, malguagoa eta ez hain gatazkatsua. Momentu horretatik aurrera, bi buruzagien arteko liskarra gero eta bortitzagoa izan zen. Perezagua PSOEren ildoari erroten egin zion aurre, errepublikanoekin hauteskunde aliantza egin izana salatuz. Eta Pablo Iglesias, Perezaguaren lagun handia zena, esku hartzen saiatu zen arren Bizkaiko Elkartearen zatiketa saihesteko, ez zuen egoera konpontzerik lortu.

Azkenik, 1915eko urriaren PSOEren Kongresuko erabakiarekin Prietoren politikaren alde bozkatu zuten eta Facundo Perezagua Alderditik bota zuten, Euskal Herriko sozialismoaren buru bihurtuz.

Madriko garaipena handik gutxira berretsi zen Gorteen distriturako 1915eko azaroaren hauteskunde lokaletan, non Prietok irabazi zuen Perezaguaren gainetik. Historialari batzuentzat, mugimendu hau Bilboko Elkarteko

Sozialistan norabide aldaketa garrantzitsu bat eragin zuen: ildo erreformista ildo marxisten gain garaitu zuen, zeinek Bizkaian kolpe gogor bat jasan zuten. Bizkaiko langile mugimenduaren historiaren garai oso bateko bukaera zen.

Ondorioz, Prietok beste langile-erakundeekin edonolako aliantzak egitearen aurka jarri zen, hasieran cenetistekin (CNTko kideekin) eta gero komunistekin.

Prietoren ekintza politikoarentzat, 1917ko abuztuko greba orokorra eta bere berehalako ondorioak norabide aldaketa erabakigarri bat markatu zuten. Urte honetako udan, gure pertsonaia Bilbon zegoen, erregimen monarkikoa eraisteko helburua zuen mugimendu iraultzaile bat prestatzen saiatzeko, Iglesiasen partetik jasotako aginduaren arabera. Greba orokorrak egitasmo hau zapuztu zuen, bere ustez urte horretan bertan erregimen monarkikoa eraitsi ahal izan zuena.

Grebaren garapenean parte-hartze eskasa izan zuen arren, Prieto Espainiatik ateratzera behartuta ikusi zuen bere burua eta Frantzia errefuxiatu zen, non 1918ko apirilera arte egon zen. Baina Bilbotik Gorteetarako diputatu izateko hautagai izendatu ondoren, Espainiara bueltatzea erabaki zuen, hiribilduan bertan ezkatututa. Bere ezkutalekutik hauteskunde-kanpaina bat prestatu zuen, horren gai nagusia 1917ko greban Bizkaiak izan zuen izate baketsua erakustea zen, eta greba horren solidario aldarrikatu zuen bere burua. Horrela adierazten zuen 1918ko otsailaren 22ko bere Hauteskunde Agirian.

Hauteskunde horietan izandako garaipenak, errepublikanoen eta sozialisten arteko loturari eutsita eta 1917ko grebako liderrak Legebiltzarrera eraman zituen elkartasun-boladan oinarrituta, Indalecio Prietoren bizitza politikoaren alderdi berri baten garapena ekarri zuen, non, denborarekin, maisutasun handia lortuko zuen parlamentuko hizlari gisa. Bere lehen hitzaldia 1918ko maiatzan eman zuen, eta 1917ko Bizkaiko greba deskribatzeari eta aztertzeari eta grebalariek jasandako errepresioari buruzkoa izan zen.

1918ean diputatu hautatua izan eta gero, Hirugarren Internazionalari buruzko eztabaida ira aldi berean gertatu zen. Gertaera honek Alderdi Sozialista bananduko zuen 1919 eta 1921ean zehar eta, hiru Kongresu ondoren, marxismoarekin lotuago dagoen sektore “hirugarrenista” deritzonaren zatiketa gertatu zen.

Indalecio Prietoren jarrera PSOEk Bigarren Internazionalan zuen afiliazio tradizionalaren iraupenaren aldekoa izan zen erabat, eta arrazoi

ideologikoengatik alderdia zatitzearen aurka egon zen argi eta garbi. Horrela 1919ko Kongresuan Hirugarren Internazionalari leporatu zion sozialismo mundialaren zatiketa eragitea, eta leninismoaren garrantzia txikiagotzen saiatu zen tradizio sozialistaren barruan elementu ideologiko gisa. Urte bat beranduago, alderdiak ezkerreara aldatu zen, eta Hirugarren Internazionallean sartzea gehiengoz onartu zen.

1921ean, banaketa bideratu zuen Kongresuan, Prietok, aurreko bi kongresuetan esan zuenarekin jarraituz, Moskuko 21 baldintzak baztertu zituztenen ondoan jarri zen. Azken kongresu hau ospatu baino hilabete batzuk lehenago, 21 puntu hauek eztabaidatzera bideratu zituen bere kemen guztia. Espainiako sozialismoak bere historia guztian zehar izan zuen ibilbide liberalean oinarritu zen, demokrazia burgesa gobernu forma bezala goraipatuz, eta askatasun burgesa beste edozein ideologiaren gainetik jarritz, baita Espainiako sozialismoa liberala izan behar zela aldarrikatuz.

1923ko irailaren 13an Primo de Riveraren diktaduraren aldarrikapena eta gero, PSOE eta UGTk (euren sindikatuak) abstentzioaren alde egin zuten hasiera batean, Primo de Riverarekin lankidetzaren onartzen amaitzeko. Kritika ugari ekarri dituen jarrera honen aurrean, bereziki Largo Caballeroren aurka, Prieto buruzagi sozialista bakanetako bat izan zen Fernando de los Riosekin batera, elkarlan horren aurkakoak zirenak, agian alderdiaren barruan bere jardura politikoa izan zelako sindikala baino gehiago, eta talde errepublikanoekin izandako harremanek diktadorearekiko hurbilketa ororen aurkako jarrera izatera bultzatzen zutelako. Largo Caballero 1924an Lan Kontseiluan langileen mahaikide bezala Estatu Kontseiluan sartu zenean, Prietok PSOEren Batzorde Betearazlean zuen kargua utzi zuen.

Prietoren oposizioa alderdiaren ildo kolaborazionistari, Largo Caballerok, Saboritek eta Besteirok defendatuta, zorrozetasun osoz planteatu zen PSOEren XII. Kongresuan, Madrilen, 1928ko uztailaren 1etik 5era (Pablo Iglesias hil ondoren biltzen zen lehen Kongresua). Alderdiko Betearazlearen kudeaketaren inguruko eztabaida Prietok eta Teodomiro Menendezek sinatutako lankidetzaren ildo taktikoaren aurkako ponentzia bat aurkeztearekin animatu zen, une honetan haren bozeramaile gisa agertzen zena. Biek emandako diskurtsoetan, a priori, ukatu egiten zen edozein erregimenekin lankidetzan aritzeko komenigarritasun taktikoa, baldin eta erregimen horietako agintariek ez bazuten bermatzen herritarren askatasun politikoa, Espainiaren kasuan bezala, estatu-kolpearen ondorioz. Prietoren eta Teodomiro Menendezen lantaldeak sozialistak Estatu

Kontseilutik eta kargu publiko guztietatik kentzeko eskatzen zuen bitartean, Betereazleko ordezkariak postu horietan parte hartzea defendatu zuten, proletarioek lortutako abantailei eusteko modu gisa.

Uztailaren 3an ospatutako Kongresuaren bostgarren bilkuran, bi jarrera taktiko horien liskarrak indarkeriarik handieneko mailara ailegatu zen, Prietok Alderdi Sozialistaren uste errepublikanoen garrantziari buruz eta Kongresuko akordioen gainetik bere posizioei eusteko zuen jarrera irmoari buruz egindako adierazpenaren ondoren. Besteirok eta Saboritek gogor leporatuko zioten Prietori alderdiaren eskuineko eta errepublikaren aldeko jarrera ordezkatzeari, eta sozialisten arteko zatiketaren eragilea izateari, Kongresura bertaratutako ordezkarien fede onaz abusatuz. Prietoren trebeziak eta Teodomiroren irmotasunak ez zuten eragotzi Kongresuak Batzorde Nazionalaren eta Betearazlearen taktika onartzea, eta horrekin Prieto PSOEko zuzendaritza postuetatik kanpo geratu zen.

Prietok 1930eko abuztuan Donostiako Itunean, buruzagi errepublikano garrantzitsuenekin batera, modu pertsonalean esku hartu izanak lagundu zuen errepublikanoetatik hurbilen zegoen sozialista gisa zuen irudia sendotzen. 1930eko urte osoan zehar, Prietok bere kemenik onenak erabili zituen talde politiko guztien batasuna sustatzeko, erregimen monarkikoarekin bat ez zetozela, eztabaida ideologikoak alde batera utziz, herritar gehienek nahigabea bideratzeko eta koordinatzeko modu bakar gisa. Horrela, monarkia boteretik kentzeko talde errepublikano adierazgarrien batasuna sortu zenean, Donostiako Ituna kristalizatu zuen. Prieto gainerako bertaratuek gonbidatuta joan zen bilera horretara, bere alderdia ofizialki ordezkatu gabe. Hala eta guztiz ere, PSOErentzat aliantzan sartzeko komenigarritasun taktikoaren auzia Prietok eta De los Riosek planteatu zuten bi hilabete geroago egindako Betearazlearen bilera batean, non errepublikanoekin mugimendu iraultzailean parte hartzea adostu zen, eta Batzorde Iraultzailean hiru ordezkari sozialista aukeratu ziren: Largo Caballero, Indalecio Prieto eta Fernández de los Ríos, zeinek Gobernu berriaren parte izango zirenak ere.

Gure gizona Miguel Mauraren etxean egiten ari ziren Batzorde Iraultzailearen saio guztietara joan zen, non Monarkiaren aurka altxatzeko prest zeuden elementu militarrekin kontaktuak egin zituen, eta altxamenduaren data abenduaren 15erako ezarri zen. Ministerio-sailak Batzordeko kideen artean banatzean, Prietori Sustapen Ministerioa izendatu zioten; baina gero Ogasuneko Ministerioan esleitu zitzaion, erabilgarriagoa iruditzen zitzaiolako eta atsegin

Antzoki berriaren obrak 1895ean bukatu ziren eta udalerri-arkitektoek ikuskapen berriak egin zuten. Izan ere, gertakaria gertatu baino bi hilabete lehenago bat egin zuten, baina bakarrik nabarmendu zen proiektzio kabinak adreiluzko hormak izan behar zituela, zinemetako filmak zeluloidezkoak zirelako eta material hori oso sukoia zenez, sute ugari eragin ahal zutelako. Hala ere, teknikariek ez zuten beraien baiezkoa eman eta eraikinak bere funtzioa betetzeko beharrezkoak ziren baldintzak betetzen ez zituela nabarmendu zuten; baina hainbat urtez arazorik eman gabe lan egin zuenez, funtzionamenduan jarrai zezakeela uste zuten.

Hondamendiaren ondoren, prozedura bat hasi zen eta enpresariak kondenatu zituzten bigarren irtenbiderik ez izateagatik. Betekizun hori eskatu zitzaien 1895ean inauguratu zutenean. Gainera, maileria altuko aldeetako ateak eta eskailera nagusiko irteera itxita zeuden saioan zehar. Enpresaburuari 1913. Urtean desjabetu zioten eraikina, erantzukizunak argitzeko eta zegozkion kalte-ordainak ordaintzeko.

Zabalgunearen Zirkua deitzen zen arren, bere funtzio gehienak etengabeko saioan eskaintzen ziren proiektzioak ziren. Jende-kopuru handia zegoen, batez ere auzo txiroenetakoak, prezio murriztuak baitzeuden eta ordutegia zabala zen, jendea maiz joatea ahalbidetzen zuena.

Hondamendiaren ondorioak leuntzeko ospitale, farmazia eta sorospen zentro guztiak martxan jarri ziren, eta agintariak inguruetan pasatzen ziren ibilgailu guztiak geldiarazi zituzten, zaurituak gertuen zeuden ospitaleetara eramateko.

Gorpuen 1aren goizaldean eraman zituzten, sorospen etxetik ospitaleko gorpu-biltegira. Hilkutxa guztiak hileta-gurdietan eta udaletxeko kamioietan eraman zituzten.



52. irudia. Gorpuen garraioa hondamendiaren ostean. Bilbo Zerbitzuak erakundearen funtsetik.

Hilkutxen eramatea oso ekintza hunkigarria izan zen, non hiri osoa gelditu zen. Aberatsak, txiroak eta adin ezberdinetako jende joan zen ekitaldira gertaera tragiko hartan hildakoei doluminak ematera. Udal, Diputazio, segurtasun-gorputz eta erlijio agintari guztiek parte hartu zuten ekitaldi horretan; gainera, hildakoekin harremana izan zuten ikastetxe eta erakunde guztiak ere parte hartu zuten. Ongintzako erakundeek euren ordezkaritzak ere bidali zituzten,

hondamendiaren biktimei omenaldia egiteko, eta agintariek eskura zuten baliabide guztiak zerbitzura jarri zuten ekintza hunkigarri bat sortzeko.



53. irudia. Publikoa gorpuak gidatzean. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsetik.

Ekitaldi horretarako seinalatu zituzten kaleak pizturik zeuden kale-argiak estaltzen zituzten tela beltzez gainezka zeuden, hildakoei omenaldi gisa. Balkoietan ere jabek omendu zituzten hildakoak lazo beltzak jarritz eta, kasu batzuetan omenaldi-hitzak zeuden. La Casilla-ko plazatik atera ziren hilkutxak. Neskak eta mutilak hortik igarotzen ziren besoetan tela beltzak eramanez irakasleekin batera.

Ekintzaren lehenengo momentuetan jendea Basurtoko Ospitale Zibilean elkartu zen. Koroak zeramaten biktimen familiei eta Kirol Klubeko bazkideei soilik uzten zitzairen sartzen; izan ere, haien egitekoa hilkutxak eramatea zen, Bilboko matrikularen koloreak eta telazko begiztak zituen besoko bat eramanez.

Gorpuen biltegiaren alboan zegoen aldarea hondamendian hil zirenen omenez argituta zegoen.

Handik gutxira, Kirol Klubeko bazkideak hilkutxez arduratzen hasi ziren biltegitik ateratzen eta lorategiaren bidean ilara luze batean jarritz. Biltegi horretatik ongintzako eraikinaren sarrera nagusira eraman zituzten.

Hiribilduko biztanle gehienek gorpu-lorra pasako zen kaleetan zeuden. Goizeko 10ak aldera gutxi gorabehera gorpuak Basurtoko Ospitale Zibiletik ateratzen hasi ziren La Casilla-ko plazara eramateko, non garraioa antolatuko zen.

Santiagoko basilikan ere meza bat antolatu zen. Lehen ekitaldira jende asko joateak zenbat ikusle izango zituen bigarrenak iragartzen zuen, zalantzan jarritzaren pertsona guztiak har zitzakeen edo ez.

Goizeko lehen ordutik plaza jendez betetzen hasi zen eta seguritaterako pertsonak zabaltzen ziren jende-pilaketak ekiditeko.

Kotxez Gobernadore Zibila eta alkatea iritsi ziren, eta Umezurtzen Asiloko ekitaldi aretora joan ziren. Han, hileta segizioaren parte izango ziren batzorde eta ordezkariak harrera egin zieten. Udala eta Aldundia komunitate-kidegoan aurkeztu ziren.

Goizeko 10etan Bilboko biztanle guztiak Errepublikako plazan, Autonomia kalean, Zababuruko plazan, Hurtado Amezagako kale eta geltokian, Isabel II.-aren zubian, Areatzan, Correos eta Somberreria kalean eta Institutuko plazan bilduta zeudela esan genezake.

Minduria La Casilla-ko plazatik Institutuko plazara joan zen. Ibilbide horretan zehar Bilboko etxeetako balkoiak goraino zeuden. Ekintza horren zirrara eta tristura zela eta, hainbat pertsona artatu zituzten farmazia partikularretan eta Sorospen etxeetan. Bertaratutako guztiak plazara iristea ezinezkoa zenez, gorputur burua osatzen zuten haur guztiak banandu egin ziren Areatzara iristean. Tarte horretan bertan, jendetza banatzen hasi ziren, gidatzeak bere bidea jarrai zezan utziz. Desfilean eliza guztietako kanpai guztiek etenik gabe jo zuten.

Amaieran, argazkilarien eta egunkarietako ordezkarien marea batek segizioaren zain geratu zen tirada nazionaleko egunkari guztien azala izango zen albisteak idazteko.

Ondoren, Institutuko plazan ekitaldia bukatutzat eman zuten, ordezkari batzuk agurtu ziren eta batzorde bereziek eta Bilboko biztanleek azken agurra eman zieten. Bien bitartean, hilotzak Lezamako geltokira eramane zituzten, hilotzak eta ekitaldiko gonbidatuak Vista Alegreko hilerrira eramateko bi tren berezi zeuden lekuan.

Trenen bagoiak behar bezala apainduta zeuden, hiritik Bilboko udal-hilerrira igarotzean hilkutxak laguntzeko. Hilkutxak trenbidera igo ondoren, Udaleko, Aldundiko, Gobernadore Zibileko eta familietako ordezkariak bigarren trenera igo ziren.

Vista Alegreko hilerria helduan, agintariek eta batzordeek hilerriaren atearen ondoan kokatu ziren eta hilkutxak biltegira eraman zituzten. Behin lekualdatzea bukatuta, hilkutxen tapak ireki zituzten eta kaperauak hil-otoitz bat esan zuen. Ondoren, azken ekitaldi horretan bildutakoak hilobiak zulatzen ari ziren lekua bisitatzera joan ziren non hilkutxak lurperatuko ziren. Agintariak gorpuak lurperatzeaz arduratu ziren, gerora eraikiko zen mausoleoa eraiki ahal izateko moduan. Lurperatzeko aukeratutako lekua Nuestra Señora de Begoñako plaza izan zen.

Derioko auzoak, Bilbokoak bezala, balkoi guztiak apaindu zituzten, hondamendiaren biktimei omenaldi txiki bat eginez.

Aurretik, gorpuak hilobi horretan uzteko aukera eskaini zieten udal agintariek familiei, eta, horretarako, etorkizunean gorpuzkiak lurpetik ateratzeari uko egiten ziotela sinatu behar izan zuten.


Zorigaitz honen ondoren, era guztietako agintarien doluminak iritsi ziren eta prentsa osoak eman zuen albistearen berri. Dohaintza asko partikularrek eta agintariek egin zituzten monumentu hori eraikitzeke asmoz; bestalde, eskola publiko, ikastetxe partikular eta Probintzia Institutu askok harpidetzak zabaldu zituzten ikasleen artean dohaintzak biltzeko.

1913an urtearen hasieran, monumentuaren ardura zuen batzordeak udal bulego teknikoko arkitektoei eskatu zien bakoitzak bere aldetik aurkez zezala aurrekontuaren aurrerapen bat. Aurrekontuetan mugak egon arren, obra duin bat eraikitzeke 25.000 eta 30.000 pezeta artean beharko liratekeela ebatzi zuten. Azkenik, zorigaitza hori bezain garrantzitsua zen obra egiteko, 40.000 pezeta eskatu zituzten zinegotziek.

Ardurenetakoa bat Bilbon bizi ziren arkitekto eta eskultoreei irekitako lehiaketa zabaltzearen alde zegoen arren, erabaki hori ezetsi zen aurrekontu-mugak zirela eta. Atzitik, 1913ko otsailean, garai hartan udal-plantilla osatzen zuten arkitektoek aukera izan zuten aurrekontuari egokitutako proiektu bat proposatu eta diseinatzeko. Orduko hartan, lau teknikari zeuden: Ricardo de Bastida y Bilbao, Raimundo Beraza Zarraga, Adolfo Gil Lezama eta Marcelino Odriozola Mendiolabeitia.

Arkitektoek bost irtenbide bateratu egitea erabaki zuten. Aurkeztutako proiektuak aurrekontuarekin bat zetozen, horregatik ezin izan zen libre zegoen espazio guztia okupatu, eta obra arkitektoniko bat aukeratu zen buruarentzat

(sarrera nagusiaren parean dagoen tenplu edo eraikin baten zati baten burua). Lubakiaren perimetroaren gainerakoan hesi bat izan zuen eta hau, lorategidun gainazal batez eta oinean hildakoen izenak izango zituen hilarri batez estalita agertuko zen.



54. irudia. Zirku Antzokiaren tragediaren Biktimen Mausoleoaren proiektuaren altxaera nagusia. Raimundo Ricardo de Bastida arkitektoa.

1913ko apirilaren 30an, agintariek proiektuetako bat aukeratu zuten, arkitektoetako batek obra horrek hastu ekonomiko handiagoa eskatzen zuela esan zuen arren, eskultura-lan garrantzitsuak baitzituen. Lanaren garestitzeak apainketa Bilboko Arte eta Lanbide Eskolari enkargatzea ekarri zuen. Gainera, obra kontrata bidez egitea erabaki zen, udalak ez baitzuen horrelako obra bat egiteko gaitutako langilerik. Bestalde, Euskal Artisten Elkarteak kontra agertu zen, eta presioa egin zuen aterrian ikasten eta lanean aritu ziren Bilbon kokatutako eskultoreen artean lehiaketa bat deitzeko, zalantzan jartzen baitzituzten Arte eta Lanbide Eskolaren gaitasunak.

Azkenik, Udalak Arte eta Lanbide Eskolari esleitu zion proiektua. Hark argudiatu zuen irakasleek ikasleei lagunduko ahal izango zirela eta erakunde horrentzat ez zela irabazizko proiektu bat, baizik eta ulertzen zutela proiektuak ikasleentzako motibazio bezala balio zuela. Bertan beraien trebetasun eta gaitasun artistikoak Udalaren eta eskola horren babeslearen aurrean agerian jar zezaketen.

Euskal Artisten Elkartek azaldu zuen bezala, erakunde horrek irakaskuntzan baino ez zuen eskumenik, eta, beraz, ez zuen halako lanik egiteko ahalmenik. Argudiatu zutenez, ikasleek elkarrekin egingo zutenez, azken emaitzak ez zuen artista handi baten nortasunik izango, eta argi eta garni adierazi zuten horrek kalitatea murriztea ekarriko zuela. Hala ere, agintariek ez zuten erabakiz aldatu.

Baina dena ez zen positiboa izan; izan ere, Arte eta Lanbide Eskolak ohartarazi zuen ikasleek ohiko lanak alde batera utzi beharko zituztela, eta, ondorioz, beraien soldata murriztu beharko zutela. Horregatik, Udalari dirua aurreratzeko eskatu zion, dagozkion gastuei aurre egin ahal izateko.

Obraren azken txostena eta memoria Bastidak sinatu zuen, bera baitzen udal bulego teknikoko arduradun nagusia. Txostenak eskulturari buruzko informazio zehatza ematen digu. Hala ere, proiektua zedarritu zenean, aldaketak egin ziren, eskultoreen eta erakundeen arteko lankidetzaren ondorioz.



55. irudia. Zabalguneko Zirku Antzokiaren tragediaren eskultura multzoa. Xabier Saenz de Gorbea.

8.2 OIZ MENDIKO ISTRIPUAREN MEMORIAN

1985eko otsailaren 19an, "Alhambra de Granada" izeneko Iberiako konpainia estatalaren Boeing 727 batek, Madril eta Bilbo artean hegaldi erregular bat egiten ari zela, Oiz mendian jarritako Euskal Telebistaren antenaren aurka jo zuen, Sondikako aireportuan hurbiltze- eta lurreratze-maniobrak egiten ari zen bitartean



20. irudia. Oiz mendiko antenaren argazkia
<https://bit.ly/32GFF8v>

Azpimarratzekoa da hegazkina momentuko aurreraturenetakoa zela eta hasiera batean Patiño komandanteak eta gidatzen zuen tripulazioak hegaldi esperientzia handia zutela eta askotan Sondikako aireportuan lurreratu zirela.

Hegazkina talka egin zuenen, goizeko 9:30 ziren, Oiz mendiaren magalean kokatutako Muniozguren baserriaren Juan Mari Urquiola eta bere familiak dardara gogor bat somatu zuten, eta ondoren leherketa handi bat. Bere baserritik kanpora irten zenean, bere etxetik gertu zegoen

amildegi batetik zetorren kea ikusi zuen, eta, senaz, aire istripu bat zela pentsatu zuen, garai hartan hurbiltze eta lurreratze maniobrak Oiz mendia ezker aldean utziz egiten baitziren, eta bere etxetik hegazkina ikus zitzakeen inguru horretatik hegan.

Berehala Juan Mari korrika atera zen laguntzera eta hondamendia gertatu zen lekura hurbildu zen, aparatuaren zati bat zegoen lekura. Eszena laz bat ikusi zuen, hegazkinaren zati batzuk sutan baitzeuden eta talkaren ondorioz suntsituta zeuden gorpuak ikusi zituen. Jarraian, ea inork entzuten zion galdetu zuen eta ea norbait bizirik zegoen, baina ez zuen erantzunik izan, eszena beldurgarri eta ahaztezin baten isiltasun ozena besterik ez. Bere baserrira bueltatu zenean, bere familiari ikusitako kontatu zion, eta hegazkineko bidaiari guztiak hilda zeudela nabarmendu zuen. Bere familiari agindu zion norbaitek Trabakuara, Mallabiako eskualdean, jaitsi behar zela bertan telefonoa baitzuten, eta, jaistean, norbait abisatu behar zutela. Juan Mariren arreba traktore batean gerturatu zen Trabakuako tabernara eta Ermuako Udaltzaingoa abisatu zuen, istripua gertatu zen lekutik oso gertu.

Ezbeharra izan zuen Boeing 727-ren zati bat Urquiola familiako pinudi-lursail batean erori zen, hau da, Muniozguren baserriko biztanleena, Markinako udal-mugartearen; eta bestea Astarloa baserriaren mugetara, Mallabiako jurisdikzioan, guztira 20.000m² inguru suntsituz.

Lekuko baserritarrek beraien etxeetatik irteten hasi ziren hegazkinaren fuselajea erretzen ari zen pinudira. Juan Mari istripuaren lekura bueltatu zen bere

aitarekin eta herriko albaitariarekin, aurreko egoera berdinarekin topo eginez eta inor ez zela bizirik geratzen egiaztatuz. Momentu horretan, Guardia Zibileko lehenengo bi patruilak heldu ziren, baita Lauren Arechabaleta, Markinako alkatea.

Berriak Bilbora heltzen hasi ziren eta nahasmena zela eta, Bilboko Ospitale Zibilak larrialdiko protokoloa aktibatu zuen, aire-istripuan bizirik atera zitezkeenei premiaz erantzuteko. Informazioa hain lausoa ez izaten hasi zenean, ospitalea eta hiriko larrialdi zerbitzu guztiak normaltasunera itzuli ziren poliki-poliki.

Prentsaren lanketak istripuaren benetako zergatiarekin inolako erlazioarik ez zuten teoriari atea irekitzen zieten. Hasieratik ETak (Euskadi Ta Askatasuna) jarritako lehergailu baten ondorioz izan zitekeen leherketa bati buruz hitz egiten hasi ziren, Madril-Barajas aireportuan hilabete batzuk lehenago gertatu zen bonba abisu faltsu batekin lotu zuten. Espekulazio horiek bata bestearen atzetik joan ziren, eta Euskal Telebistaren antenak indarrean dagoen legedia betetzen ez zuela ere aipatu zuten. Prentsaren arabera, mendia eta antena ere ez zeuden markatuta konpainiaren nabigazio mapetan, eta horrek eragin zezakeen istripua.

Agian, egun tragiko hartan hegazkinean zihoazen bidaiari garrantzitsu ugariak eragin zituzten espekulazio horiek. Horien artean Jose Angel Portuondo zegoen, intseminazio artifizialeko nazioarteko aditua, Giza Ugalketarako Zentroa martxan jarri zuena Gurutzetako Ospitalean, eta zentro berean lortu zuen intseminazio artifizialagatiko lehen haurdunaldia Gizarte Segurantzako zentro batean.

Gregorio López Bravo ministro ohi frankista ere han zen, ontzi-ingeniaritza ikasi zuen, Gobernu frankistako Kanpo Merkataritzako zuzendari nagusi izatera iritsi zen, eta, ondoren, Atzerriko Monetaren Espainiako Institutuko Zuzendaritzara igaro zen. Bilboko superportua eta Petronor findegia Muskizen eraikitzearen bultzatzaileetako bat izan zen. Azkenik, Carrero Blanco Gobernura iritsi zenean kargutik kendu zuten.

Hildakoen artean beste pertsona oso garrantzitsu bat Boliviako Lan Ministroa izan zen, Gonzalo Guzmán Eguez, nor Bilbora zihoan Babcock-Wilcox konpainiarekin 10 trenen erosketarako akordio bat ixteko. Gainera, bere kide guztiak eta konpainia horretako ordezkaria ere hil ziren.

Isidoro Delclaux katedraduna ere aire istripu horretan hil zen, Madriletik EHU-ra zihoan hitzaldi bat ematera. UPV-EHU-k (Universidad del País Vasco-

Euskal Herriko Unibertsitatea) egindako omenaldira unibertsitateko hainbat pertsona esanguratsu eta osasun-agintari asko joan ziren. Isidoro Delclaux psikologiako arlon lan egiten zuen, konduktismoaren inguruan ezaguera zabalak zituen eta psikoanalisiaren oinarri zientifikoaren alde zegoen. Bilboko Unibertsitatean lau urtez egon zen klaseak ematen eta fakultate horretako irakasle-taldearekin harreman estua zuen.

Istripu horretan hil zen beste bidaiari bat África Jaén izan zen, Lan Ministerioaren funtzionario laguntzailea, duela urtebetetik Enplegu eta Akerialak Sustatzeko Funtzen buruan zegoena. Lanpostu horretan egon aurretik, Lana Babesteko Idazkari Nagusia izan zen, ZDB-ko (Zentro Demokratikoaren Batasuna) exekutibako kide zen bitartean. Postu horretatik krisi sakonean sartuta zeuden enpresa euskaldunekin harreman biziak hasi zituen.

Julián Buinesa Castro Urdialesen jaiotako enpresarioa izan zen, bere negozioak ikuskizunaren munduarekin lotuta zeuden eta Astoria zinemen katearen jabea zen. Bere interesak bai Madriletik bai Bilbotik zabaldu ziren, horregatik Bolbora zihoan Oiz mendian istripua izan zuen hegaldian.

Istripuan funtzionarioen goi-kargudunak eta banka komertzialeko langileak, teknikariak eta abar ere hil ziren.

Hala ere, hamabi pertsona ez ziren hegazkineratzera aurkeztu eta erreserben zerrendako lehenengo izenek ordezkatu zituzten; hau da, hasiera batean hegazkin horretan bidaiatuko ziren pertsonak euren sortea aldatu zuten erreserben listan zeuden pertsonekin.

Horietako lehenengoa Ricardo Aparicio Rica izan zen, ekonomista gazte bat. Honi, Iberiako langile baten akats batek bizitza salbatu zion hegaldiaren irteera-ordua Sondikara iristeko orduarekin nahastu zuenean. Beraz, ekonomistak, nahiz eta garaiz iritsi aireportura, ez zuen hegazkina hartu, zeinek jada aireratu zen eta Bilbora zihoan Gaztelako zeruak zeharkatuz.

Germán Galindo, Agroman enpresaren exekutiboa eta Madrilen bizi zena ere salbatu zen. Bere etengabeko lan planen aldaketak bizia salbatu zioten bi aire istripuetan. Lan-elkarriketa baten atzerapenak Oiz mendian jo zuen hegaldia galduarazi zion, eta aurretio 1983an gertatutako istripu batetik salbatu zen.

EAJko diputatu (Eusko Alderdi Jeltzalea) eta talde Parlamentarioko bozeramailea zen Marcos Vizcaya bere hegaldia bertan behera uztea erabaki

zuen goizaldean, Flickr batzordearen agiriak lantzen eta irakurtzen egon zelako eta oso nekatuta zegoelako.

Fernández Ordoñez Espainiako Kanpo Bankuaren presidentea azken momentuan salbatu zen, Bilbora hegaldi horretan bidaiatzeko asmoa zuen arren; izan ere, hainbat arazo pertsonalek egitea eragotzi zioten eta geroko beste hegaldi batez aldatu zuen.

Erreskate talde ezberdinek lan egin behar izan zuten lekua oso arazotsua zen, Trabakuako gainetik 9km inguru banatzen baitzituzten, horietako asko porlanezko pista bidez, baina besteak lurrezko baso bideetatik.

Mendi tontorraren ingurutik gertu lurreratze tren aurkitu zen eta haren alboan Euskal Telebistako antena zegoen, hegazkinaren kolpe handiagatik ebakita. Hegazkinak telebista-antenarekin talka egin zuen lehenengo eta gero iparraldeko mendi-hegalarekin jo zuen. Inpaktuaren lekuaren inguruetan keroseno usain bizi bat zegoen, horrek su eman zuen eta mendi-magalaren behe partera hedatu zen sute bat eragin zuen. Lehen gorpuzkiak (ez dugu gorputzei buruz hitz egiten) magalaren lehen erditik aurrera aurkitu ziren.

Gorpuak mutilatuta zeuden eta gorpuzkiak galdua. Inpaktuaren zakartasunak eta horrek gorputzetan izan zituen ondorioek oso zail egingo zuten gorpuak identifikatzeko lana. Gorpuzki batzuk identifikazio lanak erraztu zituzten ondasun pertsonal batzuk zituzten.

Arratsaldean Jose Antonio Ardanza lehendakariak, Jose Maria Makua Bizkaiko Diputatu Nagusiak eta Jose Luis Robles Bilboko Alkateak lekuan azaldu ziren. Ondoren beste agintari batzuk iritsi ziren, Juan Vicente Izquierdo Eskualde Militarreko Kapitain Nagusia esate baterako.

Aldi berean, gorpuzkiak altxatzen hasi ziren. Erreskate-lanak aurrera eramateko, hiruko koordinazio batzorde bat sortu zen erreskateaz arduratu ziren hiru segurtasun taldeen artean: Ertzaintza, Polizia Nazionalea eta Guardia Zibilak, guztiak auzi-epailearen aginduetara lan egingo zuten. Gurutze Gorriko, Errepideko Laguntza Elkarteko eta Babes Zibileko kideak ere bartara joan ziren. Denek gorpuzkiak plastikozko poltsetan sartzen hasi ziren beraien ondasun pertsonalekin gero identifikazio posible bat egiteko. Poltsa hauei zenbaki bat jarri zitzaien sailkapen orden bat jarraitzeko.

Poltsak traktore batzuen atoietara eraman zituzten, baso-pista baten bidez Trabakuara eraman zitzaten, eta handik Garellanora eraman zituzten helikopteroz. Han izan zen identifikazio lanak egin zituzten lekua.

Erreskate taldeek ere hegazkinaren kutxa beltzak ateratzeaz arduratu ziren, behin aurkituak aditu nazionalak eta internazionalak aztertuko zituzten eta teoriarik egoera ezin hobean zegoen aparatu baten istripuaren enigmari argia eman ahal izango zioten.

Nabaritzekoa da Eusko Jaurlaritzak babes zibileko eta larrialdietako sare oso bat muntatzen ari zela, eta, gainera, protokolo guztiak garatzen ari zela horrelako egoera bat gertatuz gero jarduteko. Gainera, hasierako nahastea koordinazio falta eragin zuen eta ez zegoen argi nork agintzen zuen.

Auzitegiko medikuak Garellanon kokatzen ziren eta gorpuzkiak identifikatzeko lan-egun luzeak izan zituzten. Identifikazio-metodoa hatz-marketan oinarritzen zen eta prozedura honen zorrotasun zientifikoa gorabehera, gorputzen zatiketak eta NAN (Nortasun Agiri Nazionala) eta auzitegi-medikuek hatz-markak identifikatzeko erabilitako hatzen arteko aldeak asko zailtzen zuten lana. Horregatik familiakoek eta gertukoek erraztu zuten informazioa istripuaren lekuan aurkitutako ondasunekin gurutzatu zituzten. Prozedura honek kritikak jaso zituen; izan ere, familiakoen hitzetan dena presaz egin zen eta ez zuen zorrotasun zientifikoa nahikoa. Gorpuak biltegiratzeko eta garraiatzeko beste leku bat Sondikako Aeroklubetik gertu zegoen hangar bat izan zen.

Hasiera batean hil-kutxak erabili nahi izan zuten arren gorpuak garraiatzeko, ideia hau laster baztertu zen, ez baitzeuden tamaina nahikoa zuten gorpu zatiak. Aukera logikoena eta errazena Ermuako Embalajes Auzitegi S.L. izeneko istripuaren tokitik gertu zegoen konpainiak hornitutako egurrezko enbalaje-kutxak erabiltzea izan zen.

Bi auzitegi-mediku talde lan egin zuten batera, bata Madrilgo Identifikatzeko kabinetea izan zen, eta bestea Bilboko auzitegi-medikuen taldea. Gainera, auzitegi-medikuren bat ospitaleratu behar izan zuten, gorpuzkiak deskonposatu ez zitezen arnastutako formol kantitateagatik.

Eraikin berean bulego judizial bat muntatu zuten, hildakoen senideek beharrezko kudeaketak egin eta haien zalantzak argitu ahal izateko. Auzitegi

medikuek gorputz guztiak identifikatzen saiatu ziren arren, hauetako batzuk ezin izan zuten identifikatu.

Gainera, beste arazo bat sortu zen: Bizkaian kokatutako hilotz biltegien erabilera gehiegizkoa izaten ari zen, ohiko zeregina bete behar baitzuten. Egoera hau konpontzeko Vista Alegreko hilerrian lurperatzea erabaki zen. Hilerri hau istripuaren jurisdikziotik kanpo egon arren, lekuarekiko gertutasunak eta 30. etxadian zegoen leku libreak gorpuak hor ehortzea errazten zuen. Hauek behar bezala ordenatuak eta klasifikatuak egongo ziren ondoren lurretik atera eta identifikatu ahal izateko.

Auziaz arduratu zen epailea Mercedes Oliver izan zen, 29 urtekoa; urtebete inguru zeraman epaile lanetan, eta Gernikako epaitegiko titularra zen 6 hilabete lehenagotik. Kasua korapilatsua izan arren, hainbat teknikari eta espezialistaren laguntza oso garrantzitsua izan zen, horiek agintaritza judizialaren esku baitzeuden erabat.

Hasieran hegazkina Durangoko lurralde eremuan erori zela uzte izan zuten, eta herri horretako epailea auzian hasi zen lanean. Gernikako jurisdikzioaren parte zela xedatu zenean, auzia Mercedes Oliver-en eskuetara pasatu zen, baina bi epaileek elkarrekin lan egin zuten informazioa galerak egon ez zezaten.

Istripu honen benetako arrazoiak sustapen Ministerioak igorritako txosten batean azaldu ziren eta hemen emango ditugu ondorioetako batzuk. Deigarria da aireontziak azken 57 minutuetan egiten ari zen maniobrarako ezarritako altueratik behera hegan egin izana behera erori baino lehen, eta hori istripuaren arrazoiari buruzko ebidentzia handia da. Horregatik, eta hegazkinaren kutxa beltzek emandako informazioarekin gurutzatuta, altitudearen egiaztapenak eta altimetroaren irakurketa zuzenak ez zirela izan zehaztu ahal izan zen. Altitudearen alerta-sistemak ez du ahalbidetzen tripulazioa erlaxatzea, hau da, ezin da fidatu sistemak nahi duen altitudea aukeratzearekin, ez baitzen automatikoa. Gainera, tripulazioa 4.354 oineko altitudea 4.300 oineko altitudetan biribildu zuen, Alerta de Altitude sistemaren hautaketa lehenetsian, gorantz biribildu beharrean, hau da, 4.400 oineko altitudea, nahikoa zena istripua saihesteko.

Istripuaren momentuan gidaria ez zegoen agintean eta ez zuen behar adina gainbegiratu bigarren pilotua. Altitude ezberdinetarako 1.000 oineko abisuak ere ez ziren egin.

28 metroko antena nabigazio-mapetan agertzen ez bazen ere, maniobra hori egiteko segurtasun-altuera finkatzeko oztopo erabakigarria zen.

Txostenaren arabera, istripuaren egunean lanbro txiki bat eta 4 kilometroko ikuspena zegoen.

Txostenak erakusten duen arrazoi nagusia altitude-alertaren sistema automatikoki atzemateko konfiantza, abisuen interpretazio okerra eta altimetroa irakurtzeko akats posiblea dira. Akats horien guztien ondorioz, tripulazioak segurtasun-altueratik behera egin zuen hegan, telebistako antenen euskarri batekin talka eginez. Kolpearen ondorioz, ezkerreko hegoa galdu zuen, eta lurraren kontra bideratu zen, kontrolatzeko aukerarik gabe.

Iberiaren etengabeko degradazioa segurtasunean eta segurtasun-protokolo faltak hainbat istripu larri eragin zituen, eta, ondorioz, Carlos Espinosa, Iberia eta Aviaco konpainiako presidentea, kargutik kendu behar izan zuten. Oiz mendiko, Los Rodeos-eko eta Avianca-ko istripuak Espainiako abiazioaren inflexio puntu handienak izan ziren. Horregatik, Oiz mendiko istripuaren txostenean hainbat aldaketak egitea aholkatu zuten akatsak eta istripuak ekiditeko.

Istripuaren ondoren, Sondikako aireportu zaharrak Espainian ILS (*Instrument Landing System*) izeneko lurreratze sistema berria ezartzean lehena izan zen. Gaur egun lurreratze sistema malguagoak egon arren, honek eskaintzen duen fidegarritasun handiaren eta mundu osoko aireportuetan estandar gisa ezartzearen ondorioz, erabilena izaten jarraitzen du.

ILS zehaztasun hurbiltze-sistema bat da, eta seinaleak igortzen dituen lurreko ekipo batek eta seinale horiek prozesatzen dituen hegazkin barruko beste batek osatzen dute. Pilotuari gailu batean seinaleak eta aireportuaren kokapena erakusten dizkio airean erraz ibili dezan. Lurreko ekipoak erabiltzen dituen frekuentzia ezberdinei esker, polituak jakin dezake norantz biratu behar duen.

Sistema honek pilotua horizontalki eta bertikalki bideratzen du aireportuaren pistara eta lurreratze-lanak segurtasunez errazten ditu ikusizko erreferentziekin. Maila ezberdinak ditu ikuspen-betebeharren eta hodei-estalkiaren arabera: zenbat eta baldintza meteorologiko txarragoak egon, orduan eta handiagoa da ILS-aren kopurua, gehienez 3 izanez. Kategoría hauek azpiatal ezberdinak ditu, A, B eta C, eta azken hau zehatzena da. Azken mailako eta C azpiatala duen ILS-ari esker, pilotuek 0 metroko ikuspenarekin eta hodei-estalkia lurrera itsatsita dagoenean lur har dezakete.


ILS-a bi barra arrosekin markatuta agertzen da. Barra horizontalak zein altu goazen adierazten digu jaitciera-angeluari dagokionez eta barra bertikalak leku batera biratu behar dugula adierazten digu barra zentratu dadin.

Aireportu bateko ILS sistemari dagozkion OM (*Outer Marker*/kanpokoa), MM (*Midle Marker*/erdikoa) eta IM (*Inner Marker*/barrukoa) izeneko hiru balizen gainetik hegan pasatzean, hauetako bakoitzak soinu-seinale ezberdinak dituzte eta azkenak, soinu-seinaleaz gain, ikusizko bat du tripulazioaren egiaztapena ahalbidetzeko.

ILS-ren I. kategoriatik aurrera, non hegaldi instrumentalaren gaikuntza baino ez den eskatzen, pilotuaren ziurtagiri eta entrenamendu batzuk eta aireontziaren beste ziurtagiri oso espezifiko batzuk behar dira hurbilketa mota hori egiteko.

Azkenik, Bilboko Ercilla Hotelak familiei eta aire-istripuko kalteedunei emandako laguntza nabarmentzekoa da. Gainera, 1983ko Bilboko uholdeetan ere lagundu zuten, eta hori guztiagatik Gurutze Gorriko zilarrezko domina jaso zuten.

Arciniega y Aurrecoechea, S.A. enpresak monumentu xume bat eraikitzeko baimena eskatu zuen zoritxarreko aire-istripuaren biktimen omenez, Vista Alegreko hilerriaren 30. etxadian kokatzen dena. Erakundeek eta agintariek ez zuten eragozpenik jarri eta, xumea izan arren, emozioz betetako monumentua da, Euskal Herriko historia berriaren gertaera tragikoenetako baten memoria gordetzen baitu.



21. irudia. Oiz mendiko istripuaren oroimenerako monumentuaren planoak. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsetk.



22. irudia. Oiz mendiko istripuaren oroimenerako monumentuaren argazkia. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsetik.

8.3 2007/52EKO LEGEA BETE BEHAR DUTEN MONUMENTUAK (MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEA)

Memoria Historikoaren Legea onartzeak aldaketa esanguratsuak ekarri zituen Estatu osoan. Lege honen bidez eskubideak onartzen eta zabaltzen dira eta Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldeko neurriak ezartzen dira.

Vista Alegreko hilerrian lau hileta-monumentu daude lege hori betetzearen aginpean: Mausoleo Kripta, hasiera batean 1936ko hamarkadan Bilboko espetxe-ontzietan lapurretetan eraildako pertsonen hilobi gisa eta 1973ko espetxeetan eraildako pertsonen hilobi gisa eraikia zena.

Bigarrena, Bilbon matxinatutako armadan borrokatu ziren hildakoak ohoratzeko soldaduen Panteoia edo Oroimen Monumentua da.

Hirugarrena, 1936an Euzkadiko Herri Auzitegiak zigortutako presoak fusilatu zituzten horma da, orain apainduta beraien oroimenean.

Eta, azkenik, 1937ko ekainaren 19tik aurrera auzitegi frankistek zigortutako pertsonak fusilatu zituzten horma.

8.3.1 KRIPTA MAUSOLEOA

1936an eta 1937an Bilboko espetxe-ontziei eta espetxeei egindako erasoetan eraildako pertsonak lurperatzeko eraiki zen. Matxinatutako armadaren aurrera egiteak Alemaniako eta Italiako abiazioaren laguntzarekin beste gerra

mota bati bidea eman zion: erabateko gerra, biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketak haren ezaugarrietako bat izanez. Hauek Bilbotik eta inguruetatik hedatu ziren, erabateko gerra sortuz, non biztanleria zibilaren bereizi gabeko sarraskia lehentasunezko helburu bihurtu zen matxinatuentzat, garaiko bitartekorik onenak zituztenak eta ondoan armada onena zutenak, alemaniarra. Garai honetan zehar, espetxeei erasoak gertatu ziren, hiribilduko biztanleen mendeku jarrera bat izan zena matxinatuek eta euren aliatuek egiten zituzten basakerien aurrean.



59. irudia. Kriptaren eraikuntza. AMB-BUA. Bilboko Udalaren Funtza 01_002460

1936ko irailaren 25ean eta urriaren 2an zehar bi espetxe-ontziei eraso zieten, Cabo Quilates eta Altuna Mendi. Hauek itsasadarrera lotuta zeuden eta erasoak pertsona armatuek egin zituzten, eta Errepublikaren araudi juridikoaren arabera hainbat delitu egiteagatik ontzi horietan giltzapetuta zeuden eskuineko ideologiako pertsonak hil zituzten.

1937ko urtarrilaren 4an, Euzkadiko behin-behineko gobernuaren agintaldian, erasoak Larrinagako, Casa Galerako, El Carmeloko komentuko eta Los Angeles Custudios komentuko espetxeetan egin ziren eta kasu honetan 200 pertsona baino gehiago hil zituzten. Bai espetxe hauten zeuden pertsonak zein espetxe-ontzietan zeudenek, garaiko araudi juridikoaren bermeak zituzten; guztiak buruzagi politikoak ziren eta matxinatutako armadari sinpatia ideologikoa egozten zitzaizkien pertsonak ziren.

1937ko ekainaren 19an armada frankistak Bilbo indarrez hartu eta gero, Udal Kudeaketa Batzordeak, agintari militar ez demokratiko berriek izendatua, Kripta Mausoleoaren eraikuntza onartu zuen, Esteban Calle Iturrino elizgizonak proposatuta. Azken honek FET eta JONS (Falange Española Tradicionalista y Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista) diktaduraren alderdi bakarraren agintari nabarmena izan zen.

Frankisten arabera Mausoleo hura eraikitzeke helburua “Jainkoari eta aberriari beraien bizitzaren zerbitzua eman zietenei, gure herriaren saminerako burutu ziren hilketa kontaezinen martirrei ohore egitea zen”; hau da, frankistek kriptak sinbolo gisa eraiki nahi zuten eta hildakoak martir bihurtu nahi zituzten, euren kausa eta politika errepresiboak eta sarraskiak justifikatuz. Frankisten erretorika eta sinbologia jarraituz, Mausoleoan domeinu gorri-separatistan hil zituzten guztiak lurperatu zituzten.

Gorpuen ehorzketarako xedatutako arauak espetxeetan “beren abertzaletasun handiagatik, Jainkoarengan eta Espainiaren destinoan duten fede haustezinagatik” eraildako pertsonak aipatzen zituzten. Bere patria maitearen holokaustoan bere bizitza eskaini zuten martirrak ere barne hartzen zituen.

Ondoren Mausoleoaren barruan lurperatu ahal ziren hildako motak zabaldu ziren. Udalak udalerrri honetan edo handik kanpo eraildako biktima guztien senideak kriptan ere lurperatu zitezkeela erabaki zuen.

Hainbat kategoria ezarri ziren kriptak horretara mugitu ahal izateko:

- A. Bilbon, jurisdikzio-barrutian edo handik kanpo, Bizkaian edo iparraldean, eraildako naturalak eta bizilagunak, Mugimendua hasi zenean hemen bizi baziren eta jazarpena saihesteko ihes egin bazuten.
- B. Aurreko puntuan adierazitako baldintzetan dauden Bilboko bizilagunak, naturalak izan ez arren.
- C. Beste herri batzuetakoak izan arren, beren eguneroko lana Bilbon zuten eta beren sinesmen edo ideiegatik hirian erail zituztenak.
- D. Bilbon jaioak, nahiz eta hemen ez bizi eta ez lan egin, krimena Bizkaiko Probintzian egin bazen baldintza bakarrarekin.

Baimendutako hildako-motak zabaltzearen ondorioz, Euzkadiko Herri Auzitegiak matxinada militarreko eta traizioko delituengatik zigortutakoak sartu ziren. Gainera, militante sozialistekin izandako liskar batean hil zen Espainiako Alderdi Jeltzaleko militante bat lurperatu zuten.


Beraz, euren ideologia afinagatik eta frankisten ideologia politikoaren alde, erail edo ez zituzten pertsonak Kriptan lurperatu zituzten, senideek hala eskatu zutelako. Gaur egun, mausoleoan 298 pertsonen gorpuzkiak lurperatutak daude. Horietako gehienak, 231, espetxeei eta espetxe-ontziei egindako erasoetan

hildako pertsonak dira, baina ez guztiak. 47k beste hil edo fusilatu zituzten beste udalerrietatik ekarri zituzten, 5en heriotza-arrazoia ezezaguna da, 14k Euzkadiko Herri Auzitegiak zigortutako pertsonak dira eta lehen aipatutako indarkeria politikoagatik hildako pertsona bat.

Mausoleoaren eraikuntzarako proposamena 1973ko azaroaren 17an onartu zen, eta hilerriaren erdian kokatuta egongo zen, sarreran, eraikin nagusiaren, kaperaren eta galerien behealdean. Aukeratutako materialak kalitatekoak izan ziren eta gastuetan ez zuten erreparatu.

Monumentua Manuel I. Galindez arkitekto bilbotarrak diseinatutako eraikina da, hilerriaren erdian kokatuta. Zulatutako zuloa da, ikaragarria, baina lan hori ez dago arkitektoaren arkitektura-lanean jasota, ez aitortuta ere; beraz, ez dirudi interes berezikoa denik. Gainera Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroaren Katalogoak ez du barnean hartzen.

Mausoleok jatorrian bi inskripzio zituen, lehenengoa marmola leunduta dagoen eraikinaren goialdean: “Bilboko martirrei”. Inskripzio hau “Bilboko Udalerria/Cementerio Municipal” inskripzioagatik aldatu zen, eta hiribilduaren armarrria gehitu zitzaion erdian. Ezabatze hori 1989an onartu zen Hileta Zerbitzuen eta Hilerrien Udal Erakundearen Administrazio Kontseilua. Hala ere, gainerako inskripzio ia guztiak aldatu egin dira gizartearen eskakizunak betetzeko eta Memoria Historiakoaren 52/2007 Legea betetzeko.



60. irudia. Kriptaren goiko partea. AMB-BUA. Bilboko Udalaren Funtza. 01_009972



61. irudia. Kriptaren goiko parteko inskripzioaren aldaketa. Funtsa propioak.

Mausoleoaren irekieraren ondoren, bukatzeko lanak egiten jarraitu zituzten arren, Udalak 1940ko uztailaren 13ko Bilkuran sarrerako ateburuan ondorengo inskripzioa gehitzea akordatu zuten: “Isiltasuna eta otoitza, eredia ohoratzea, imitatzen laguntzea”.

Azkenean, inskripzioa aldatu zen eta azken eguneratzean ondorengoa zioen: “BILBOTARRAK!, ISILTASUNA ETA OTOITZA EREDUA OHORATZEN DUTE IMITATZEN LAGUNTZEN DUTE”. Inskripzio hau 2017ko uztailean kareharrizko plakaitsu batekin estali zuten. Plaka hori gainerako fatxadaren antzeko material eta kolorekoa zen.



62. irudia. Kriptaren goiko parteko inskripzioa. Funtsa propioak.

Gorpuzkiak 1938ko irailaren 8tik aurrera mugitzen hasi ziren; gehienak urte horretan atera zituzten lurretik, 247pertsona; nahiz eta hurrengo urteetan beste aldaketa batzuk egon ziren: 1939an zazpi pertsona, 1940an hogeita hamahiru pertsona, 1941ean pertsona bat, 1943an bi pertsona eta 1948an pertsona bat.

Kripta espetxe-ontziei egindako erasoaren urteurrenaren datan egin zen, 1938ko irailaren 25ean. Ekitaldira Diktadura frankistaren Industria Ministroa joan zen, Juan Antonio Suances.



63. irudia. Inskripzioaren gainean jarritako plaka itsuaren argazkia. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsak.

Gainera, Udalak urtero irailaren 25ean eta urtarrilaren 4an hileta-mezak egitea erabaki zuen, Udalbatza bertan egonda, hiribilduko espetxe eta espetxe-ontzietan hil zituzten martiren omenez.

Denboran zehar Kriptak etengabeko aldaketak jasan ditu, gehienak bere kokapena eta diseinuak eragindako arazo nagusia konpontzeko: lurrazpiko eraikuntza bat denez hilerriaren aldaparen ur guztiak jasotzen ditu. Diseinu kaskarrak eta kokapenak momentuak hasieratik duen hezetasunaren arazo larria areagotzen dute, horregatik Udalak etengabe fintantzatu behar izan ditu mantentze-lanak arazoa konpontzen saiatzeko. Horma hilobietan ere metalezko gurutzeak jarri zituzten 1942-1943an eta 1944an instalazio elektrikoa berritu zuten.


Hemen lurperatuta dauden pertsona gehienak Memoria Historikoaren Legeagatik babestuta daude; ez, ordea, baina Euzkadiko Herri Auzitegiak kondenatutako pertsonak; izan ere, araudi demokratiko errepublikarraren berme prozesalekin kondenatu zituzten, matxinada militarren eta traizioaren delituengatik, eta ez beraien ideologiagatik. Indarkeria politikoagatik 1933an eraildako pertsona ere ez dago aipatutako lege horrekin babestuta, ideologia politiko ezberdineko pertsona armatuen arteko gatazka baten biktima izan zen eta.


Kriptaren sarreran zegoen inskripzioa barruan lurperatutako pertsonak eredu bihurtzen zituen. Horietako askok matxinada militarrek eragindako gatazka belikoaren protagonisten alde bat irudikatzen dute. Gaur egungo 3erakundeek

sustatu nahi dituzten printzipio demokratikoekin bat ez datorren ibilbide politiko jakina jarraitu beharreko eredu bihurtzeko helburu argia du mezuak. Gainera, monumentuak erakunde publikoek eta diru publikoarekin mantentzen dituztela azpimarratzea komeni da, eta ezin dela horrelako kontraesanik onartu sustatu nahi denaren eta hirian ikusgai denaren artean.

Monumentu honek Memoria Historikoaren legeak ezartzen duenaren kontra ez joan arren, aspimarratzekoa da frankistek hil edo fusilatu zituztenek, bonbardaketetan hildako zibilek, horiek guztiak berme prozesalik gabe ez dutela antzeko tratamendurik. Hau da, berdintasun demokratikoa bilatu beharko litzateke errepresioa eta indarkeria fisikoa jasan zuten pertsona guztiengan, bidegabekeria konparatiboa ezabatuz. Kripta hamarkadetan elementu sinboliko gisa erabiltzeak Bilbon hildakoen eta eraildakoen biktimen zati bat modu eksklusiboan ohoratzea ekarri du.

Artxibo originaletan agintari frankistek erabilitako tonu sinbolikoa agerian geratzen da. Kripta toki sinboliko batean kokatuta dagoela nabaritzekoa da, konkretuki hilerriaren patioaren erdian, sarreraren ondoren, jatorrian zegoen ikuspegia kendu gabe, lur azpian kokatuta baitago. Haren gainean, harlauza handia zegoen, non gurutze handia kokatzen da; eta gainean, lehen aipatutako inskripzioak: Ayuntamiento de Bilbao / Bilboko Udala, hiriaren armariarekin. Sarrerako harmailadi handi bat ere badu. Barruan 340 horma-hilobi berdinak daude nabe baten hormak osatuz, sarreran aurrean borobiltzen direnak. Atzealdean aldare bat dago eta txostenetan elementu guztien garrantzi sinbolikoa nabarmentzen zen, beraiekin beraien ekintzak justifikatzen zuten eta.







23. irudia. Kriptaren hasierako urteak. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsak.

Materialak nobleak dira, kanpoaldea granito grisekoa da, gurutze handian leundua dago; goialdean inskripzioa marmolezkoa zen bitartean, eta gainerakoa landua dago. Barrualdean, horma-hilobiak bereizten dituzten zintarriak kareharrizkoak dira, horien tapak marmol gris ilunez eginak daude eta zorua granito gris leunduan; atzealdean, soilik, egurreko gurutze bat duen aldare bat dago.

Hildakoak martirtzat hartu ziren eta dena sinbolismo batekin apaintzen zuten, bere kausa justifikatzen zuena. 1938ko apirilaren lehen hamabostaldian senideak Udalaren Sail Nagusian eskabide xehatua aurkeztu zuten ondorengo informazioarekin lurperatuta izateko helburuarekin: martirren izen-abizenak, adina, lanbidea, jatorria, egoera zibila, heriotzaren/hilketaren lekua eta lurperatuta zegoen lekua eta data. Gainera, gorpuzkiak lekuz aldatzeagatik sortu ziren gastuak, baita gorpuzkiak gorde zituzten kutxen kostua ere, Udalak ordaintzen zituen, eskaera egin zuen familia txiroa bazen eta hala eskatzen bazuen.



65. irudia. Kriptaren kanpoaldeko diseinua. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsak.



66. irudia. Kripa bukatuta. 1938. AMB-BUA. Bilboko Udalaren Funtsa. 01_002630


8.3.2 SOLDADUEN PANTEOIA

1983ko azaroaren 4an JONS-en FET-en Fronteei eta Ospitaleei Laguntzeko Probintzia Ordezkaritza hiribilduko Udalari sail bat eskatu zion hilerrian gudu fronteetan eragindako zaurien ondorioz ospitaleetan hil ziren zauritu guztiak lurperatzeko. Udalak hilerriaren 20. Etxadian kokatutako sail bat eman zien.


Beraz, monumentu hau Bilboko guduan edo Bilboko Ospitaleetan hil ziren eta senideak erreklamatu ez zituzten pertsonen eskaini zitzaizkien.

1939an, JONS-en FET-en Fronteak eta Ospitaleak Likidatzeko Batzordeak Derioko hilerrian eskultura bat jartzeko eskaera egin zuen, Udalak lagatako esparrua mugatzeko. Eraikitako monumentua gudu-fronteetan hildako soldaduentzat atseden leua izango zen, hori dena frankistek beraien helburuak

justifikatzeko erabiltzen zuten erretorika eta sinbolismoa erabiliz justifikatuta. Ondorengo jakinarazpen batean, eraikina lau eskultura eta 201 gurutze izango zituela adierazi zuten.



67. irudia. Soldaduen Panteoiaren planoak. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsak



68. irudia. Soldaduen Panteoiaren planoak. Bilbao Zerbitzuaren funtsak.

Panteoi honen inaugurazio data ezin izan da ezarri, baina seguruenik ekintza Falangeak ez zuen, monumentuaren sustatzailea, eta ez Udalak. 1955an 209 soldaduen gorpuzkiak lurrartu ziren, nahiz eta beranduago bederatzi familiek gorpuzkien leku-aldaketa eskatu.

Lau Haizetara Gogoan erakundeak 2012an “Jainkoagatik eta Espainiagatik gudu-frontean hildakoak RIP” inskripzioa kentzea eskatu zuen. Udalak urte horretan bertan inskripzioa kentzea onartu zuen memoria errespetatzeko helburuarekin eta errepresioa jasan zuten guztiak duin egiteko.

Lau soldadu estatua ere egon ziren, garailea ordezkatzeko zutenak, kutsu militar nabarmenarekin eta matxinatutako armadaren gorespenearekin armada

frankistaren janzkerarekin jantzita baitzeuden, gaur egun sustatu nahi den ideologia demokratiko eta pluralarekin zerikusirik ez dituzten idealak goraipatuz.



69. irudia. Jatorrizko soldaduen panteoia. <https://bit.ly/2JVbzFF>

Gainera, protagonismoa eta sinbolismoa areagotzeko, idulkien (blokeen) gainean ezarrita zeuden leku pribilegiatu batean, hilerriaren bulegoen alboan. Hauek 2017. urtean kendu eta hilerriaren biltegi batean behar bezala gorde zituzten. Matxinatutako armadaren aurkako gorazarre kutsu nabarmena duen arren, eskultura horiek erreskatatzeko aukera dago, adituek balio artistikoren bat dutela zehazten badute.



70. irudia. Panteoiaren eskulturak eta blokeak kentzearen argazkia. Bilbao Zerbitzuak erakundearen funtsak.

Monumentu honen azpian lurperatutako pertsonak ez daude Memoria Historikoaren legearen babespean; izan ere, gudariak izan ziren, eta ez arrazoi politikoengatik edo Gerra Zibilean edota Diktaduran beren sinesmenengatik jazarpena edo indarkeria jasan zuten pertsonak.

Bilboko udalak hura mantentzeaz eta gastuez arduratu da, nahiz eta ideologia faxistak goraipatzeko elementu guztiak ezabatu diren.

Bestalde, agintari frankistek 21. eta 22. etxadietan kokatutako soldadu errepublikanoei eskainitako lurperatze-lekua suntsitu izanak bidegabekeria konparatiboa areagotu egiten du, bizikidetza demokratikoa suntsitu zutenak bakarrik ohoratzen baitzituen.

8.3.3 ALDERDI ERREPUBLIKANOKO SOLDADUEN LURPERATZE TOKIA (1937 baino lehen, gaur egun ez da existitzen)

1936an Bilboko Udaletxe demokratikoak Vista Alegreko hilerriko 21. eta 22. etxadietan indar armatuaren milizianoen gorpuak lurperatzea onartu zuen, eskualdeko fronte ezberdinetan hilda zirenak Errepublikaren Gobernuaren zerbitzura. Zaurien ondorioz odol-ospitaleetan hil ziren pertsonak ere gehitu zituzten lurperatze-toki honetan. I. Mundu Gerraren ondoren Europan sortutako espazio publikoen adibideari jarraituz, oroitzapenezko ehorzketa-espazio bat sortu nahi zen.

